

**aurkibidea**

<i>Zenbaki bonetan</i> .....	3
------------------------------	---

**Soviet Batasuna eta Jugoslavia**

AURELI ARGEMI: SESBeko Konstituzioa.....	7
MILICA ZAGAR: Jugoslavia 1990.....	27

**Gaiak**

JAVIER DIAZ NOCI: "Txistu", euskarazko lehen komiki-aldizkaria..	65
ANDOLIN EGUZKITZA: Errusiar formalismoa .....	55

**... hainbat aburu**

JOXE AZURMENDI: Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublikak Baltikoak .....	77
MARIA LUISA EGIA: Emakumearen aldaketa psikosozialaren eta euskararen galeraren arteko interferentziak .....	115

**Liburuak**

MARIBI UNAMUNO: Hamaseigarrenean aidanez eta Mario Ricciren heriotzaz .....	137
Jaso ditugu .....	141

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez  
inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria.

**JAKIN**

aldizkari irekia da eta  
ez dator nahitaez  
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaria**

joan mari torreal dai

**Idazkaritza eta administrazioa**

Tolosa hiribidea, 103, 1-C  
20009 Donostia. Tel. (943) 21 80 92

**1990eko prezioak**

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ...3.300 pta.	—	3.800 pta. (190 FF)	—
ale arrunta .....550 pta.	.....850 pta.	650 pta. (35 FF)	.... 950 pta. (50 FF)

*Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 60. zenbakia da eta 1990eko bostgarrena.*

*Ekialdeko zenbait nazioz eta arazoz arduratu gara nagusiki zenbaki honetan. Soviet Batasuna eta Jugoslavia hautatu ditugu, herrialde plurinazionalak direlako eta ikuspegi juridiko/politiko batetik begiraturik aldaketa-prozesu bizkor batean sartuak. Bide berri horiek nondik nora doazen edo/eta joan beharko luketen jakin nahi izan dugu, espezialisten eskutik.*

*Aureli Argemí-k, CIEMENeko Idazkari Nagusiak, Soviet Batasunean indarrean dagoen Konstituzioa aztertzen du, eta erakusten nola errealitateak legea gainditzen duen Soviet Batasuneko herrien, nazioen eta etnien jarrerak eta errebindikapenak ikusita.*

*Mitja Zagar esloveniarrak, katedradun laguntzaile eta Arazo Nazionalen Institutuko lankide zientifikoak, Jugoslaviako egoera eza-gutzeko ezaugarri esanguratsuak ematen dizkigu eta garapenerako baldintzen eszenario eta aukera posibleak azaltzen. Idazlan honen aparteko garrantzia zertan azpimarraturik ez dugu, aski agerian bait*

*daude, egon ere, nola egilearen kompetentzia hala arazo giltzarrien azalpena.*

*Bi artikuluz moldaturiko gai nagusi hau beste biz osatua dator oraingoan, arazoak eta ikuspegiak aberastuz. Batean, Joxe Azurmendik, "Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublika Baltikoak" izeneko artikuluan, Ekialdeko sozialismoarekin egunotan gertatzen dena gogoan harturik, gerraosteko belaunaldiaren mugida Euskal Herrian eta ezkerren paraderoa aztertzen ditu. Artikulu hau bigarren parte bezala aurkezten du egileak, alegia, "Nietzsche, Jünger: anekdota baten esanahi paradigmaticoak" haren segida (Jakin, 56).*

*Aipatu bigarren artikulua, Andolin Eguzkitzarena da: "Errusiar formalismoa", hau da, 1915-16 eta 1930 bitarteko kritika-eskolari egindako sarrera.*

*Gai hauez gain, bada besterik zenbaki honetan. Javier Díaz Nocik "Txistu" lehen komiki-aldizkariaren sorrera eta ezaugarri nagusiak aztertzen ditu.*

*Maria Luisa Egiak, "Mémoire" bezala, Jacques Allières irakaslearen zuzendaritzapean aurkezturiko lanaren laburpenean euskarren transmisioaz gogoeta zenbait eskaintzen du.*

*Eta **Liburuak** sailean, jaso ditugun liburuen berri ematearekin batera, Maribi Unamunoren literatur azterketatxo bat ere badamaigu.*





Aureli Argemi  
Mitja Zagar

## SOVIET BATASUNA ETA JUGOSLAVIA

### **SESBeko Konstituzioa**

Sovietar Herria. Nazioak, herriak eta etniak. Formak eta egintzak. Konstituzioaren etorkizuna?

### **Jugoslavia 1990**

Jugoslavia: antolamendu normaliboa eta errealitatea. Egitura etnikoa eta garapen historikoa. Federazioa eta partaideen sorkuntza, Estatu subirano gisa. Erretratu politikoa. Arazo giltzarriak. Etorkizuneko garapenaren aukera posibleak: statu quo-a; konfederalizazioa; Jugoslaviaren desintegrazioa; Federazioaren sendotzea. Gogoeta pertsonalak.

**Sovietar herria, Herriak, Nazioak eta Etniak**

## **SESBeko Konstituzioa:**

**erabaki gabeko arazoak,  
zalantzazko perspektibak**

**Aureli Argemí**

### **Sovietar Herria**

Sovietar Errepublika Sozialisten Batasunaren (SESBen) Konstituzioa edo Lege Nagusia, gaur oraindik indarrean dagoena, 1977ko urriaren 7an onartu zuen "SESBeko Soviet Gorenak, herriaren izenean eta honen borondate subiranoa adieraziz", sarre-rako dokumentuan irakur dezakegunez.

1936ko aurreko Konstituzioa ordezkatzeko duen honek, laburbilduz, 174 artikuluz osaturiko multzo osoaren jarraibide nagusiak adierazten ditu aitzin-solasean. 1917ko Iraultzaz geroko SESBen eboluzioa agertzen du eta, lan honen gai zehatzari dagokionez, bertan aipatzen du azkenean nola lortu ahal izan den "harreman sozialista helduen gizartea, non klase eta maila sozial guztiak hurbilduz, nazio eta herri guztien berdintasun juridiko

eta efektiboaren bidez, elkarrekiko kolaborazio anaikorrean komunitate historiko berria sortu den, soviatar herria" eraikitzea. Implizituki, urrats handitzat jotzen da soviatar herriak suposatzen duen konkista eta kategoria liberatzaile berria, hainbat faktoreren bidegurutzea izatea, Estatu berean sartzen diren nazio eta herrien ugaritasuna, denek helburu amankomuntzat sozialismoa bideratzea dutelarik, hots, "komunismora iristeko azken etapa burutzea" faktore hauen artekoak izanik.

Honela bada, aitzin-solasaren azkenean irakur daiteke nola Konstituzioak "ezartzen dituen sistema sozialaren printzipioak, SESBeko politikarenak, nola finkatzen dituen hiritarren eskubi-deak, libertateak eta betebeharrak, antolamenduaren oinarriak eta *herri osoaren* Estatu sozialistaren helburuenak" (azpimarra nirea da). Azken hitz hauetan beste nozio bat sagaritzen da: Estatu bat beraren menpeko indibiduotzat harturik, hiritarrek osatzen dute herri osoa, nahiz eta halaber "herri osoaren Estatu sozialistak adierazten dituen *herrialdeko nazio guztietako eta herri guztietako* langile, nekazari, intelektual, langileen borondate eta interesak" (1. art.) (azpimarra nirea da berriro ere). Hone-la, SESBen aurkitzen diren kolektibo nazional eta etnikoak bereiziak aurkitzen dira baina ez bananduak. Bereizketak, nolana ere, soviatar herri bakarraren kohesioaren bere gisako era adierazten du, herriarekiko atxekimenduak "SESBeko nazio eta herri guztien geroz eta garapen eta hurbilke handiagoak" posible egin behar dituelarik (19. art.).

Soviatar herriak du bere baitan subiranotasuna edota, bestela esanik, "SESBeko botere osoa soviatar herriari dagokio" (1. art.) eta bere eginkizuna da garrantzizko erabakiak hartzea "eztabaida" eta "erreferendum"-bozketaren bidez" (5. art.). Logikoaenez, soviatar herriko hiritar guztiek "hiritartasun bat bera eta bakarra" dute, "Errepublika federatu" bakoitzeko pertsonak barne (33. art.). Honek berekin dakar "SESBeko hiritarrak legearen aurrean berdinak izatea, zeinahi izanik beren jatorria, baldintza sozial eta patrimonialak, bakoitzaren nazionalitate eta etnia, sexua, jakinduri maila, hizkuntza, erlijioari buruzko jarrerak, okupazioaren jenero

eta ezaugarriak, egoitza eta gainerako zirkunstantziak. SESBeko hiritarren eskubideen berdintasuna segurtatua dago bizitza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren alor guztietan" (34. art.). Sovietar herriko partaide guztien berdintasunaren zentzua inola ere erlatibizatua izan ez dadin, Konstituzioaren testuak garbi uzten du "nazionalitate eta etnia dibertsotako soviatar hiritarrek eskubide berdinak dituztela. Eskubide hauen iharduketa SESBeko nazio eta herri guztien garapen orokor eta elkarrenganatzearen politikak segurtatzen du, halaber hiritarrak soviatar abertzaletasunean eta internazionalismo sozialistan hezteak, ama-hizkuntza eta SESBeko beste hizkuntzak erabili ahal izateak. Legeak zigortu egingo ditu hiritarren eskubideen nolana hiko murrizte zuzen nahiz zeharkakoak, arrazak eta nazioak oinarritzat harturik ezarritako nolana hiko pribilegio zuzen nahiz zeharkakoak eta orobat eskusibismoaren, etsaigoaren nahiz mezpazu nazional zein arrazakoaren propaganda" (36. art.).

Zerrenda luzean, SESBeko Konstituzioak "soviatar herriko" partaide diren hiritarren eskubide eta betebeharrak zehazten ditu. Estudio honen gaiari bakarrik lotuz, aniztasuna aipatzen duen eskubide bakarra ekarriko dut hona: SESBeko hiritarrek ikasketarako eskubidea dute. Eskubide hau bermatua gertatzen da ikasketak bakoitzak bere ama-hizkuntzan egiteko oportunitatearekin (...) (45. art.). Hiritarren betebeharrak direla eta azpimarratu nahi dut "SESBeko hiritarra behartua dagoela SESBeko Konstituzioari begirune izatera, halaber soviatar legeei eta elkarbizitza sozialistaren printzipioei eta SESBeko hiritar izateak suposatzen duen ohorezko titulua harro agertzera (59. art.); "SESBeko hiritarra behartua aurkitzen da soviatar Estatuaren interesak babestera eta bere potentzia eta prestigioa areagotzeko kolaboratzera. Aberri sozialistaren defentsa SESBeko hiritar ororen betebehar sakratua da" (62. art.); "SESBeko Armadan soldaduzka egitea soviatar hiritarraren ohorezko betebeharra da" (63. art.); "SESBeko hiritar ororen betebeharra da beste hiritarren duintasun nazionala errespetatzea, soviatar Estatu plurinazionalen nazio eta herrien adiskidantza sendogotzea" (64. art.).

## Nazioak, herriak eta etniak

Aipatu azken artikuluan SESB Estatu plurinazionala dela zehazten da. Adjektiboaren adiera Konstituzioaren beraren aitzin-solasean aipatzen diren bi kontzepturen bidez definitzen da: "SESBek soviatar herriaren batasun estatala mamitzen du, komunismoa eraikitzeko lankidetzan nazioak eta talde etnikoak elkartuz" (70. art.). Bi kontzeptu hauen arabera dago ulertu beharra "Sovietar Errepublika Sozialisten Batasuna Estatu federal plurinazionala dela, federalismo sozialistak dioen erakoa" eta hau guztia "nazioen autodeterminazio librearen eta Sovietar Errepublika Sozialisten borondatezko elkartzearen fruitua dela, denek eskubide berdinak izanik" (70. art.).

Sovietar Errepublika Sozialista Federatibo (SESF) bakoitzak, 15 direlarik (71. art.), bere altzoan aurkitzen diren nazio eta herriei dagozkien eskubide kolektiboak mantendu egingo ditu. Eskubide hauek, aipatu autodeterminazio-eskubideaz gainera, honen osagarriak dira azken fincan. Honela bada, autodeterminazio-eskubidearen indarrez, SESF bakoitzak "SESBetik libreki bereizteko eskubidea du" (72. art.), bere esparru "estatal" propioan subiranotasun-eskubidea" (76. art.) "bere onarpenik gabe aldatu ezin daitekeen" bere lurralde propioan (78. art.) eta "atzerriko Estatuarekin harremanak burutzeko eskubidea, hauekin tratatu eta elkartruke diplomatiko eta kontsularrak estipulatzekoa eta nazioarteko organismoen ihardueretan parte hartzekoa" (80. art.). Eskubide guzti horiek SESBek abalatuak dauzka (81. art.).

Funtsezko eskubide kolektiboak aitortuak eduki arren, ordea, behin bakarrik eman da SESBekin "borondatez" elkartzea edo honek dirauen bitartean, SESFek kondizionamendu eta subordinazioak onartu egiten dituzte. Bestela esan, behartuak daude hurrengo printzipio hauek onartzera: "SESBen (soviatar herriaren) subiranotasuna bere lurralde osora hedatzen da" eta subirotasun hau —azpimarratu egiten da— "bakarra da eta barnean hartzen ditu Errepublika Federatuak" (75. art.) eta, beraz, "Errepublika Federatuak egindako legeen eta Batasunak ezarritako legeen ar-

tean ezadostasunen bat sortuko balitz, Batasunekoek dute lehen-tasuna" (74. art.). Hitz batean esateko, benetako subirotasuna, ondorio guztiekin, Estua osatzen duen soviatar herriari dagokio eta SESFak subiranotasun horretaz SESBeko Konstituzioak zehaz-ten duen neurrian bakarrik baliatzen dira. Funtsezko Legeko az-ken artikulua behin eta berriro dioenez, "SESBeko Konstituzioa-rena da indar juridiko gorena. Organo estatalen lege eta egintza guztiak SESBeko Konstituzioa oinarritzat hartuta promulgatzen dira, bcti Konstituzioaren arabera (174. art.). SESBeko subiranota-sun-ihardunean SESFen partizipazioa kompetentzia batzuren bi-dez mamitzen da, izaera "autonoma" duten kompetentzien bi-dez (76. art.), jadanik Konstituzioan orokorki finkatuak berauek: "garapen ekonomiko eta soziala segurtatzen dute", hau da, Esta-tuaren lege eta jarraibideak aplikatzea, "bakoitzaren lurraldean, lurralde horietan SESBen eskubideak betetzea bultzatzen dute, praktikan SESBeko botere eta administraziooko organo nagusien erabakiak mamitzen dituzte, Batasuneko enpresen, enteen eta erakundeen aktibitateak kontrolatzen dituzte" (77. art.) eta "hala-ber erabakitzen dituzte lurralde-banaketak, erregionalak"... (79. art.). Hala ere, lurralde-banaketa batzuk SESBeko Konstituzioan finkatuak aurkitzen dira; SESF batzuren markoan aurrez ongi de-finituak dauden "Autonomienak" dira (Sovietar Errepublikak Sozialista Autonomoak, Erregio Autonomoak eta Eskualde Auto-nomoak) (82-88. art.).

"Delegaturiko" kompetentziez gain, SESFek, Sovietar Erre-publika Sozialista Autonomoek bezalaxe, hein eta maila diferen-tetan, SESBen kompetentziakoak diren arazoak konpontzen bakarrik hartzen dute parte zuzenean, beren ordezkari institu-zionalak "SESBeko Soviet Goren, SESBeko Soviet Gorenaren Presidium, SESBeko Gobernu eta SESBeko beste organismoeta-ko partaide izendatuak direnez gero" (77. art. eta honen pareko 83. art.), esan nahi bait da, botere eta administrazio estatalak osatzen dituzten instantzia dibertsoetako partaide direnez gero.

Honela, SESFek eta beheragoko mailako "Autonomiek" lege eta arau estatalak "aplikatzea" besterik ez direla esan dezakegun

kompetentziak aplikatzen iharduten dutelarik alde batetik, bestetik "aktore" nagusiak dira SESBeko subiranotasunaren eszenategian, beren kompetentzia esklusiboenean. Oro har, beste Estatuak bereentzat aitortzen dituzten antzeko eskubideen iharduera parte hartzen dute beren ordezkariak eta, SESB Estatu federala denez gero, baita Errepublika berriak onartzean, mugak ezartzean eta Errepublika bakoitzeko Konstituzioa onartzean, Errepublika Federatuek atzeritar Estatuekin eta nazioarteko organismoekin dituzten erlazioen modalitateak eta koordinazioa finkatzean ere (ikus 73. art.).

Azpimarratu beharra dago SESFek eta "Autonomiak" Estatuaren mailan beren erakunde propioa ere badutela, "Nazionalitateen Sovieta", botere juridiko estatalaren organo maximoan, SESBeko Soviet Gorenean, "Batasuneko Sovietaren ondoan" (ikus 108-127. art.). "Nazionalitateen Sovieta" (32 diputatu SESF bakoitzetik, 11 Errepublika Autonomo bakoitzetik, 5 Erregio Autonomo bakoitzetik, 1 Eskualde Autonomo bakoitzetik) (110. art.) Senatuaren moduko zerbait da, "Batasuneko Sovietak" (gure Parlamentuaren antzekoak) dituen botere legislatibo berdinak dituelarik. Garrantzizko arazoei buruz bi ganbaren artean ezadostasunik sortuz gero, herritar erreferendumaren bidez erabakitzen dira, hau da, soviatar herri osoaren botuarekin (115. art.).

## Formak eta egintzak

SESBeko 1977ko Konstituzioak "soviatar herria" definitzen du. Ez du, ordea, zehazten etengabe aipatzen dituen "herriak, nazioak eta etniak" hitzekin zer ulertzen duen, eta dirudienez onarturiko nozioztat uzten ditu.

Ez-definitze hauek polemikak sortu zituzten SESBeko Konstituzioa onartu aurretik eta ondoren. SESBeko Alderdi Komunistaren Idazkari Nagusi eta garai hartan soviatar botereko agintari maximoa zen Leonidas Brejnev-ek berak hitz egin behar izan zuen Konstituzioaren testua erredaktatu zutenek nolako kri-

terioak erabili zituzten argitzeko. Baina, aipatu terminoak definitu ordez, areago izan zen SESBeko Konstituzioan hitz horien sarrera justifikatzea, aipatu errealitateak goragoko beste kategoriatan, hots, soviatar herriaren sortzeak jadanik irentsiak zituztela uste zutenen aurka jartzeagatik izan zela; "herriak, nazioak eta etniak" aipatzea, garai bateko oroitzapenen aurrean amore ematea dela eta "soviatar herria" kontzeptu berriaren muina edo edukina minimizatzea hain zuzen".

Hitez hitz, honela zioen Brejnev-ek: "SESBen, jakina denez, komunitate historiko berria sortu da: soviatar herria. Lagun batzuk ondorio okerrak atera dituzte baieztapen honetatik. Konstituzioan soviatar nazio bakarraren kontzeptua sartzea proposatzen dute, Errepublika Federatuak eta Autonomoak desagertzea edota Errepublika Federatuen subiranotasuna bortizki mugatzea, SESBetik bereizteko eta atzerriarekin harremanak ezartzeko eskubidea kenduz. Orobat agertzen dira Nazionalitateen Sovieta ezabatzeko proposamenak eta ganbara bakarreko Soviet Gorena sortzekoa. Uste dut proposamen hauen okerra nabaria dela. Soviatar herriaren batasun politiko eta sozialak ez du nahitaez diferentzia nazionalen desagertzea suposatzen. Baina politika nazional leninistaren iharduera koherentearen bidez, guk, sozialismoa eraikitzean, historian lehenengo aldiz eta gainera egoki gainditu dugu arazo nazionala. Soviatar herrien arteko adiskidantza suntsigaitza da. Komunismoaren eraikuntz prozesuan herrien arteko hurbilketa mamitzen da eta beren bizitza izpiritualen elkarrekiko aberastasuna. Arriskugarria litzateke nazioen arteko elkarrenganako hurbiltze-prozesua artifizialki bortxatzea. Lenin-ek temati azpimarratzen zuen arrisku hau. Guk ez ditugu haren erakutsiak baztertuko" (Pravda, 1977ko urriak 5).

Egia esateko, Brejnev-ek ez zion funtsezko arazoari erantzun, ez zituen "soviatar herriaren" marko berriko "herriak, nazioak eta etniak" nozioak definitu. Baina Lenin-en pentsamenduan eta honen geroagoko interpretazioetan oinarritutako joerak iradoki zituen. Laburbilduz, Brejnev-ek zera esan nahi zuen, komunismoa iritsiko denean —ia bertan dago—, "forma" naziona-



lak edo diferentzia nazionalak betirako desagertuko direla. Gaur ez dago, beraz, zertan azpimarraturik indarra galtzera kondentatuak dauden kontzeptuen definizioa.

Hauxe da SESBeko Konstituzio berriaren optika, nabariagoa Konstituzio hau SESBeko aurreko Konstituzioarekin alderatzen badugu, Stalin-en agindupean elaboratu zen 1936koarekin. Hain zuzen ere, 1936ko Konstituzioak Errepublika Federatuei eta ente autonomoei kompetentzia subirano oso beteak ematen zizkien —SESFen kompetentzien iharduera era independentean mami-tzen zirela zioen (15. art.)— eta Konstituzio berriak zehaztu eta areagotu egiten ditu Estatuaren kompetentzia eskusiboak, SESF-en barneko kompetentziez ia ezer aipatu ere egin gabe. Hauek, praktikan, zeinahi Estatu deszentralizatuk dituen modukoak izatera murriztu dira (ikus estudio konparatiboa: A. ARGEMI, *La Nuova Costituzione dell'URSS e le Nazioni Sovietiche en Minoranze* 9-10 (1978) 7-18).

Bestalde, Konstituzio berriak bukatutzat ematen du herriei, nazioei eta etniei formalki ezagutuak zitzaizkien eskubide kolektiboetatik eratorritako botereak Batasunari pasatzea. Herriek, nazioek eta etniek SESBeko boterearen organoetan ordezkari-tza badute eta Estatuaren subiranotasunean parte hartzen badute, areago dagite Batasuneko partaide direlako eta "sovietar herriaren" zerbitzuan, ezen ez interes eta errebindikazio berezien defendatzaile bezala, hau da, ez zentralismoarekiko dinamika zentrifugo bezala, nolabait esateko.

Honela bada, Hélène Carrère d'Encausse Sovietar Batasunaz espezialista ezagunak *L'Empire éclaté, la révolte des nations en URSS*, (Flamarion, Paris 1978, 123-128 or.) bere obra ospetsuan idatzi zuen SESBeko Konstituzio berriak, gizarte herriaren —sovietar herriaren— kontzeptua sartuz, integrazio-indarrak areago nabarmendu nahi dituela diferentzienak baino, benetako uniformismoaren bidean etengabe batasuna bultzatzeko. Nolabait esateko, Kruchtchev-en herentzia jasotzen du, zeinak Stalin-en gestioa kritikatu ondoren, herri, nazio eta etniak proiektu nagusiago batean "fusionatzearen" ideia hotsa bait zuen. Baina herentzia ja-

sotzen badu ere, ez da ausartzen ondorio guztiekin esatera edo afirmatzera, aipatu ideiarekin aurkakoci argumentu gehiago ez eman asmoz, hala nola izaera nazionala —edota nazionalitatea— zuten mugimenduci eta “eztabaida zientifikoa” izenez ezagutzen ziren zirkulu ugari. Errealitatean 1977ko Konstituzioan ez da agertzen “fusio” hitza, baina nazioen arteko adiskidantzaz Batasuna mamitu dela goraltzen du. Federalismoa mantendu egiten da, baina edukin garrantzizkoenak hustuta.

SESBeko 1977ko Konstituzioaren aplikazioak jadanik hamairu urteko bidea du eginik, balantzea egiteko nahikoa denbora. Bitarte horretan, bi etapa nabarmentzen dira, 1977tik 1985era doana eta Michail Gorbachov-ek boterea hartzearekin hasi zena, hots, azken bost urteetakoa.

Gaingiroki, lehenengo etapan zehar Estatuaren zentralismoa berregituratzeko asmo politiko zorrotza ikus daiteke eta sistema federala zentralismoari egokitzekoa. 1977ko Konstituzioaren arabera, SESBeko Soviet Gorenak jarraitzen du, juridikoki, Estatuko boterearen organo nagusia izanez. Instantzia horretan, SESFen eta beste autonomien ordezkariak aldatu gabe jarraitzen du. Hala ere, Estatuaren benetako botere politikoan —Soviet Gorenaren Presidiumean, SESBeko Ministrarien Kontseiluan eta Estatuko Komiteetan— oso bestelako prozesua ematen da. Aipatu organoetan errusiar nazioko nahiz eslaviar komunitateko pertsonak ugalduta egiten dira. SESFen eta beste autonomien ganbara legislatiboetan ez bezala, hauek poliki-poliki ez bait dituzte onartzen aipatu komunitateei arrotz zaizkien pertsonak, hau da, Moskutik bidalitako funtzionarioek eskainuak hartzea galeratzea, lehenago gertatzen zena alegia. Bide batez, ordea, errusiar eta eslaviarren emigrazioa bultzatzen da, egoitza Errepublikan periferikoetan ezar dezaten, honela, aipatu Errepubliketan legalki lor dezaten botere juridikoa. Bestalde, arautegi konstituzionala zorrozkiki betez, SESFen eta beste autonomien goiko organo legislativoak, erabat jarraibide zentralen menpean daudelako, Moskun hartutako erabakien jarraitzaile bihurtuz doaz, hori bai, hizkuntza desberdinetan. Benetako botere politikoa SESBeko hiriburu-

tik izendatutako burokratei transferitzen zaie, SESF bakoitzean gobernu errepublikar-federalaren funtzioak betetzeko aukeratuak izan diren burokratei; ez da beharrezkoa aipatu pertsonak nahitaez Errepublika horietakoak izatea eta, hain zuzen ere, geroz eta areago dira errusiarrak edota "errusiartuak". Honek ez du, ordea, galerazten SESBeko politika orokorra exekutatzeko horren kompetentzia murriztuak dituzten gobernu lokaletan beren ordezkariak dagozkien nazioetakoak izan daitezen geroz eta arreta handiagoa jartzea, bertakoak nola sortzez hala egoitzaren bidez. (Aurrerago ikusiko dugunez, birmoldaketa hauek *boomerang* efektua ekarriko dute, ganbara legislatiboek beren kontura ihardungo dutenean).

Estatu zentral eta deszentralizatuaren aparatuetan hau guztia gertatzen zen bitartean, antzeko zerbait ikus dezakegu SESBeko Alderdi Komunistan, honi bait dagokio "sovietar gizartearen indar zuzendari eta orientatiboa izatea, sistema politikoaren munita, erakunde estatal eta sozial guztiena" (SESBeko Konstituzioaren 6. art.). SESBeko Alderdi Komunistaren konposizioa (SBAKena), lehen nominalki federala izanik, unitarioa izatera pasatzen da; bere militanteek integrazio-izpirituz jantziak egon behar dute eta ez dibertsotasunarenaz, hots, aipatu artikuluko konstituzionalak dienez, "herriak herriarentzat" egindako antolamendukoak izango dira, areago zehaztu beharrik gabe. Honek, nazio diferenteen ordezkartza, neurri handian, datu estatistiko hutsa besterik ez da SBAKen. Garrantzizkoa zera da, bertako partaide guztiak, nola teorian hala praktikan, Alderdiaren helburu globalizatzaileari leialak izatea. SBAKen kupulan, ordea, paradoxaz, aparteko interesa erakutsiko dute hainbat nazio desberdinetan sustraituriko militanteen kopurua Alderdian hazi eta areagotzeko, beti ere "sovietar herriaren goihelburuari" leialak bazaizkio, Estatua mamitzen duen "botere zuzendari bakarrak" protagonizaturik. Honela, batasuna bideratzeko mezua, nazionalitate dibertsotako partaideek burutuz gero, errazago ulertuko da "hizkuntza diferentetan" eta, dudarik gabe, eraginkorragoa izango da.

Azkenik, SESBeko 1977ko Konstituzioa aplikatzearen lehenengo etapako beste joera nabarmen bat, Sovietar Batasuna "errusiartzeko" plan herria dei dezakeguna da. Plan hau ez da hedatzen SESBen ezagutuak dauden ehun hizkuntza baino gehiago diren horien craso bezala ezta errusieraren inposizio bezala ere —Konstituzioa bera ez zen ausartu errusiera ofizial deklaratzera—, "sovietar herria" gorpuzteko tresna bezala baizik. SESBeko eskola guztietan derrigorrezkoa den errusieraren irakaskuntzak helburu bikoitza du, alde batetik benetako elebitasuna ezartzea denen arteko komunikazioa gauzatu ahal izateko eta, bestetik, geroago, errusieraren "borondatezko" erabilpen nagusia areagotzea, bera izanik hizkuntza erkide bakarra. Planak aurrkusten du hizkuntza nazionalak, progresiboki, bigarren mailako zerbait bilakatzea "homo sovieticus" delakoaren faboretan, azken finean batasunaren mesedetan. Aipatu plana zein ona den adierazteko, ez da esango errusierak beste hizkuntzak ordezkatu beharko litzukeela —nahiz eta erreallitatean horretara jo—, aukera demokratikoa posible egiten duen hizkuntza bezala baizik, kopuruz gehiengoarena delako eta SESBen prestigiozkoa, gizartean gora egiteko beste hizkuntza nazionalak baino ahalbide hobeak ematen dituelako. Adituzera ematen da hizkuntzaren balioa probetxuaren kriterioz baloratu behar dela eta ez inola ere nortasunaren adierazgarri.

Aspektu nabarmenenak bakarrik oroiteraziz, hemen gaingiroki deskribatu dugun SESBeko 1977ko Konstituzioaren aplikazioak bere lehenengo etapan (1977-1985), noraino izan du arrakasta? Nolarebait, erantzuna areago damaigute gertatuck ezen ez diskurtsuck. Hau da, bigarren etaparen ezaugarri diren "perestroika" eta "glasnost" dira erantzunak.

Aldi honetan gehien nabarmendu den aspektua zera da, handikiro "sovietar herriaren" jaiotza deituak berak, hainbeste urteren ondoren, ez duela txintik ateratzen, ez duela erantzuten. Bestela esanda, SESBeko gizarte pluralak ez dirudi soviatar hiritar guztien izenean bera berez mintza dadin behar hainbat hazi denik. Besteak beste, aski frogagarriak dira herri, nazio eta

etnien "berpizkundeak", Sovietar Batasunaren panorama-eskergaren eszenan ahots disidenteak oihukatuz uste baino azkarrago eta biziago agertu direlarik. "Berpizkunde" hauek argi erakutsi dute Konstituzioaren arkitektoek eraikitako edifizioak bere zimentu edo oinarrietan egiten zuela huts, Batasuna ordenu-hitza besterik ez zela, funtsean sistemak ezin izan duela Banaketaren, edota egoera gordeko eta geroz eta indartsuagoko Banaketa ugariaren errealitatea gainditu.

Herri eta etniek sortu duten egoera gatazkatsuak beste arazo bat planteiatu du edo planteiatu berria du: Konstituzioan mantendu den federalismoak —jadanik SESBeko 1924eko lehen Konstituzioan ere agertzen zen— ez ditu elkarbizitzaren arazoak gainditu, bere sortzaileen asmoez porrot eginez. Lenin eta Stalin-ek sinatutako 1917ko Agirian oinarritutako mezu federala arago geratu da promesen alorrean ezen ez "Errusia Haundia-  
ren uztarpetik, tsarrek mamituriko inperiotik liberatutako" herri eta etnia diferenteen helburuen errealizazioan. Agiriak, besteak beste, zera zioen, "tsarismoaren garaian Errusiako herriak beren artean burukatzen behartuak aurkitzen zirela. Politika horren ondorioak aski ezagunak dira: alde batetik sarraski eta programak, bestetik herrien esklabutza. Ezin gaitzekite politika lotsagarri horretara berriro itzul. Gaur Errusiako herrien batasun jator eta berezkoaren politikak gailendu behar du. Inperialismoaren garaian, Otsaileko Iraultzaz gero, boterea burgesia konstituzional-demokratikora igaro zenean, aurreko eszitazio-politikaren lekua Errusiako herriekiko mesfidantzaren politika zitalak bete zuen, manipulazio eta probokazioen politikak, herrien "askatasun" eta "berdintasun" hitzekin babesturik. Ezagunak dira politika honen emaitzak: nazionalitateen arteko antagonismoa areagotzea, elkarrekiko uste ona galtzea.

"Gisa honetako politikak lurperatu beharra dago (...). Beren ordez, Errusiako herrien arteko uste ona berriro ekarriko duen politika zintzo eta jatorra dago loratu beharra. Elkarren arteko uste onarekin bakarrik gorputz daiteke Errusiako herri guztien batasun sendo eta jatorra eta konkista-goseak eraginda burgesia inperialistaren erasoei aurre egiteko gauza izango den indar

iraultzailea. Jokabide honen barruan aldarrikatu zuen Soviet-en I. Kongresuak, aurtengo ekainean, berek beren gisa erabakitze-ko eskubidea Errusiako herrientzat. Azken urri honetan, Soviet-en II. Kongresuak eskubide hau zehazkiago herronetsi zuen.

“Soviet hauen borondatea aintzakotzat harturik, Herri-Konseiluak hurrengo printzipioak oinarritzat hartzea erabaki du nazionalitateen arazoa dela eta: 1) Errusiako herrientzat berdintasuna eta subiranotasuna; 2) Berek beren gisa erabakitze-ko Errusiako herrien eskubidea, bereizi eta Estatu independentea sortze-ko eskubidea barne; 3) Pribilegio guztiak eta murriztapen nazional eta erlijioso guztiak ezabatzea; 4) Errusiar lurraldeko gutxiengo nazional eta talde etnikoen garapen librea”.

Lehen batean Errusiako esparruan bakarrik ezarria, gero SESB osatuko zuten lurralde guztiei ere aplikatu egingo zitzairen, SESBeko lehen Konstituzioak (1924) dioenaren arabera eta, bereziki, bere aitzin-solas luze edo Sarrerako deklarazioaren arabera.

Baina, zergatik ez da mamitu SESBeko sistema federala hainbeste urtetako esperentziaren ondoren? Erantzun bat zera litzateke, talde federalek berek (SESF eta beste ente autonomoek) ez dutela egoki irentsi herri eta etnia diferenteen errealtate historikoa, eta hau ongi frogatzen dute herriek Estatuarekin izandako gatazka ugariak eta orobat azken urteetan “etnien arteko gerrak” deitu zaienak; maiz aski kanpotiko zirkunstantziek “mugierazi” duten errealtatea ez irensteak (adibidez, Stalin-en garaiko populazio-aldaketa handiak, gutxi-asko hortxatuak). Beste erantzun bat litzateke sistemak guztiz aldagaiz iraun duela, SESBeko mapa komplexuan desoreka demografiko eta ekonomikoak sortu arren, errusiarrek beren emigrazioaren bidez beren hizkuntza eta kultura, beren boterea bete herriei inposatu arren... Gaur gehien azpimarratzen den erantzuna, agian, zera da, sistema federala areago izan dela kontrako interesdunen konpromezu-era bat, ezen ez aipatu Agirian azaldutako printzipio bikainek erakarritako borondatearen adierazpena. Hau bereziki orain seinalatzen da, sistemaren beraren arimak, sozialismo-komunismoak lortutako ustezko konkistek alegia, SESBeko gizartearen esperantzei huts egin dieten honetan.

## Konstituzioaren etorkizuna?

Berriro ere, gaurko SESBen demostratua geratzen da legeak gertakariaren atzetik datozela. Indarreango konstituzio-markotik at nabarmen geratzen diren gertaerak ari dira jazotzen; baina berezitasun batekin, nolabait ere SESBeko Konstituzioan bertan jasotako printzipioei dagozkiela eta baita Lenin eta Stalin-en aipatu ideiei ere. Azal dezadan: Lituania, Letonia eta Estoniako Errepublikak Sozialista Sovietar Federatiboek eta ondoren beste batzuk, beren organismo legislatiboen bidez, libreki erabakitzeke beren eskubide konstituzionala, beren subiranotasuna aplikatu dute eta bakoitza bere ñabardurarekin, SESBetik independente deklaratu da edota bere erabakiak SESBek har ditzakeenak baino bali handiagoak direla baitetsi du, besterik gabe. Jakina, hau guztia ustez nahitaezkoak ziren hainbat filtro edo baimen kontutan hartu gabe burutu dute. Erabat egoera juridiko berria sortu dute, "ekintza kontsumatuen politika" dela eta, legeen aurrean eskubideak hobetsiz.

"Sovietar herriaren" ustezko errealtatea eta "federazioaren" sendotasun haustezina gezurtatzeaz gainera, SESFek beren erabakiekin hutsune konstituzionala sortu dute. Sovietar Estatuaren botereak, egia da, mehatxuz eta txantaiatzaz erreakzionatu du..., estatu klasikoaren metodoak aplikatuz, baina baita erabaki konstituzionalak ezarriz ere. Esan nahi du erabaki batzuz jabetu dela eta efektibo bihurtzeko beharrezko dela legezko mekanismoren bat ezartzea, oraindik aurrikusi gabea nola SESBeko Konstituzioan hala Errepublika bakoitzarenean. Oron buruan, ordaintzat afektatuak diren parteek elkarriketaz eta negoziazioz hutsune konstituzionala betetzea proposatu du, "berezketa kontsentsuatu" ebentualak burutzeko arautegia bideratu ahal izateko.

SESBeko botere estatalak egin duen eskaintzak bi jarrera ezberdin probokatu ditu. Eskaintza horretan batzuk errekuiperatzekeko prozesuari ekiteko aukera baino ez dute ikusten, hau da, denbora igaro dadila betiko sistema "batasunzalea" mantentzeko itxuraz formula berriak aurkitu arte. Behar izanez gero, SESFei

kompetentzia formal handiagoak emanez. Honela uste dutenentzat, dialogo eta negoziazioetan sartzea ekidin behar litzatekeen arriskua besterik ez da, gerra galdutzat ematea, benetako indarra kontrarioen alde dagoelako. Horrexegatik nahi lukete, era batera nahiz bestera, SESBetik "irtetea". Beste batzuren ustetan, erabaki pragmatikoak hartu behar lirateke, kontutan izanik munduaren gaurko eszenategi geopolitikoan ezin dela pentsatu ere SESB "hautsiko lukeen" zeinahi akordiotara iristea. Dena den, egindako eskaintzaz baliatzea da orain garrantzizkoa, agintari estatalek iharduteko duten estilo berriaz probetxua lortzea (lehenago armada bidaliko zuketena disidentzia zapaltzeko), SESB-eren barneko krisiak errentagarri bihurtzea ahalik eta onurarik onenak eskuratzeko (autogobernu federalen botereak areagotzea, lurraldeen mugak birmoldatzea, lana eta irakaskuntza modernizatu eta berrantolatzea, baliabide propioak eta konposizio demografikoa estuago kontrolatzea, e.a.) eta, honela, espero den eszenategi geopolitiko berriaren aurrean, etorkizun kompetitibo prestatzea, agian "aginduzkoa" izango ez delarik orduan SESB gaur den bezala mantentzea.

Azkenik, planteamendu alternatiboen baitan oinarrituriko postura ari da indarra hartzen, hots, negoziazioa eta pragmatismoa erabat arbuiatzeko arriskua aienatzen ari da. Jarrera hau dutenak dira Estatuako agintarien eskaintzari erantzuteko dialogo eta negoziazioak gertatuen ondorio direla gogorarazten diotenak, batzuk gainera, ordezkariak errekonozitua duten hainbat plataformakoak. Ez zuen botere zentralak horrelakorik eskainiko, ez zen mugituko ere, aurrez ez baziren eman SESF batzuren aldetik erabaki subiranoak. (Gorbachov bera, bere agintaldiaren hasieran, publikoki pozten zen arazo nazionalak sortutako problemak jadanik soluzionatuak zeudelako, politika federal koherente eta aurrerazalea eramateari esker soluzionatuak, "perestroika" eta "glasnost" direlakoekin sintonian). Hartu diren erabakiek, bada, nahitaez baldintzatu behar dituzte dialogo eta negoziazioa; ez, ordea, alderantziz, SESBeko gobernuak nahi izan duen arren, eraso inguratua aurkitu denean bere erabakiak ezartzen saiatuz.



Erabaki horien edukinak ez dira SESFen eta beste ente autonomoen lurraldeen xedeak kritikatzera mugatzen, zuzenduak izan daitezen edo, xedeak kasu askotan sorreran bertan eritzi arbitrarioz ezarriak edota, urteetan zehar, botere zentralaren interesen arabera aldatuak izanik. Halaber ez dira mugatzen galdutako giza bizitzaren eta bidegabeko sakrifizioen memoria errebindikatzen —dagokien errekonozimendua eta beharrezko kalteordaina sorrerazteko—, sakrifizioak hain zuzen ere herrien eta etnien arteko adiskidantza izenean milioika pertsonari eskatu bait zitzaizkion SESBeko historian zehar... Erabakiek SESBeren funtsa bera afektatzen dute, SESBeri gogor gomendatzen diote errealtatean ez dena ez dezala itxuratzen jarrai. Bestela esanda, ustez "Batasunaren motorra, herri osoaren Alderdi bakarra" dena ere frakasatzen ari den bezalaxe, soviatar eredu federalak porrot egin duela eta konstatazio hau oinarritzat harturik ekin behar zaiola negoziazioari.

Postura honen defendatzaile ausartenek diote oraingo egitekoa ez dela SESBeko Konstituzioaren erreforma negoziatzen hastea, honela herri eta etnici garapenerako ahalbideak posible egiteko; egin behar dena eredu eta parametro berriak aurkitzea dela harreman internazionalak —hitzen zentzu estuan "nazioen arteko harremanak"— SESBek eustea edo inolako baldintzat hartu gabe bideratu ahal izatea.

Uste izan zitekeen bezala, proposamen hauek apenas erantzunik izan duten SESBeko botere zentralaren aldetik. Badirudi amore emanez denbora irabaztea dela bere asmoa edota baita Konstituzioa aldatzea ere, ahal den neurrian gertaerei egokitzuz, Soviatar Batasunaren funtsezko egiturak beti ere lehenean mantentzeko baldintzapean. Bide batez, Michail Gorbachov-ek "europar etxe amankomuna" delako proiektua kaleratu du, bere edukina oraindik asko zehaztu gabe, baina gutxienez eszenategi geopolitikoan garrantzizko aldakuntzen itxaropena sortzeko balio izan duena, SESBeren barruko parte handi batean (Europaldeko partean behintzat) ustezko ondorioak ekar ditzakeena.

Hala ere, batasun efektibo berriak ari dira bitartean hezurmatzen Sovietar Batasunaren barruan, federazio konstituzionalarekin zerikusirik ez dutenak. Alde batetik, Errepublika Baltikoek, beren kontura, federazio "propioa" sortu dute; bestetik, SESBeko islamiar mundu-eskerga eta heterogenoa —bere demografia hazkorra da eta errusiarra baino askoz handiagoa— erlijio-kide guztien artean batasun-lokarriak burutzen ari da, obtserbatzaile batzuren eritziz SESBeren izatea bera arriskuan jar dezakeen batasuna... Ekintzak aurrera doaz eta SESBeren benetak panorama itxuraldatzen ari dira. Bitartean, Moskuko agintariek independente edo subirano aldarrikatu diren Errepublikiei beren erabakiak bertanbehera uztea eskatzen diete —edo inposatzen— negoziatu aurreko baldintzatzat.

Egoera honen aurrean, nolako etorkizun konstituzionala espero daiteke SESBen? Lan hau idazten ari naizenean, Batasunaren Itun berriaren proiektua ari da elaboratzen Michail Gorbachov-ek izendaturiko ekipoa. Bertan zutabe nagusi bezala, hurrengo kompetentziak mantenduko ditu Estatuak beretzat: defentsa, SESBeren mugen zaingoa, lurralde osoko hiritarren eskubideen babesa, politika informatikoa, merkantzia, jende eta ideien mugimenduaren kontrola, barneko segurtasuna eta sistema monetarioa. Gainerako kompetentziak SESF eta beste ente autonomoi transferituko litzaizkieke.

Batasuneko Itunaren proiektuak gora egiten badu, noraino onartuko dute helburutzat bestelako horizonteak dituzten Errepublika dibertsoek? Erantzunak bateratzea asko konplikatzen duen SESB errusiartzea, gaur modernotasunaren ikurtzat aurkeztua, aski aurreratua dagoela aldebat utzirik, arazo nazionalari buruz aipatu Itunean sovietar herriaren tesia nola geratu "irekia" eta nola "itxia", halakoak izango dira erantzunak. Baita ere kontutan hartu beharko da herri bakoitza, etnia bakoitza noraino den gauza bere burua definitzeko edo birdefinitzeko horren azkar aldatzen ari den eremu geopolitikoan, aldaketaren erritmoa ez dagokielarik beti, ezta gutxiago ere, "berreskuratze nazional" dibertsoei.

Afirmazio edo berreskuratze nazionalen aurreratuenak dau- den herri batzuk —baltikoez, adibidez— seguraski arbuia- tu egingo dute Batasuneko Itun berriaren proiektua. Beste batzuk, momentuz, Batasunean jarraitzea hobetsiko dute aspektu pun- tualak negoziatu ondoren, hala nola Errepublikaren mugak, Batasuntik irten eta inguruko Estatu "espansionisten" eragin- pean erori beldur. (Armenia izan liteke, Turkiaren ondoan, hauetako kasu bat). Gehiengoz islamiarrak diren Errepublikek egin dezaketena da benetako inkognita edota baita eslabiar Errepublika batzuren jarrera ere, pisu espezifikoko ekonomiko eta demografiko handikoena, Ukrainarena adibidez.

Nolanahi ere, Sovietar Batasunaren aurrerapen edo atzerape- nak, azken finean, Estatuako gaurko zuzendariak berehalako etorkizunerako aurkeztuko duten eredu federalaren arabekoak izango dira, eredia artikulatzeko ez balute behintzat justifikazio ideologikorik, eta Alderdi Bakarraren prepotentzia eta diktadura gisako inposizioak aintzakotzat hartu beharrik. Izango ote dira gai gaur arte funtsezko zutabe izan dena ahazturik, eredu fede- ral berria asmatzeko? Oraingoz nire egiten ditut Helène Carrère d'Encause-ren aipatu liburuak eskaintzen dituen ondorioak, hainbat aspektutan profetikoa izan den liburuarenak: Sovietar Estatuak ukaezinezko lorpen handiak eskuratu ditu aldakuntza sozialen alorrean Errusiar Inperio zaharrarekiko, baina arazo ugari ditu oraindik soluzionatzeko. "Baina nabarmena da arazo guzti hauen artean larriena, zehagaitzena, nazioek planteatzen dutena dela. Eta ordezkatu duen Inperioak bezalaxe, Sovietar Estatuak ere, gaur behintzat, ezgai dirudi 'impasse' nazionaletik irteteko" (279. or.).

*Euskaratzailea: Jon Urrujulegi*

*A. A.*

---

### **LA CONSTITUCION DE LA URSS: PROBLEMAS NO RESUELTOS, PERSPECTIVAS INCIERTAS**

### **LA CONSTITUTION DE L'URSS: PROBLEMES NON RESOLUS, PERSPECTIVES INCERTAINES**

*El Secretario General del CIEMEN estudia en primer lugar el tratamiento jurídico de conceptos como "pueblo soviético", "nación", "pueblo", "etnia", en la Constitución o Ley Fundamental de la Unión de las Repúblicas Socialistas Soviéticas de 1977, hoy vigente. A su entender, se mantiene el federalismo, pero vaciado de sus contenidos más importantes.*

*En la aplicación de dicha Constitución, el autor distingue dos etapas: una que va de 1977 a 1985 caracterizada por la voluntad política de reestructurar el centralismo del Estado y de adaptar a él el sistema federal. Y la segunda, que se inicia con la subida de M. Gorbachov en 1985 y se caracteriza por la "perestroika" y el "glasnost".*

*Pero una vez más, —dice el autor—, los hechos preceden a las leyes en la URSS. Y los hechos se salen del marco constitucional vigente, como los hechos consumados de las Repúblicas Bálticas o las reivindicaciones de Armenia, Georgia, etc. Estos hechos desmienten la supuesta realidad del "pueblo soviético" y la inquebrantable consistencia de la "federación" y producen un vacío constitucional que, ahora, se pretende llenar con el nuevo Tratado de la Unión.*

*Concluye el autor afirmando que los progresos o retrocesos de la Unión Soviética dependen, en definitiva, del modelo federal que para el futuro inmediato los dirigentes actuales del Estado vayan a presentar y articular, sin recurrir a justificaciones ideológicas, a la prepotencia del Partido Único y a imposiciones de tipo dictatorial.*

Le Secrétaire Général du CIEMEN étudie tout d'abord le traitement juridique des concepts de: "peuple soviétique", "nation", "peuple", "ethnie" dans la Constitution ou Loi Fondamentale de l'Union des Républiques Socialistes Soviétiques de 1977, encore en vigueur de nos jours. Selon lui, le fédéralisme se maintient mais vide de son contenu le plus important.

Dans l'application de la dite Constitution, l'auteur distingue deux étapes; l'une, qui va de 1977 à 1985 qui se caractérise par la volonté politique de restructurer le centralisme de l'Etat et d'y adapter le système fédéral; et l'autre qui

débute avec la venue de M. Gorbatchov en 1985 et qui se caractérise par la "pérestroïka" et le "glasnost".

Mais encore une fois, dit l'auteur, les faits précèdent les lois en URSS. Ils débordent du cadre constitutionnel en vigueur, comme les événements passés des Républiques Baltes ou les revendications de l'Arménie, la Géorgie, etc... Ces faits démentent la soi-disante réalité du "peuple soviétique" et l'inébranlable consistance de la fédération et ils produisent un vide constitutionnel qui prétend être comblé, maintenant, avec le Nouveau Traité de l'Union.

L'auteur termine en affirmant que les progrès ou les reculs de l'Union Soviétique dépendent, en définitif, du modèle fédéral que les dirigeants actuels de l'Etat vont présenter et articuler dans un futur proche, sans recourir aux justifications idéologiques, à la prépotence du Parti Unique et à des impositions de type dictatorial.

**Jugoslaviako egoeraren eta garapenerako baldintzen  
perspektiba posibleen aurkezpen laburra**

## **Jugoslavia 1990**

**Mitja Zagar**

### **1. Sarrera gisako ohar batzuk**

1.1. Azken urteotan Jugoslaviako egungo egoeraz testu espezializatuak idazten dituztenek, kontutan eduki behar lukete behin idatzi ondoren beren testuek gaurkotasuna galtzen dutela. Zeren Jugoslavian gertakizunak (eta 1988 ondorengoak batez ere) hain dira intentsuak eta aldaketak hain bizkorrak eta funtsezkoak ezen egun berri bakoitzak berarekin daramatza ezaugarri berriak, errealitate Jugoslaviarra ebaluatzeko abiapuntuen aldaketa garrantzitsuak galdatzen dituzten ezaugarriak hain zuzen.

Muga horiek oso kontutan dauzkat testu hau idazten dudanean. Bertan, Jugoslavian (batez ere 1990ean) gertaturikoen ezaugarri garrantzitsu (nire eritzirako) batzuei buruz irakurleen arreta erakarri nahi nuke, gertaera horiek irakurleko oso bariatuari (nazioartekoari) aurkeztuz, intelektual kritiko jugoslaviar (eta hereziki esloveniar) baten ikuspegitik hain zuzen. Lan honetan nire eritzi eta erizpideak nolabait objektibo bihurtzen saiatuko naiz, baina irakurleek ez lukete ahaztu behar egilea aipatu gertakari horiek espermentatzen ari den gizakia dela, eta gertakari horiekiko era sentimental batez erreakzionatzen duela; bes-

talde egoera jugoslaviarra —eta esloveniarra bereziki— egunez egun esperimentatzen joatea, horren aurrean hurbil-hurbiletik erreakzionatuz, adierazgarri eta interesgarri gerta dakieke irakurleei, kontaturiko gertaeren alderdi berri batzuk jakiteko aukera eduki bait dezakete (zenbait kasutan idazkeraren beraren substatuan bereiz daitezkeenak).

1.2. Testua bi zatitan banatua dago (edukinari begira). Lehen zatian federazio jugoslaviarraren (indarreango) ordena konstituzionala erakusten da eta gaur egungo Jugoslaviako errealtatearen funtsezko ezaugarri zenbait. Bigarren zatian saiaturiko naiz Jugoslaviako eta bere zati berezietako etorkizuneko garapenerako "eszenario" posibleetako batzuk azaltzen, hala nola hori gauzatzeko posibilitatearen ebaluazioa (subjektiboa batipat) ematen. Errealitate Jugoslaviarrari buruzko ohar eta erreflexio propio batzuk ere ematen ditut. Nire eritzian interesgarriak izan daitezke irakurleentzat, (ebaluazioak bezala) subjektiboki baldintzatuak direlako eta aldi berean ni bizi naizen inguruaren espresio eta adierazpen ere badirelako. (Testu honen egilea Jugoslaviako beste edozein eskualdetakoa halitz, bere erreflexioak neurri handi batean desberdinak izango lirateke seguruenik, bere jatorriko inguruko egoerak baldintzaturik).

## **2. Jugoslavia: antolamendu normatiboa eta errealtatea**

Sarritan aipatu ohi da Jugoslavia Estatu multinazional europarraren adibide tipikoa bezala<sup>1</sup>. Zenbait alderditan, Jugoslavia (areago) da komunitate sozial bariatua eta heterogeno, eleaniztun eta multikultural baten adibide espezifikoa. Jugoslaviako egungo egoera ulertzeko garrantzi handia dute batez ere gizarte jugoslaviarraren ezaugarri espezifikoak, federalismoa Jugoslavian transformazio gogorreko fase batean bait dago (nola normatiboa zein erreala). Kontutan hartu behar da bestalde zona honek garapen historiko espezifikoa eduki duela, eta horren ondorio dela hainbat zirkulu kultural, zibilizazio eta tradizioren gurutzadura, nazio

ugari eta beste talde etniko batzuren existentziarekin batera. Ondoren xehetasun gehiagorekin azaltzen diren gertakizunak kontutan edukiz, errealitate jugoslaviarraren behatzailerik ausazkoenak ere uler dezake (zertxobait errazago) zergatik diren komunitate jugoslaviarra osatzen duten zati indibidualen arteko desberdintasunak eta gatazkak antzekotasunak eta elkar-lotura eta lankidetzarako gogoak baino (sarritan) larriagoak eta gogoragoak.

### **2.1. Egitura etnikoa eta garapen historikoaren funtsezko ezaugarri batzuk.**

Jugoslavia da Europan heterogenotasun etnikorik handiena duen herrialdea. 255.804 Km<sup>2</sup>-ko azalerarekin eta 22 milioi biztanlerekin, sei nazio nagusiez gain, herrialde hau hogeitamar bat gutxiengo nazionalen aberria ere bada (horiei Jugoslavian "nazionalitate" deritze). Gehiago zehatzuz, populazio jugoslaviarraren egitura etnikoa (nazionala) ondorengoa da: serbiarrak - % 36,3; kroaziarrak - % 19,75; musulmanak<sup>2</sup> - % 8,82; esloveniarrak - % 7,82; mazedoniarrak - % 5,97 eta montenegotarrak - % 2,58. Gutxiengo nazional berezien portzentaia populazio jugoslaviarraren egituran ondorengoa da: albaniarrek - % 7,72; hungariarrak - % 1,9; ijitoak - % 0,75; turkiarrak - % 0,36; eslovakiarrak - % 0,36; errumaniarrak - % 0,25; bulgariarrak - % 0,14; walakiarrak - % 0,1; errusiarrak - % 0,1; txekiarrak - % 0,09; italiarrak - % 0,07; ukraniarrak - % 0,06 eta gainerantzeko gutxiengo nazionalak % 0,17<sup>3</sup>. Bere populazioan duen egitura etnikoagatik, Jugoslaviak beste Europako herrialdeekiko, baita multinazionalenak direnekin ere, duen desberdintasun nagusia zera da, naziorik ugariena ere ez duela populazio jugoslaviarraren gehiengoa suposatzen<sup>4</sup>. Egoera honek, ordea, ez du batere laguntzen nazio eta talde etniko berezien eskubide-berdintasuna arautu eta ziurtatu nahiak dakartzan arazoak baretzen, aitzitik okerragotu egiten bait ditu sarritan. Neurri batean, egoera honek argitzen du Jugoslaviako nazio eta talde etniko guztietan nabarmentzen den arriskutan egotearen sentsazioa, esplotatuak eta zapalduak egoteaz gainera.



Jugoslaviako errealitatea hobeki ulertu asmoz aipatu beharra dago baita ere, normalean, nazio eta talde etnikoek ez dituztela lurralde homogeno itxiak populatzen, lurralde zabalagoak baizik, zeinetan talde etniko desberdinak elkarren nahasian bizi bait diren. Hauxe da federazio jugoslaviarra osatzen duten unitate federalen edo errepubliken aldakortasun etnikoaren arrazoietako bat, nahiz eta nazio batzuek beraiei dagozkien errepublike-tan populazioaren gehiengoa osatzen duten<sup>5</sup>.

Gizarte jugoslaviarraren barietatea gainerantzeko ezaugarri eta berezitasunekin azaldu eta definitzen da, era berean<sup>6</sup>. Horrela, Jugoslavia multzo bezala hartuta, hizkuntza ofizialak mazedoniarra, serbiera eta kroaziera<sup>7</sup> eta esloveniera dira. Horietaz gainera, parlamentu federaleko dokumentu eta erabakiak albanieraz eta hungarieraz ere argitaratzen dira. Zenbait eskualdetan gutxienez hizkuntz ofizialen status-a eman zaie gutxiengo nazionalen hizkuntzei ere. Jugoslaviako lurraldean bi alfabeto erabiltzen dira<sup>8</sup>. Hiru dira erlijio nagusiak —katoliko erromatarra, ortodoxoa eta islamismoa— eta badira beste erlijio asko ere (judaismoa, protestantismoa, etab.). Hiru erlijio nagusi horien presentzia dela eta, Jugoslavian hiru zibilizazio-zirkulu nabarmen daitezke, alderdi askotatik bertako egoeran eragina dutenak; bestalde, egungo Jugoslavia osatzen duten eskualde bereziek joandako mendeetan edukitako garapen historikoak baldintzatuak izan direla ere ez da ahaztu behar.<sup>9</sup>

## **2.2. Antolamendu normatiboa: federazioa eta hura osatzen duten partaideen sorkuntza, Estatu subirano gisa**

(Oraindik indarrean? dagoen) Konstituzioaren arabera, Jugoslavia Estatu federal bezala definitzen da, nazioen eta beren errepubliken eta probintzia autonomo sozialisten komunitate gisa, beren borondatez elkartuak<sup>10</sup>. Estatuaren izendapenak berak, —“Jugoslaviako Errepublika Sozialista Federala”— adierazi behar luke Estatu-komunitate honen izaera bikoitz berezia: batetik Estatu federala da, Estatuaren indarraren mekanismo (oraindik)

hertsatzailea, eta bestetik komunitate autogestionarioa<sup>11</sup>. Orainsu gertatuak direla eta, azken bi urteotako gertakizunak bereziki (1988 eta 1989), komunitate jugoslaviarraren izaera bikoitz hori ukatua eta erabat aldatua izan da: Estatu federala indartzeko bidea jarraitu ordez, estatuaren garapena aniztasun politikorantz eta "demokrazia liberal" baten eboluziorantz abiatu da (modu gutxi-asko azkar eta intentsoan Jugoslaviako eskualde desberdinetan).

Konstituzioak dioenez federazio jugoslaviarrean sei errepublika (sozialista) daude— Bosnia eta Herzegovina, Montenegro, Kroazia, Mazedonia, Eslovenia eta Serbia —eta bi probintzia sozialista autonomo Serbiako errepublika sozialistaren barruan<sup>12</sup>. Konstituzioaren arabera, errepublika (sozialistak) herriaren subiranotasunean eta langileriaren boterean oinarrituriko Estatu bezala definitzen dira. Konstituzioaren ariora, errepublikak komunitate estatalak eta autogestionarioak dira aldi berean<sup>13</sup>. Errepublikekin ez bezala, bi probintzia autonomoak, Serbiako errepublika sozialistaren parte egin arren konstituzioan federazio jugoslaviarraren elementu osatzaile bezala tratatuak daude, komunitate autogestionario gisa soilik daude definituta, eta horietan gauzatzen dituzte nazioek, gutxiengo nazionalak, langileak eta bestelako hiritarrek beren eskubide subiranoak<sup>14</sup>. Bi probintzia autonomoak eskualde horien garapen historiko espezifiko baten ondorioz izan dira sortuak, beren egitura etniko berezia dela medio, batipat. Eskualde horietan gutxiengo nazionalak zati garrantzitsua edo, Kosovoko probintzian, baita populazioaren gehiengoa ere suposatzen bait dute<sup>15</sup>.

Sistema konstituzionala kontutan edukiz, federazio jugoslaviarrak baditu hainbat berezitasun, zenbaitek era negatiboan kalifikatzen dituztenak, Jugoslaviako federazioaren konfederalizazioaren barruan<sup>16</sup>. Konstituzio federalak kodifikatzen duen antolamendu sozialak, federazioaz gain Estatu subirano gisa, errepublika (sozialistak) ere definitzen bait ditu, konstituzioan bertan nazio jugoslaviarren "Estatu nazional subirano" bezala izendatzen direnak<sup>17</sup>. Parlamentu federaleko unitate federalen

(errepubliken eta probintzien) kamaren erabakiak —bestalde esanda Jugoslaviako nazio-biltzarraren erabakiak— adostasunez onartuak izan behar dute. Ezein erabaki ezingo da onartua izan nazio-biltzarrean, unitate federal guztien, hau da beren biltzarre (parlamentu) erregional guztien adostasunik gabe. Kasu honetan, konstituzioak espreski adierazten du bi probintzia autonomotako biltzarreen adostasuna ezinbesteko beharrezana dela<sup>18</sup>.

Federazio jugoslaviarraren ezaugarri espezifiko bezala aipatu behar da era berean, federazioa osatzen duten elementuak beren egoera eta jokabide formalagatik elkar bereizten direla: zehazkiago esateko arestian aipatutako errepublika eta probintzia autonomo sozialistak izaez eta egoeraz bereizten dira. Aniztasun etnikoa duten gizarteetan eta gizarte egiazki "asimetrikotan" nabarmendu ohi diren desberdintasun-elementuen manifestazio formala besterik ez da hori.

Egiaz eta zinez, eredu hori ez da inoiz iritsi inestauratzera. Horregatik, azpimarratu beharra dago betidanik federazio-jugoslaviarraren funtzionamendua arautegi formaletik bereizi edo aldentzen zela eta azken hamarkadan ezadostasun hori ikaragarri azkar handituz joan dela urtetik urtera (eta azken bizpahiru urtetan baita hilabetetik hilabetera ere). Horren ondorioz, azkenaldi honetan askoz gehiago praktikan arautegi konstituzionalean baino presente daude zenbait elementu esplizitoki konfederatiiboak, zeintzuek gero eta gehiago hartzen duten parte elkarte eta partidu politikoen, direla sortuberrien edota lehendik existitzen zirenen, programa eta eguneroko politika (pragmatikoan)<sup>19</sup>. Hein batean, garapenaren norabide hau isladatzen da baita ere Esloveniako eta Kroaziako errepubliketako konstituzioetan (egintza legal goretan) 1989an eta 1990ean hurrenez hurren hartutako emendakinetan: bi errepublika horiek ezabatu egin dute beren izenetatik "sozialista" kalifikazioa. Bestalde, konstituzio eslovakiarraren emendakinek Esloveniako autonomiaren eta independentziaren sendotzea ere suposatzen dute, ordena konstituzionalaren eta eskubideen babeskuntzarako zenbait mekanismo martxan jartzen bait dituzte errepublika honetan, eskubide

horietan parte hartzen duten organo federalek hartuko litzuzkeen erabaki desegokien kasuetarako.

Federazio jugoslaviarraren egiturarentzat eta esentziarentzat bererentzat ere ondorio grabeagoak dauzka, ordea, Serbiako errepublika sozialistak Kosovoko probintzia autonomoko biltzarrea eta kontscilu beterazlea desegiteko hartutako erabakiak. Erabaki hori indar irrendentisten ekintzei eta Kosovoko zirkulu albanista zenbaiten (?) sezesiorako nahikundeei erantzun gisa izan zen hartua. Politika ofizial eta komunikabide serbiarrek baieztatzen dutenez, Kosovoko albaniarrek autonomia eta independentzia zabalago baten alde, eta baita Kosovon errepublika albaniar bat sortzearen alde ere, daramaten borrokak mehatxu bat suposatzen du Estatu serbiarraren lurralde-osotasunerako eta bere kompetentzientzako. Aipatu erabakiak, bestalde, Jugoslaviako asanblea nazionalaren funtzionamendu normala eta erabakiak hartzeko ohizko prozedura eragozten ditu, erabaki partikularrak hartu ahal izateko aurretiaz errepublika eta probintzia autonomo guztien akordioa ezinbesteko baldintza den kasu guztietan.

Egungo egoera Jugoslavian ondorengo konstatazioak argituko luke oso ongi: unitate federal partikularren independentzia eta subiranotasunerako joera guztien gaintetik eta elementu konfederatiboak indartu arren, federazio jugoslaviarraren norabide konstituzionalaren eta egituraren higadura, eta erabakiak hartzeko prozesua blokeatu arren, Jugoslaviak existitzen eta funtzionatzen jarraitzen du, eta guztion harridurarako eraginkortasunez kasu batzuetan.

### 2.3. Erretratu politikoa

Jugoslavia, beraz, errealtate historiko eta politikoa da. Ideia Jugoslaviarra —nazio (hego)eslaviarren askapen eta batasun ideia bezala, beren zapaltzaile historikoen menerapen-uztarritik askatu eta garapen aske eta amankomuna ziurtatu asmoz— gaur egungo Estatu jugoslaviarraren historia baino lehenagokoa da.

Baina, 1918an sortu zenetik, bere izaera ideologikoa, bere erakarmena eta mobilizazio-ahalmena agortu egin dira ia jugoslaviarren kontzientzian. Ia beti gertatu ohi den bezala, errealitateak ideia erromantiko baten distira itzalezatu egin du.

Baina, Estatu jugoslaviarraren existentziak ez du dimentsio historikoa bakarrik, baita bere dimentsio politikoa ere, eta gaurkotasan handikoa gainera egungo egoeran. Jugoslavia (bestela esanda federazio jugoslaviarra) estatu subiranoa izateaz gainera, nazioarteko komunitatearen partaide ere bai bait da, harreman internazionaltarako besteen legectara lotua (nazioarteko politikaren alderdiak guzti horiek), bere barne-politikako arazoak ere interesatzen zaizkigu.

Jugoslaviako egoera bi ukiguneren inguruan laburbil daiteke. Batetik, Jugoslavia osatzen duten zati desberdinen harremanen ukigunea da: zati batzuetan aniztasun demokratikoa finkatuagoa dago eta beste batzuetan oraindik martxan jarri berria da, horietan ere prozesu hori oso azkar gertatzen ari baldin bada ere. Eta bestetik, federazio jugoslaviarreko eskualde eta unitate gehiago nahiz gutxiago garatuen arteko ukigunea ere bada<sup>20</sup>.

Jadanik 1990eko hasieran oso erraz traza zitekeen demokratizazio eta aniztasun politikoaren prozesua hasia zegoen Jugoslaviako zatien eta oraindik ere ideologia (ia) sozialista eta dogmatikoa bakarra eta nagusi zeneko zatien arteko banalerroa, kontutan hartuz azken horietan "autogestioaren eta langileen askatasunaren" ideiak partiduaren monopolioa ezkututzen zuela. Jugoslavian monopolio hau, sozialista deitzen diren Ekialdeko Europako gainerantzeko herrialdeetan bezain ankerra eta suntsizaila izan zen, eta zertxobait demokratizatuagoa; baina, dena den, ez zen gai izan aniztasun politiko zabalagoaren burutzea eta oparotasuna lortzeko.

1990eko bigarren erdian, edonon jaio dira Jugoslavian partidu berriak eta bestelako indar politikoak. Estatuaren zenbait zonan egoera politikoa azkar eta errotik aldatu da. Lehengo ohizko grisaren ordez norabide-mota guztietako subjektu politi-

koen aukera zabal bat aurki daiteke gaur egun. Etorkizuneko garapenean eduki ditzaketen ondorioei erreparatu gabe, itxuraz sistema politiko zaharrak bere-bereak zituen egonkortasun itzela, erabakitzeko ahalmena eta nolabaiteko mugaketa eta bideratzea iraganeko kontuak dira.

Ekialdeko Europako herrialde sozialista-ohi gehientsuenetan bezalaxe, Jugoslavian ere demokrazia azkarki finkatuz doa, baina azkartasun hori oso aldakorra da federazioaren zati batetik bestera (eta hau neurri batean ezaugarri jugoslaviar ohizkoa da). Horregatik, jendearen gogoan oraindik ere zutik dirau Jugoslaviaren zatiketak, alegia Ipar-Mendebalde demokratizatuagoa batetik (Eslovenia eta Kroazia) eta Hego-Ekialde ez hain demokratizatu bestetik, zeinaren gotorleku zentrala (eta gero eta gehiago bakarra bere eginkizunagatik) Serbia bait da. Baina, lehenengo eremu "demokratizatuagoan" sartuz doaz gero eta ziurtasun handiagoz Mazedonia eta Bosnia eta Herzegovina, eta baita Montenegro ere —(lehen) hauteskunde aske eta pluralistak edukitzeko prestakuntzak egiten hasi diren errepublikak hain zuzen. Hauteskunde horiek, hainbat partiduren partaidetzarekin 1990. urtearen amaieran edota datorren urtearen hasieran izango dira. Egunetik egunera partidu gehiago sortuz doaz Serbian, non pluralizazio cdo aniztasun-prozesuak (heine batean demokratizazioaren etorrera esan gura dutenak) inon baino gaizki ikusiagoak eta erreprimituagoak gertatzen bait dira.

Demokrazi prozesu desberdin horrek eta asimetriak, noski, gero eta gehiago markatzen dute gizarte plural modernoaren garapenaren bidea, bai Jugoslavi mailan eta baita maila globalean ere. Garapenean gertatutako desberdintasunek ere eragin handia dute edozein norabidetako politika indibidual (partzialek) Jugoslaviaren aurrean ezar ditzaketen harremanetan.

Hauteskunde libreak ospatu dituzten errepublika jugoslaviarretan ere (hainbat partiduk parte hartuz) eta baita "libreki hautaturiko gobernu berria" dutenetan ere (Esloveniaz eta Kroaziaz ari gara bereziki), oraindik ez dira monopolioak eta autoritatezko abusuak desagertzen hasi. Zaila da hutsuneak gauetik goize-

ra zuzentzea, baina badirudi agintari berriak ez direla horretan saiatu ere egiten, bere probetxurako moldatzen bait dituzte, eta fenomeno hori oso usua da gaur egun mundu osoan. Kontutan hartu beharra dago pluralismoak berak bakarrik ezin duela inolako arazorik konpondu, ezta jendeak etorkizunari dion beldurrik arindu ere. Aitzitik, demokrazia plurala ezarri berria den eskualdeetan, segurtasunik ezak eta ustegabekoaren aurreko zalantzak beldurra areagotzea ekarri dute.

Demokrazia ez da askatasunari eta demokratizazioari buruzko hitz hutsez egiten. Demokraziak prozesu demokratiko zehazki definitu eta bermatuak eskatzen ditu, aurrakusi daitezkeen prozesuak, gizakiaren duintasuna, nortasuna eta segurtasuna babesten dituzten prozesuak, pertsonaren eskubide eta askatasunen gauzatzea posibilitatuz, gutxiengo etnikoak eta gizartearen gainerantzeko gutxiengoak babestuz... Demokraziak segurtasun eta gizarte-ongizateko nolabaiteko maila bat galdatzen du... hala nola baita kultura demokratiko ongi osatua jendearengan, jokatibide-eredu demokratiko ongi garatuak, eta tradizio demokrati-koak; faktore guzti horiek osatuz eta haziz jarraituko dute urtetan eta urtetan demokrazia apenas jaioberria den inguru guztietan.

Jugoslaviako zenbait eskualderen garapen-mailari dagozkion desberdintasunak ongi asko argitzen dute ondorengo datua: unitate federal gutxien garatuaren (Kosovoren) eta unitaterik aurreratuaren (Esloveniaren) artean Europako Ekonomi Elkarteko estatu gutxien eta gehien garatuaren artekoa baino bi aldiz desberdintasun handiagoa dagoela.

Alde batetik Jugoslaviako zona batzuen demokratizazio-mailaren diferentziak beherantz doazela egia bada ere, bestetik garapen-mailari dagozkion desberdintasunak haziz doaz oraindik, gerraosteko periodo osoa bitartean eskualde azpigaratuen garapena bizkortu behar zuketean hainbat neurri (eraginkortasunik gabekoak bistan dagoenez) hartu izan arren. Egia esateko, neurri hauek direla eta, (gutxienez ere zenbait) eskualde azpigaratu-

ren garapena, aipatu eskualdeak beren baliabide propioekin soilik utzi izan balira baino zertxobait azkarrago gertatu zen. Jugoslaviako zonalde azpigaratueterako laguntza-proiektu guztietan gertatu bezala, neurri horien emaitzak nahi edo espero zena baino apalagoak izan dira.

Krisi sozialeko eta egoera mehatxatuzko baldintzetan batipat, garapen-mailan ikusten diren desberdintasunak ezinegon, inbidia eta gorrotoa sorterazteko garrantzizko faktorea izan daitezke (eskualde azpigaratuetatik zonalderik oparoenetara begira batez ere). Mota honetako fenomenoak ere ematen dira Jugoslavian, nahiz eta krisi sozialak eta krisi ekonomikoak bereziki eskualderik garatueneetako itxurazko ongizatea ere gero eta gehiago erasaten duen (dena den eskualde garatu horiek Mendebaldeko Europako herrialde industrializatuekin konparatuz oraindik oso maila apalean dabilta).

Jugoslavian aipatu ezaugarri horiek paradoxa berezia bezala ageri zaizkigu. Guztiak kexatu izan dira eta kexatzen dira gaur egun ere komunitate federal jugoslaviarrean duten egoeraz eta zereginaz: eritzi publikoak eta deklarazio politikoek unitate federal guztietan gauza bera adierazten dute, esplotatuak egotearen sententzia, eta federazio jugoslaviarra dela, hain zuzen, esplotazio hori posible egin eta gauzatu duena, produktu eta (diru-)sarrera nazionalen transferentzia dela medio.

Jugoslaviako eskualde azpigaratuek diotenez, Estatuko zatirik oparoenen esplotaziopean omen daude, azken horiek lehen-gai merkeak, energia eta jangaiak erosten dizkietelako (baina sarritan nazioarteko merkatuan baino prezio garestiagoan eta kalitate eskasagoak), ondoren beren merkatu propioetan beren produktu garestiak saltzeko (normalean merkatu internazionalen baino prezio altuagoan eta ez beti kalitate hobegokoak gainera). Beste esplotazio-mota bat bezala ere aipatzen dute eskualde azpigaratuetatik datorren eskulana, ondoren errepublikarik aurreratuetan erabili ohi dena. Bestalde, Estatuko zonarik garatuenek diotenez, beraiek ere esplotatuak sentitzen omen di-



ra errepublika behartsuenen aldetik, horiei kalitate eskasagoko lehengaiak eta nazioarteko merkatuan baino garestiagoak erosten bait dizkiete. Ordaindu behar dituzten zerga ikaragarriez kezkatzen dira batipat, bai federazioak funtziona dezan ordaintzen dituztenak (eta beren eritziz ez dute harengandik zerbitzu egokirik jasotzen) eta baita unitate federal azpigaratuen garapenerako ordaintzen dituztenak ere, eta horiek, beren aurrerakuntza bizkortzeko hartutako neurri desberdin guztiak arren, gero eta atzeratzenago doaz.

Arestian aipaturiko erreparorik gehienak ez dira serioски hartuak izateko modukoak, baina egia da, horretaz konturatu ere egin gabe, bai errepublikarik oparoenek eta baita atzeratuenek ere probetxu ugari ateratzen dietela federazio jugoslaviarren duten elkarbizitzari. Herrialde honetako elkarbizitza hori ekonomia nazionalaren egiturak, beren kateamendu eta gurutzadurak baldintzatua dator, beste arrazoi batzuren artean, eta baita Jugoslavian zati indibidualak bakoitzak bere aldetik irauteko proiektu nazionalik ez edukitzeak edota beren garapen ekonomiko eskasak baldintzatua ere.

#### **2.4. Arazo giltzarriak**

Gehienen ustez, Jugoslaviak gaur egun duen arazo giltzarria bere egoera ekonomikoa da. Ekonomia jugoslaviarraren egoera hain da kritikoa ezen zenbait adituk diotenez, datozen urteotan desenplegua asko gehitzea itxaron bait daiteke<sup>21</sup>. Krisi ekonomikoaren adierazpen bikaina da unitate federaletako askok (Mazedonia, Montenegro, Kosovo) beren buruak auri zorian airtortzea, eta gobernu federalaren eta gaincrantzeko unitate federalen laguntzarik gabe ezin dutela aurrera jarraitu onartzea. Krisi ekonomikoa larrituz doa Jugoslaviako beste zonalde batzuetan ere, horietan porrotak sailean iragartzen direlarik, baina aldi berean ez dago inolako arrastorik porrot egindako enpresa horien orde z beste enpresa berri eta erangikorrakoak ager daitezkeela pentsatzeko.

Egoera ekonomiko larria populazio jugoslaviarraren bizimodu-  
duan ere isladatzen da, bizimodu hori gero eta okerragotuz doa-  
larik. Jendearen itxaropenak nahiko ezezkorrak dira eta sarritan  
sortzen dira bizi-iraupeneko arazoak miserian. Lehen pertsona  
guztici enplegu segurua eta nolabaiteko segurtasun sozialeko  
maila bat garrantizatzen zien sistema desintegratuz doa, krisi-  
-egoera horretara egokitzen jakin izan ez duelako. Gizarte-se-  
gurtasuneko ordezkoko sistema ez da oraindik martxan jarri, eta  
itxuraz nola antolatu behar zitekeen ere ez dago batere argi  
oraindik. Egunetik egunera larriagoa den egoera sozialak eragin-  
da, gaur egungo geldotasun soziala gizarte-asaldura grabeak sor-  
teraztera irits daiteke, batez ere jendea, aniztasun politikoaren  
sarrera bere hartan herrialdeak dituen arazo ekonomikoak kon-  
pontzeko ez dela nahikoa konturatzen dencan.

Garapen horrek demokratizazio-prozesuak berak ere arris-  
kuan jar zitzakeen, posible bait da soluzio errepresiboak, zapal-  
tzaileak eta autoritarioak hartzeko aitzaki gisa erabilia izatea.

Egoera honetan garrantzitsua da oso komunitate jugoslavia-  
rren egitura multinazionala, garapen historiko unibertsalak on-  
gi asko frogatzen bait du arazo eta krisi sozialak sarritan isla-  
datzen direla nazioen eta bestelako talde etnikoen arteko ha-  
rremanetan. Krisialdian eta oro har segurtasunik gabeko perio-  
doetan, "gure giroan edota hementxe, gugandik gertu, bizi diren  
desberdinenganako" intolerantzia areagotu egiten da. Eta horixe  
da zenbait sistema politikok aprobeztatzen duen aitzakia, "des-  
berdin" horiek arazo guztien errudun bailiran salatuz, era hone-  
tan jendearen arreta galdu eraziz eta herriaren ezinegona "kul-  
pante etsaiaren" gainera zuzenduz.

Komunitate jugoslaviarraren eta hura osatzen duten zati guz-  
tien barietate etnikoa hain handia izanik, oso giro aproposa da-  
go nazionalismo intolerantea eta baita gogorzalca ere sor dadin.  
Analista gehientsuenen eritzian, arazo gakoa Jugoslaviako bi na-  
ziorik handienen —alegia serbiarren eta kroaziarren— arteko er-  
lazioen erregulazioan datza, lurralde jugoslaviarraren zati handi  
bat (Voyvodina, Bosnia eta Herzegovina, Kroazia) bi nazionalita-

te horietako jendeaz populatua bait dago. Serbiarren eta kroaziarren arteko harremanak erregulatze bidan zereginik funtsezkoena bi errepublika ametak (Serbia eta Kroaziako) gobernuak betetzen dute, hala nola baita indar eta partidu politiko serbiar eta kroaziar guztiek ere. Horrela izanik, aipatu errepubliketako junta politikoek kontutan hartu beharra daukate ez bakarrik Serbiaren eta Kroaziaren arteko harremanen izaera, baita beste-lako nazio jugoslaviarren interes espezifikokoak eta eskubideen berdintasuna ere.

Nazioarteko harremanen arazoari dagokionez eta gizakiaren eskubideak gauzatzeari begira, Kosovon bizi den egoera uni-bertsalki ezaguna dela iruditzen zait. Arazo konponezina derit-zot (etorkizun hurbilean bederen), eta horregatik ezinbestekoa da soluzio mailakatuaren estrategia onartzea eta ahal den neu-rrian arazoarekin bizitzen ikastea.

Kosovoko eskualdea, historikoki, Erdi Aroko Estatu serbiarra- ren gunetako bat izan da, eta horrexegatik serbiarrek bere lu- rralde historikotzat daukate. Baina azken mendeotan, (eta azken 50 urteotan bereziki) Kosovoko egitura etnikoa halako moldez aldatu da ezen gaur egun albaniarrak bait dira populazioaren gehiengoa (2/3etik gora). Arrazoi bat baino gehiago eman dai- tezke garapen hori esplikatzeko: eskualdearen egoera azpigarar- tua zela medio, emigrazio-prozesuak oso gogorrak izan dira beti- danik —are usuagoak serbiarren eta montenegrotarren artean, (komunitate partikularren markuaren barruan emigrazio-propor- tzioarekiko) errazago moldatzen bait ziren serbieraz mintzatzen ziren eskualderik garatuenetako bizimodura. Populazio albania- rra, oraindik orain ere nagusiki familia handitan egituratua bizi dena, jaiotza-tasa eta biztanle-gehikuntza oso altuaz ezaugarri- tzen da, probintzia honetan baldintza sozial eta sanitarioak na- barmenki hobetu direlako batetik, eta honek haurren hilkortasun txikiagoa ekarri du, eta bestetik baita sentimendu nazionalenga- tik eta mehatxatua egoteko sentsazioagatik ere (ez ahaztu sarri- tan egon dela horrelakorik iraganean). Kosovoko historian beti- danik existitu da nazionalismo gogor eta biolentoa, neurri handi batean inguruko egoera politikoak baldintzatua. Baina, 80ko ha-

markadan batipat, nazionalismo horrexek ia ezinezkoa egin zuen ikuspegi etnikotik hain nahasia den lurralde honetan bizi diren nazio desberdinak elkarrekin bizi eta lan egitea. Kosovoko egitura etnikoa asko aldatzeaz gainera, laurogeiko hamarkadan presio nazionalistak eragin handia eduki du (partzialki besterik ez bada ere) populazio ez-albaniarraren emigrazioan.

Egoera oraindik ere okerragotzen da, kontutan hartzen badugu, azken urte hauetan politika ofizial serbiarra (eta honen adibiderik bikainena Serbiako errepublika sozialistaren egungo lehendakaria den Slobodan Milosevic da, Kosovoko arazoari aurre egiteko martxan jarri duen politikan oposizioaren zatirik handienaren apoioa duenez) arazoa bere era propioan eta bere kasa konpontzen saiatu izan dela, errepresioa erabiliz, Serbian arazo honek alderdi eta ikuspegi emozional eta irrazional sako- nak bait ditu, honek soluzioa are zailagotzen duelarik. Politika serbiar horren adibideak dira azken hilabeteotan probintziako parlamentu eta kontseilu exekutiboaren (gobernuaren) desegitea, agintari lokalek, eta nazionalitate albaniarra zuten ordezkariak bereziki, nazionalista albaniarren joera sezesionista eta nazionalistak sustatuz eta bultzatuz Estatuaren existentzia eta batasuna zuzenean mchatzatzen zituzteneko aitzakiz.

Pertsonalki, Kosovoko arazoa ezin dela etorkizun hurbilean konpondu iruditzen zait. Soluzio mailakatu baten posibilitatea, ordea, gertuago dakusat: autonomia probintziala gauzatuz eta mekanismo demokratikoak —zergatik ez hainbat partidutako demokrazia?— martxan jarritz, Kosovori federazio jugoslaviarraren barnean leku berezia eskaintzearekin batera (administrazio federal berezi baten sorreraz ere hitz egiten da, behin-behinekoa eta apartekoa izango litzatekeena, nahiz eta iraupen laburrekoa izan).

### **3. Etorkizuneko garapenaren aukera posibleak**

Jugoslaviako egoeraren garapena ezin da ziurtasunez aurrikusi. Dena den, zenbait aukera posibletan laburbildu daitezkeen hausnarketa batzuk adieraziko ditut ondorengo lerroetan.

### 3.1. Statu quo-a

Epe nahiko laburrera behintzat, posible da —jasaten ari den problema eta arazo guztiak arren— komunitate jugoslaviarrak existitzen jarraitzea, bere egitura formalean aldaketa handirik sartu gabe. Puntu honi dagokionez, beharrezkoa da azpimarratzea harremanak aldatuz joango direla Jugoslavian, eta beraz baita federazio jugoslaviarraren izacra bera ere. Horregatik, "statu quo"-az era baldintzatu batean soilik hitz egin daiteke.

1990eko gertakizunci erreparatuz batez ere, delako soluzio hori ez dela onargarria dirudi, eta gaurko trantsizioaldia amaituz doan neurrian bertan behera utzia izango dela. Jadanik onartu diren konstituzio esloveniarraren emendakinak eta Kosovoko asanblada eta kontseilu exekutibo probintzialak desegiteko Serbiako parlamentuak hartutako erabakia ere bide horretatik doaz gainera.

### 3.2. Konfederalizazioa

Jugoslavian, konfederalizazio-prozesuak gero eta presentea-go daude eta gero eta hautemangarriagoak dira baita errealitate politikoan ere. Eslovenia eta Kroazia hasiak dira jadanik beren estatu konfederatuaren kontzeptua gauzatzen, komunitate jugoslaviarrean emendakin konstituzionalak onartuz. Bestalde, konfederazioaren ideia Jugoslaviako beste zonatan ere sustraiak botatzen ari da.

Aukera konfederatibo baten ildotik, komunitate jugoslaviarra oinarri berrien gainean eraiki behar litzateke, alderdi kontratatzaileen artean egindako kontratu baten gainean, eskubide berdinekin (federazio jugoslaviarra osatzen duten elementu guztien edo agian soilik batzuren artean), elkartearen helburua, edukina eta baldintzak aldez aurretik akordatuz. Kontratu honek definitu behar litzuzke, era berean, komunitate jugoslaviar berriaren izacra eta konpetentziak, hala nola bere botere-organoak eta hauen jurisdikzioa.

Antolamendu konfederalak arautu behar luke baita zenbait eskualderen egitura asimetrikoa ere, eta honek intentsitate desberdineko harremanak ahalbideratuko lituzke subjektu partikularren artean, eskualde bakoitzaren interes espezifikoaren arabera.

Jugoslaviak konfederazio bezala duen kontzeptuarekin batera han-hemenka abisuak entzun daitezke, komunitate jugoslaviarraren gisa horretako antolamenduak unitate federalen artean ezarritako mugen birplantatzea ekar zezakeela esanez, edota beren errepublika ametatik kanpora bizi diren nazioen eskubideen berdintasunaren arazoa. Bai arazo batek zein bestek nazio jugoslaviarren arteko harremanen okerragotzea ekar zezaketen eta, zenbait eritziren arabera, baita odol-isurketa ere.

### 3.3. Jugoslaviaren desintegrazioa

Etorkizunean eman daitezkeen aukeretatik beste bat zera da, Jugoslaviaren desintegrazioa. Independentziarako eta subiranotasunerako joerak eta aspirazioak presente daude duela denboraldi bat zenbait errepublikatan. Egungo DEMOS koalizioko partiduek ere erakutsi zituzten aspirazio horiek sarritan Esloveniako hauteskunde-kanpaina bitartean, geroxago konfederazioaren inguruko ideiek ordeztuak izan baziren ere. Interesgarria da kontutan hartzea antzeko aspirazioak existitzen direla baita Serbian ere, eta hemen horrelako soluzio batek egungo federazioaren aukera alternatiboa suposatu zezakeen, edota zertxobait unitarioagoa. Kasu honetan ere, serbiarrek egungo barne-mugak aldatzearen beharraz intsistitzen dute behin eta berriz, gaurko Jugoslaviaren lurraldean Estatu subirano berriak ezartzen direnean muga etnikoak gehiago errespetatu beharko lirakeela argudiatuz.

Printzipioz, Jugoslaviaren desintegrazioa bi erataria izango litzateke posible: subjektu guztien akordioz, kontratu baten bidez, konponketa baketsu baten bitartez, armazko inolako interbentziorik gabe; edota gerra zibilaren bidez, honek Jugoslaviaren desintegrazioa ekarriko bait luke. Une honetan, susmo

eta itxura guztien arabera, bigarren aukerak probableagoa dirudi (nazio jugoslaviarren arteko tentsioei begiraturaz batez ere).

Aukera honi dagokionez, esan beharra dago ezen zenbait kritzi oso zabalduk besterik dioten arren, inork ezin duela aurrikusi Jugoslaviaren desintegrazioak zer ekarriko duen, ezta zein liratekeen prozesu horretan sortutako Estatu berriek independenteki garatzeko posibilitateak. Era honetako deliberamenduak oso egokiak dira Jugoslaviako egoera ekonomikoa kontutan hartzen bada, Jugoslaviaren ondorengo Estatuak beren nazioarteko zor guztiak ordaindu beharko lituzketela ahaztu gabe.

#### **3.4. Federazioaren sendotzea**

Soluzio hau oso urrun eta gertagaitz iruditu arren, seriotan hartzeko modukoa da. Posibilitate honen barruan badira zenbait aukera, alderdi askotan espezifikoa direnak.

Batetik, posible da komunitate jugoslaviar konfederatua, birmoldatua izan ondoren, federazio espezifikoa (agian asimetrikoa) bilakatzea, eskualde, nazio eta talde etniko guztien berezitasun eta interes espezifikoa kontutan hartuko lituzkeen federazioa hain zuzen, gizakiaren eskubide eta askatasunak neurri batean gauzatuko liratekeela garantizatuz aldi berean lurralde osoan. Federazio-mota hau etorkizuneko federazio europarrarekin parekatu daiteke zenbait kontzeptutan: interes amankomunen gauzatzea garantizatu behar luke komunitatearen mailan batetik, eta zenbait komunitate partikularren garapen espezifikoa ahalbidetu eta posible egin bestetik.

Federazioaren sendotzea asaldura eta desordena publikoak sortua ere izan daiteke. Kasu horretan, posible litzateke federazioak bere indar armatuekin eta mekanismo errepresiboenkin parte hartzea "asaldura sozialak eta iraultza" desegin eta uxatu asmoz, eta denbora baterako besterik ez bada ere ordena publikoa ziurtatuz. Soluzio horrek, denboraldi batean mantenduz gero, federazio bateratu baten sorrera ekarriko luke eta horrek ez

luke luzaroan iraungo, bere izaera errepresioan soilik bait dago oinarritua.

Bestalde, posible da gobernu federalak bere politika-moldea nagusitu eta gailentzea, krisi soziala soluzionatzeko eta ekonomia transformatzeko faktore bezala, eta administrazio-organoen ondoan errepublika berezietan gutxienez egoerarik kritikoenak saneatzen saiatzea. Honek, zenbait errepublikak (normalean unitate federalak direnez) federazioaren iraupenean eta barne-erlazioen erregulazio egokian eduki zezaketen interesa piztea ekarriko luke, seguruenik, federazioari merkatu-ekonomiaren eskakizunetara egokitutako (ohizko) konpetentzia ekonomikoak eskainiz. Prozesu horrek gaur egungo federazioaren transformazio garrantzitsua ekarriko luke berarekin, orain dituen konpetentzia eta eginkizunetako asko galduko bait lituzke, beste berri batzuk eskuratuko lituzkeen bitartean. Era honetako federazio baten sorkuntzak unitate federal partikularren arteko erlazioen birdefinizio bat eskatuko luke seguruenik, baliozko arau demokratikoei begira batipat.

#### 4. Gogoeta pertsonalak

Nire eritzian, komunitate jugoslaviarrak —edozein delarik ere jasango duen aldaketa edo transformazioa— existitzen jarraituko du etorkizunean ere, zenbait arrazoiengatik.

Idea jugoslaviarra agertu eta gaineratzea posible egin zuten faktorerik funtsezkoenek presente diraute oraindik mundu garai-kidean, nahiz eta baldintza sozial diferenteetan izan. Gaur egun nazio jugoslaviarrak komunitate jugoslaviarraren barruan “mehatxatuak” sentitzen diren arren, mehatxu-sentsazio horixe da hain zuzen, seguru bizitzeko aspirazioarekin batera, Jugoslaviak zutik irauteko faktoreetan garrantzitsuenetako bat. Komunitate jugoslaviarrean bizi diren nazioak, nazio (oso) txikiak dira, mundu osoko neurrian begiratu gero, betidanik beren independentzia eta existentzia mehatxatuak eduki dituzten nazioak. Errepu-



blika batzuren sezesioa gertatuz gero, berehala herragertuko lirateke hurbilago nahiz urrunagoko nazio handiagoez mehatxatuak izatearen kontzientzia. Jugoslaviaren desegiteak lurralde-nahia edo gogoa ekarriko luke seguru asko auzoko herrialdeetan. Horregatik, nazio jugoslaviarrentzat Jugoslaviaren existentziak segurtasun-faktore garrantzitsua suposatzen du oraindik ere.

Segurtasunari dagokionez, nazioarteko adituak, eta komunitate europarra batez ere, biziki interesatuak daude Jugoslaviak iraun dezan eta eskualde horretan nolabaiteko egonkortasuna eta bakea manten daitezten, eta zentzu horretan mintzatu dira behin eta berriz Estatu horietako eta nazioarteko erakunde eta elkarteetako ordezkariak. Arazo guztien gainetik, eta komunitate europarraren ikuspegitik, Jugoslaviaren existentzia askoz ere soluzio egokiagoa da Estatu subirano txikien multzo bat baino, horien ezegonkortasun politikoak eta beraien arteko harremanen tirandurak gatazka armatuak sortzera iritsi bait daitezke eta.

Ekonomia jugoslaviarra, bere garapen espezifikogatik, kanpotik dirudien baino askoz ere gurutzelaratuagoa dago. Zenbait ekonomi adituren ustetan, aditu atzerritarrak gehienbat, ekonomia jugoslaviar uniforme eta harmoniazko batek hainbat abantaila garrantzitsu eskain dezake unitate federalen ekonomia partikularren aldean, azken horiek ezin bait dute haren mailara iritsi ezta haren abantailarik lortu ere. Nazioarteko erizpide ekonomikoen arabera ekonomia jugoslaviarra apala denez, zer esanik ere ez dago unitate federaletako ekonomiak erabat hutsalak eta ezdeusak direla.

Era berean kontutan hartu behar da noraino dagoen errotua jugoslaviarren kontzientzian —beren nazionalitateari erreparatu gabe— Jugoslaviaren existentzia bera eta bere historia, alderdi askotan zatitzailea gertatu arren, eskualdeak eta nazionalitate desberdinetako pertsonak biltzeko duen eraginagatik. Nazioarteko mailan jendeak Jugoslaviako estatuaren existentziaz duen kontzientzia ezin ahaztu daiteke inola ere, neurri handi batean

kontzientzia horrek markatzen bait du komunitate internazionalak Jugoslaviaren aurrean duen jarrera.

Ezin iragarri dezaket zein izango den Jugoslaviaren patua etorkizunean, baina saiatu naiz lan honetan egungo Jugoslaviaren egoeraren ezaugarri batzuk aurkezten, oso modu orokorrean izan bada ere. Garapen demokratiko baten posibilitateak eta aukerak irekitzen baldin badira batetik, bestetik nazioarteko gatazka armatuaren posibilitateak ere hortxe daude.

Nire gogoia zera litzateke, gaur egun jasaten ari den krisia gainditu dezala komunitate jugoslaviarrak. Une honetan konfederalizazioa iruditzen zait aukerarik posibleena eta bideragarriena, zenbait esferatan gutxienik —unitate federal eta komunitate nazional federal partikularren interesei jarraituz— lankidetzeta eta gurutzadurarik hoberena sor ditzakeena, eskubide berdinetan oinarrituz. Nire eritzirako, trantsizioaldi nahasi honetan komunitate jugoslaviarrak behar luke eduki bere lurralde osoan gizakia- ren eskubide eta askatasun minimoak bermatzeko papera eta baita unitate federalen eta talde etnikoen arteko gatazkak era baketsu batez konpontzeko bidea ere, hala nola ekonomia jugoslaviarra formazio-prozesu bete-betean dagoen merkatu-ekonomia batean transformatzeko zeregina. Era horretako komunitate jugoslaviarra gizarte jugoslaviar osoaren demokratizazio-faktore bezala nagusitu zitekeela pentsatzen dut. Hori lortzeko, komunitate jugoslaviarrak aldatu beharra dauka, gaur egungo Estatu federal jugoslaviarra ez bait da ez garaikidea eta ezta modernoa ere, eta duen aparatua administratiboa ez bait da bate-re eraginkorra... Nire eritziz komunitate jugoslaviarraren transformazio-prozesu lasai bat askoz ere soluzio hobea da edozein aldaketa irreflexibo eta erradikal baino, azken horien ondorioa sarritan gerra zibil bat izan ohi dela kontutan hartuz batez ere.

*Euskaratzailea: Jabier Agirre*

*M. Z.*

- <sup>1</sup> Lehen inpresio batean besterik pentsatu edo uste arren, jadanik ez dagoela egiazko Estatu mononazional edo naziobakarrik egiazta daiteke. Gero eta hedatuago dago baita Estatu naziobakarren ohizko adibide gisa aipatuak izan ohi ziren Estatuak ere —adib. Frantziak edo Espainiak— ikuspegi etniko (nazional), linguistiko eta kulturaletik gizarte anizkunak suposatzen dituztela pentsatzen duen joera. Ez da aipatu Estatu horietan gutxiengo nazionalen existentzia konstatatzea soilik, baita "nazio europar berrien" existentzia eta sorkuntzaren berri edukitzea ere. (Eta puntu honetan Estatu (mono)nazionalen definizioaz ari naiz, Karl Deutsch-en obran aipatzen den bezala: K.W. DEUTSCH: *Political Community at the international level, Problems of definitions and measurement / Komunitate politikoa maila internazionalcan, Definizio eta neurri-arazoak / 1970/*, Archon Books, USA, 1970, 22-24 orrialdeak).
- <sup>2</sup> Arrazoi historiko espezifikoak direla medio, termino hau Jugoslavian ez bakarrik fede islamiarreko sinestunak izendatzeko erabiltzen da, baita nazio osoarentzat ere talde etniko bezala. Eta hori Bosnia eta Herzegovinako populaziozati bati dagokio bereziki, jatorriz nagusiki eslaviarra izanik, nagusitasun otomaniarraren garaian eta lurralde honen islamizazio bitartean, islamismora konbertitu bait zen, kultura eta zibilizazio islamiarraren osagaiak bereganatuz, baina bestalde bere izacra etniko espezifiko mantenduz eta bere kultura espezifiko landuz. (Xehetasun gehiago nahi izanez gero ikus adib: Nijaz DURAKOVIC: *Istorijski korijeni identitete Muslimana / Mulsumanen identitatearen sustrai historikoak / Tratatuak eta Dokumentuak*, 17.zkia, Ljubljana Arazo Nazionalen Institutua, Ljubljana, 1984eko abendua, 39-45 orrialdeak, ingelesezko laburpena 45. orrialdean).
- <sup>3</sup> Datuak 1981. urteko Jugoslaviako zentsutik lortu dira, baina bienbitartean zenbait aldakuntza gertatu dira (eta bereziki gutxiengo albaniarraren gehikuntza, eta proportzioan nazio nagusien eta beste talde etnikoen beherakada). Datu ofizial berriagoak eskuratu ahal izango dira 1991ko zentsuaren ondotik. Zenbait estimazioen arabera, gaur egun Jugoslaviako populazioa 23 milioi biztanle baino zertxobait altuagoa da. Ikus adib. *The New Encyclopaedia Britannica, Macropaedia*, 29. liburukia, (1986), 1.043-1.078 orrialdeak; Stanko ZULJIC: *Narodnostna struktura Jugoslavije; tokovi promjena* (Jugoslaviako egitura nazionala eta aldaketa-korronteak), (108.zkia), Zagrebeko Ekonomi Institutua, Zagreb 1989, 10-16 orrialdeak.
- <sup>4</sup> Era berean, federazio txekoslovakiarrean ere txekiarrek populazioaren ia bi heren suposatzen dituzte, alemanieraz mintzatzen diren suitzarrek Suitza multinazionalcan bezalaxe, etab. (Ikus adib. S. ZULJIC: *ibid.*, 4. orrialdea). Aipaturiko datuek erakusten dutenez, serbiarrek, naziorik handiena izan arren, populazio jugoslaviarrean heren bat besterik ez dute suposatzen.
- <sup>5</sup> Kasu honetan, Bosnia eta Herzegovina, eta Eslovenia salbuespena dira. Bosnia eta Herzegovinan populazioaren gehiengo hiru nazio jugoslaviarrek osatzen dute —zatiirik handiena mulsumanak dira (% 39,52 1981eko zentsuaren arabera; azken 40 urteotan populazio totalcan duten pisua gorantz doa); ondoren serbiarrak (% 32,02) eta kroaziarrak (% 18,38)— azken 40 urteotan bi nazio haucen pisua populazio totalcan beherantz doa. Horren ondorioz, Bosnia eta Herzegovina da nazioetako baten biztanleek (beren egitura etnikoari begira) populazioaren gehiengo (absolutua) osatzen ez duten errepublika jugoslaviar bakarra. Bestalde, bere egitura etnikoari dagokionez, errepu-

blika jugoslaviar bakarra. Bestalde, bere egitura etnikoari dagokionez, errepublikarik homogenoena Eslovenia da, bertan populazioaren % 90,52 (1981eko zentsuaren arabera) esloveniarrak direlarik. Azken 40 urteotan esloveniarraren proportzioak errepublika honen populazioaren egituraren zertxobait behera egin du (% 97koa zen 1948an).

Montenegron (1981eko zentsuari jarraiki) montenegrotarrak % 68,54 dira, kroaziarrak % 75,08 Kroazian, mazedoniarrek Mazedonian % 67,01 eta serbiarrak % 66,38 Serbiako errepublikako lurralde osoan (bi probintzia autonomoak ere barne hartuz), beti ere errepublika bakoitzeko populazio totalari begira.

Nazio maioritarioen proportzioak errepublika jugoslaviar partikularretan duen beheranzko joera, bigarren mundu-gerraren ondoko Jugoslaviaren garapeneraren ezaugarrietako bat da, nolabait esateko. Joera hori nabarmenagoa da Montenegron, gerraosteko periodoko zentsuei kasu egiten badiegu montenegrotarren partaidetzak behera egin bait du % 20an edo gehiago Montenegroko egitura nazionalan (1948ko % 90,67tik 1981eko % 68,54eraino). Gauza bera esan daiteke Jugoslaviar oro har hitz egiten badugu: 1948an naziorik handienek % 87,3 suposatzen bazuten, 1981ean Jugoslaviako populazio totalaren % 81,34 bakarrik suposatzen zuten. Ez da, beraz, hainbeste gutxiengo nazional batzuren gorakada (gutxiengo albaniarra soilik izan bait da gehitu dena), baizik eta (1981 urtean) populazioaren % 5,44ek jugoslaviar bezala aitortu zutela beren burua (eta horiek ezin kontsidera daitezke beste aparteko nazio batekoak). (Ikus adib. S. ZULJIC: *ibid.*, 25. orrialdea; *The New Encyclopaedia Britannica*, 29. liburukia, 1.045- 1.048 orrialdeak).

- <sup>6</sup> Diferentzia guztiak kontutan hartuz, autore askok dio zenbait kasutan oso zaila dela Jugoslaviar "gizarte globala" bezala mintzatzea, errealitatean "gizarte globalen" sail bat direlako, aparte daudenak, bereziak estatu multinazional baten barruan. Pertsonalki zera uste dut, zaila izan daiteke, Jugoslavian "gizarte global jugoslaviar" batez hitz egin daitekeela, bere koherentzia eta berezitasun propioak dituen gizarteaz hain zuzen.
- <sup>7</sup> Serbiera eta kroaziera alderdi askotan antz handia duten hizkuntzak dira (identikoak hobeki esanda), beraien artean zenbait desberdintasun badauden arren. Antzekotasun handi hau da, antzina, serbokroaziera hizkuntza independente eta bakar bat bezala kontsideratua izateko arrazoia (gaur egun ere zenbaitek horrelaxe ikusten dute).
- <sup>8</sup> Alfabeto zirilikoa mazedonierak eta serbierak erabiltzen dute (baita Montenegron ere eta, karaktere erromatarrekin bezalatsu, Bosnian eta Herzegovinan ere, serbiarrek populatzen dituzten gainerantzeko eskualdeetan bezalaxe) eta gutxiengo nazionalen hizkuntzek, bulgariarrek. Beste hizkuntza guztiak karaktere erromatarrek erabiltzen dituzte.
- <sup>9</sup> XIX. mendean, egungo lurralde jugoslaviararen hego-ekialdea inperio otomaniarren mugaldeko zona azpigaratua zen bitartean, ipar-mendebaldea zen monarkia austro-hungariararen eskualde gutxienez garatua. Egoera zertxobait diferentea izan zen Montenegron, independentea bait zen ordurako (eta nahiko maila altuan), eta baita Serbien ere, joan zen mendean lortu bait zuen honet bere autonomia lehenengoz eta ondoren Estatu independente bezala deklaratu bait zen, Serbiako erreinua izenarekin. Dena den, bi Estatu horiek (Montenegro eta Serbia, alegia), Europako Estatu azpigaratuen artean zeuden eta zerbaitek eman bazien ospea, beren armadak izan ziren. (Ikus adib.: *The New Encyclopaedia Britannica*, 29. liburukia, 1.058-1.077 orrialdeak).

- <sup>10</sup> JESFko Konstituzioaren 1. Artikulua (1974 urtea)
- <sup>11</sup> "Estatuaren iraungitzeaz" eta herezik "bere izaera autoritarioaren iraungitzeaz" teoria marxistak definitzen duen hipotesiaren ulerkuntza hein batean sinplifikatu batetik sortzen da izaera bikoitz hori. Autogestioa bizitzaren maila eta alderdi guztietan sartu denetik, eta autogestioak "politika" ere ordeztuko lukeela suposatuz, Estatuaren indar eta neurri hertsatzaileak "iraungi" behar lirakeke, Jugoslavia "komunitate autogestionario" huts batean transformatuz. Suposizio eta hipotesi horiek inoiz ez dira gauzatu praktikan.
- <sup>12</sup> JESFko Konstituzioaren 2. Artikulua (1974)
- <sup>13</sup> JESFko Konstituzioaren 3. Artikulua (1974)
- <sup>14</sup> JESFko Konstituzioaren 4. Artikulua (1974)
- <sup>15</sup> 1981eko zentsuaren arabera, Voyvodinako populazioaren egitura ondorengoa da: % 54,42 serbiarrak, % 5,37 kroaziarrak eta % 18,97 hungariarrak, populazioaren gainerantzekoa gutxiengo nazionalak eta jugoslaviar bezala deklaratuak diren taldeak diren bitartean, Kosovon populazioaren % 77,42 albaniarrek dira, % 13,22 serbiarrak eta % 1,71 montenegotarrak. (ikus: S. ZUIJIC: *ibid.*, 25. orrialdea).
- <sup>16</sup> Ustez, federazioaren egiazko izaera mehatxatzen zuten "elementu konfederatiboak", 1974eko konstituzio jugoslaviarrak (indarrean oraindik?) kritikatzeko zituena, presenteko zuden batez ere zenbait autore serbiarren lanetan. (Ikus adibidez: Miodrag JOVICIC: *Putevi i stranputice jugoslovenske ustavnosti / Jugoslaviako konstituzionalismoaren orientabideak eta desbideratzeak / Naucna knjiga*, Beograd 1988, 88-134, 158-166 orrialdeak; Pavle NICOLIC: *Federacija i federalne jedinice, Uticaj federalnih jedinica na vrsenje federalne vlasti /Ustavno pravni aspekti/* (Federazioa eta unitate federalak, Unitate federalen eragina botere federalaren egikaritzan / Alderdi konstituzionalak eta juridikoak/), JESFren Buletin ofizialaren Argitaletxea, Beograd 1989, 181-205 orrialdeak).
- <sup>17</sup> Zenbait alderditan, konfederazio suitzarraren antolamendu orokorrari dagokion subiranotasun-definizioaren araberako konfederazio-kontzeptuaren antza handia duen antolamendu batez ari gara. Zehazkiago esanez, Konfederazio Suitzarraren Konstituzioaren 3. Artikuluak dioen bezala kantonamendu suitzar subiranoko botere federalaren jurisdikziopean ez dauden eskubide (kompetentzia) guztiak gauzatzen dituzte. Jugoslavian bezalaxe, konstituzio suitzarrak bere unitate federalen subiranotasuna eta unitate federalen (kantonamenduak Suitzan, edota errepublika (sozialistak) Jugoslavian) kompetentzia ezagutzen ditu.
- <sup>18</sup> Errepublika eta probintzia autonomoen biltzarreak hartutako erabakiak dira horiek, errepubliketako eta probintzia autonomoetako asanbladen akordioz lortuak, JESFko Konstituzioaren 286. artikulua 2. parrafoan esaten den bezala. Erabakiak hartzeko prozedura, ordea, 298-404 artikuluek mugatua dator. 301-303 artikuluek erabakitzen dute erabaki urgentek hartzeko prozedura, "behin-behineko neurri" gisa, gehienaz ere urtebeteko baliotasun-eparekin.
- <sup>19</sup> Interesgarria da adieraztea 1990eko udan "galdakizun konfederalistek" ia erabat ordeztu dituztela urte berean udaberriko hauteskunde-kanpainen sortu ziren errepublika jugoslaviar zenbaiten erabateko sezesio eta subiranotasun-

kontzeptuak (batez ere orduan oposizioan zeuden partiduen programetan agertu ziren, gaur egun gobernuko partaide direnak Eslovenian eta Kroazian). Azken finean, zera frogatu da, Jugoslaviako zenbait eskualderen erabateko independentzia ezin lor daitekeela deklarazio sinboliko hutsarekin (Esloveniako kasua, e.l.), baldintza eta eskakizunen sail bat betetzea eskatzen bait du. Gaur egungo egoeran bereziki, gero eta nabarmenagoa da inork ez dituela ezagutzen errepublika bat federazio jugoslaviarretik banandu eta alde egiteak ekar ditzakeen ondorio posibleak eta sezesio horrek eduki dezakeen eragina (banandu nahi den unitatearen ikuspegitik nahiz moztu edo etendako komunitatearen ikuspegitik jasandakoak).

- <sup>21</sup> Arazo hau egokiago defini daiteke eskualde gehiago eta gutxiago "azpigaratu" arteko harremanen arazoa bezala, Jugoslaviak konparatu nahi duen mendebaldeko herrialde industrializatuen erizpideen ikuspegitik batez ere (deklarazio ofizial eta aldarrikapen politiko mordo batetatik deduzitu daitekeen bezalaxe).
- <sup>22</sup> Zenbait analisten kritzik, datozen urteotan langabetuen kopurua Jugoslavian 5 milioitako zifrara iritsiko litzateke, egungo ekonomia jugoslaviarraren zati handi baten porrot eta lurjotzearen ondorioz. Jugoslaviako ekonomiaren ezaugarriak egituraren desgokitasuna eta merkatuaren baldintzetariko maldagabezia dira. Enplegu-maila altuago bat posible litzateke ekonomia jugoslaviarraren berrantolaketa dela medio, eta hori zenbait urtetako abialdiaren ondotik soilik litzateke posible. Baina, horrelako garapen bat ezin iragarri daiteke ziurtasunez. Bestela esateko, 5 milioi langabetu horiek egungo populazio aktiboaren % 50etik gora suposatzen dute.

## JUGOSLAVIA 1990

### YUGOSLAVIE 1990

*El artículo de Mitja Zagar, asistente catedrático y colaborador científico del Instituto de cuestiones nacionales, es una presentación de la situación jugoslava y de las posibles perspectivas para el desarrollo de las condiciones en Jugoslavia.*

*El texto está dividido en dos partes. La primera presenta el (vigente) orden constitucional de la federación jugoslava y algunas características esenciales de la realidad jugoslava contemporánea. En concreto, la estructura étnica y su desarrollo histórico; y, en la organización normativa, la federación y la formación de sus miembros como Estados soberanos.*

*En la segunda parte, presenta posibles escenarios del desarrollo ulterior de Jugoslavia: la confederalización, la desintegración de Jugoslavia y, como tercer escenario, el fortalecimiento de la federación.*

*En las reflexiones finales, el autor recalca la incertidumbre del futuro de Yugoslavia y opta por las vías de la democratización y la confederalización en un proceso tranquilo de transformación global de la comunidad jugoslava.*

---

L'article de Mitja Zagar, professeur assistant et collaborateur scientifique de l'Institut des problèmes Nationaux, est une présentation de la situation Yougoslave et des perspectives réalisables pour le développement des conditions en Yougoslavie.

Le texte est divisé en deux parties. La première présente l'ordonnance constitutionnelle (en vigueur) de la fédération yougoslave et quelques unes des caractéristiques essentielles de la réalité yougoslave contemporaine; c'est à-dire, la structure ethnique et son développement historique; et dans l'organisation normative, la fédération, et la formation de ses membres en tant qu'Etats souverains.

Dans la seconde partie, il nous présente d'éventuels scénarios sur le développement ultérieur de la Yougoslavie; la confédéralisation, la désintégration de la Yougoslavie et comme troisième scénario le renforcement de la fédération.

Dans ses dernières réflexions, l'auteur met l'accent sur le futur incertain de la Yougoslavie et choisit les voies de la démocratisation et de la possible confédéralisation pour un processus de transformation globale de la communauté yougoslave.

GAIK

---

...HAINBAT ABURU

---

LIBURUAK

---





## “Txistu”, euskarazko lehen komiki-aldizkaria

Javier Díaz Noci

Oraindik asko falta bada ere, azken urteotan gerra aurreko kazetaritzaz eta, oro har, garai hartako aldizkarietarako buruzko ikerketak gero eta gehiago dira. Batez ere 20. eta 30. hamarkadetan -1937an Gerra Zibilak gaurdaino euskaraz idatzitako egunkari bakarra izan zen *Eguna* argitaratzeari utzi erazi zion arte euskarazko aldizkarietarako dagokienez, gure ustez kazetaritzarako buruzko ikerketak zenbait datu interesgarri emango digu. 1919-1921etik, *Zeruko Argia*, *Kaiku* eta abar sortu ziren urteetatik hain zuzen ere 1937rarte euskara hutsez idatzitako aldizkarietarako kopurua gehituz joan zen. Horietako bat Donostiako *Argia* astekaria izan zen.

1921ean Bitor Garitaonaindia apaizak, beste lagun batzuekin batera, argitaratzeari ekin zion, euskara hutsez. Arrakasta handia lortu zuen, 1936ean, Gerra hastean, desagertu zen arte. *Argia*-ren orrialdeetatik hainbat eta hainbat ekintza hasi ziren, guztiak noski euskara eta euskal kulturari estuki lotuak. Horietako bat, guk aipatuko duguna hain zuzen, *Txistu* izeneko ko-

mikia izan zen. Bide batez, hurrengo lerroetan gorago aipatu bi hamarkadetako komikigintzaz ere zerbait esango dugu. Eta baita aldizkari, komunikabide eta, oro har, kultur alorreko ekoizpen asko, euskaltzale sutsu batzuri esker, nola sortu ziren ere.

## 1. Lehen saiakerak

Hasieran *Txistu* euskarazko lehen komikia izan zela esan dugun arren, horrekin, lehen komiki-aldizkaria izan zela esan nahi izan dugu, aurreko urteetan euskarazko beste aldizkari batzutan zenbait istorio agertu bait zen. Adibide batzuk Jose María Unsainek oraintsu argitaratu duen liburuskari eskaini dizkigu<sup>1</sup>. Bertan ikus daitekeenez, 1907ko abenduaren 7ko *Baserritarra*-n "On Kosmerentzat" izeneko istorio bat azaldu zen, dena euskaraz. Zuri-beltzeko marrazki batzuk ziren, azpiko testuekin, *didaskalia* moduan. Askotan gertatzen den bezala, egilea ezezaguna dugu.

Baina lehen istorio sorta Bilboko *Euzko-Deya*-n agertu zen. *Euzkeltzale-Bazkuna*-k 1916an sortua, lehen aroan (1916tik 1920ra), beste marrazkilari ezezagun batek Teles eta Niko umetxoen ibilaldiak kontatzen zituzten hamabi istorio argitaratu zituzten, 1918ko apirilaren 16tik urte hartako azaroaren 16ra. Komikiaren izena pertsonaia zen, *Teles* eta *Niko*. Lehena go, aldizkariaren orrialdeetan beste istorio batzuk ere agertu ziren, 1916, 1917 eta 1918an, baina ez originalak, Caran d'Ache eta atzerriko beste marrazkilari ezagun batzurenak bait ziren.

Normalean, bikotearen istorioak, lau bineta betetzen zituen, azpiko testu edo didaskalia banarekin. Hala ere, noizbehinka pertsonaien ahotik *balloon* edo *globoak* ere agertzen ziren, esate baterako 1918ko martxoaren leko eta irailaren leko istorioetan. Azpiko didaskalien euskarri txikia baino ez zen eta, oro har, ezin da esan marrazki eta *balloon*-ekin bakarrik istorioa uler zitekeenik, oraingo komikietan gertatzen den legez. Gehienetan, gainera, ez zen horrelakorik agertzen.

*Teles* eta *Niko* utzi baino lehen, beste datu aipagarri bat ere azalduko dugu. Aste batzuk agertu gabe pasa eta gero, 1918ko azaroan egile ezezagunak aste hartan bukatzen ez zen istorio bat marraztu zuen. *Teles* eta *Niko*, ordurarte betiko trastekerietan bakarrik ibiliak, itsasoaren hondora doaz beren ibilaldiak garatzera. Baina, adierazpenik gabe, 1918ko azaroaren 16an betiko desagertu ziren *Euzko Deya*-ren orrialdeetatik.

Gure artikulutxo honen protagonista den *Txistu* komiki-aldizkariar aritu baino lehenago, beste komiki-aldizkari batez hitzegingo dugu, aldizkari *non nato* batez hain zuzen ere. 1923ko *Argia*-n irakurtzen dugu, nola kaputxinoek "umeak euskaltzaletzeko" aldizkari bat argitaratu nahi zuten<sup>2</sup>. Maiatzean Euskaltzaindiari proposatu zioten erdarazko *T.B.O.* edo *Pepito* aldizkaritxoaren antzeko *ingitxo* bat kaleratzea<sup>3</sup>:

"Zenbat eta zenbat neska-mutiko ez ditugu beren eskuetan "T.B.O." ta "Pepito" ta beste onelako ingitxoakin ikusten?" - zioen artikuluaaren egileak, Gregorio Muxikak. "Ba oraindano erdal-ingitxoak ibilli dituzten bezela, aurrera umeentzako euskal ingitxo polit bat izango dutela jakiteak nor poztuko ez du? Euskerarentzat aurrerapen aundi-aundia ez ote da umeak, beren zaletasun bizienetako baten bitartez euskaltzaleatzea?"

"Auxe da, ba, Aita Kaputxinoak darabilkiten asmoa ta poz-pozik zorionduaz, erbesteko ingirik politena baño politagoa izatea opa diogu "Umeentzako euskal ingitxo"ri".

Dakigunez, "Umeentzako euskal-ingitxo" hori ez zen inoiz ere agertu, urte batzuk geroago (1927tik 1934era, Unsainek dioenez), Iruñeko kaputxinoek berek argitaratutako *Zeruko Argia* aldizkarian Oterminek marraztu zituen komiki batzuk agertu baziren ere.

## 2. *Txistu*-ren sorrera

Esan bezala, *Txistu* zen Euskal Herriko lehen komiki-aldizkaria, euskaraz nahiz erdaraz, oso bizitza laburra izan bazuen ere. Antza denez, bere garaian ere ez zuen arrakasta handirik

lortu, gaur ezin bait dugu alerik lortu, lehen zenbakia izango zenaren azalaren adibide bat ez bada. Adibide hori, *Txistu*-ren erreferentzia grafiko bakarra, *Argia* astekarian agertu zen, 1926ko apirilaren 18an.

Komiki bat sortzeko ideia piztu zenerako, *Argia* oso finkatuta zegoen Euskal Herriko komunikabideen munduan. 1921-eko apirilaren 24ean kaleratu zen lehen zenbakia, Bitor Gari-*taonaindia*, Erramun Intzagarai, Jesus Karrera, Gregorio Muxika, Ander Artzeluz, Antonio Lizarraga eta Anbrosio Zata-rainek bultzatuta. Nekazarietzako astekari honek, Gipuzkoako euskaraz idatzia, arrakasta handia lortu zuen, 7.000 ale argitaratu bait zituen askotan, eta Errepublikan, Estatutuaren aldeko kanpaina zela eta, 20.000 ale egin behar izan zituzten<sup>4</sup>.

Ahalik eta irakurle gozagarria lortu nahirik, *Argia*-koek ezin zituzten umeak ahaztu. Aldizkaria irakurtzen zutenetan, ziuraski bazegoen haur ugari. Gainera, logikoa da pentsatzea, umeak zirela euskaraz hobeto irakurtzen zutenetakoak, heldu askok ez bait zekien ondo irakurtzen euskaraz, bereziki *Argia*-ren irakurleen artean, gehienak nekazariak zirelako. Bazegoen, beraz, irakurle berri bat; umeentzako irakurgai batzuk sortu nahi izan zituzten *Argia*-ren arduradunek.

Lehen asmoak, aldiz, ez ziren komiki bat ateratzekoak: hasieran, *Txistu* ez zen komiki baten izena, pertsonaia batena baizik. 1926ko urtarrilaren 10etik hasten da argitaratzen *Txistu*-ren txokoa” izeneko ataltxoak, irregularki ateratzen zen zati txiki bat. Bertan, umei zenbait gauza proposatzen zitzaizkien:

“(…) Gaur, nere lanari asiera emateko”, zioen “*Txistu*”k umeen aurrean agertu zen lehen aldian, “beste izkuntzetan oso modan dagon asmaketa era bat azaldu nai dizutet. Atsegin izango zaitutela uste det (...). Euskeraz bataiatu dezagun, beintzat, asmaketa berri au (...). *Itz-nasketa* izen egoki xamarra ote dan iruditu zaigu (...). Asmaketa obekin landu ta saritxo bat edo beste etxeratu zenezake”<sup>5</sup>.

Esan gabe doa “*itz-nasketa*” hura gaur egungo gurutzegrama baino ez zela. Horrelako denborapasak bakarrik ez zituen asmatu gure *Txistu* misterioitsu hark; kirolak ere interesatzen omen zitzaizkion, bi txapelketa antolatu zituelako: “interretara-

ko eta pelotarako". Batez ere, pelota benetako euskal kirol barkartzat hartzen zuen, "ostikoketa [futbola] menderatu ta zapaldu dezan". Esan beharra dago *Argia*-koak ez zirela oso futboltzaleak, beraientzat kirol atzerritarra zelako, euskal gauzeekin zerikusirik ez zuena.

Komiki bat ateratzeari buruzko lehen aipamena martxoan agertu zen, erdi-ezkituko modu batez:

"Geldi egoteko erreminta txarra da gure ARGIA au. Oraintxe buruan darabilkina bazenekite...

Oraindik ez degu gauza ziur erabaki, ta egingo dan jakin arte ixilik egongo gera. Kostatu ordea (...).

Neska mutiltxoen alde izango da, batez ere. Guziok gera, ume, ordea, ta...

Ixo, ixo oraindik ez dakigu egingo dan eta.

Egiten bada, aren "txistuak" bazter guzietara eramango du poza (...)"<sup>76</sup>.

Hurrengo hilabeteetan *Txistu* kaleratzeko asmoa argi eta garbi adierazi zuten, piskanaka-piskanaka. *Txistu* izenordea erabiltzen zuen ezezagunak adierazten du, nola Madrila joan eta han bizi ziren euskaldun batzurekin harremanetan hasi zen. Geroago jakingo dugu nor zen *Txistu*-ren bultzatzaile nagusienetariko bat (*Txistu* atala idazten zuena, agian?), Anton Alaiza arabarra. Besteak nortzuk ziren ezin izan dugu asmatu, izkuttuan geratu dira. Hala eta guztiz ere, badakigu Madrilen Arkitektura ikasten ari ziren euskaldunak zirela<sup>77</sup>. Hasiara-hasieratik, lehenago kaputxinoek proposatu zuten bezala, umeak euskaltzaletzea zen. *Argia*-koek gustora hartzen dute zeregina, nahiz eta diru-kontuetan mesfidantza apur bat azaldu:

"Baña... baña... ¿Ta dirua? TXISTU guk nai bezelakoa jαιο ta azi dedin, bi milla arpidedun bear omen dira (...). ¿Guziok arpidedun, guziok TXISTU zale, guziok TXISTU 'lari ¿Bi milla? ¡Baita bost ere!"<sup>78</sup>.

Dirua zen halako ekintza kulturaletan sortzen zen arazo nagusia, urte batzuk geroago euskal egunkariarekin gertatuko zen bezala, *Argia*-rekin zerikusi handia zuen proiektu hura... Baina hori beste kupel bateko sagardoa da. *Txistu* komikia kaleratze-

ko hurrengo pausoa laguntzaileak bilatzea zen. Apirilean ere marrazkilari, euskaltzale aberats eta irakurleen laguntza eskatzen da. Apirilerako proiektua aurreratu samar zegoen, aipaturako lehen istorioen adibidea ezezik, komiki-aldizkariaren ezaugarrien berri ematen bait digute:

“AMABOSTEAN BEIN orri berezi batzuk argitaldu nai ditu [“Argia”k] TXISTU izenagaz.

TXISTU´k zortzi orrialde izango ditu, bakoitza, neurritz, irudia baño aundixeagoa ARGIA´ren orrialde laurdenekoa izanik. Zortzi orrialde oietatik bost edo sei marrazkiz (dibujoz) bete-beteak izango dira egungo irakurri diran ipui ta edesti arrigarrrienak irudiz azalduz. Besteak asmakizun edo irakurgai polit eta atsegiñez margoz egiñak, or aurrean daukazuten orren antzantzekoa izango da. ¡Gauza politagorik nai dezute! ¡Ta an irakurriko diranak!”<sup>9</sup>.

Salneurriak ere agertzen ziren: hogeitazentimo ale bakoitza, urteko harpidetza 5 pezeta eta Argia-ren harpidedunentzat 4,5 kostatzen zen. Eta gainera, “arpidedun (suskritore) artean SARI bereziak banatuko ditu TXISTU´k”. Baina saririk handiena, euskara hedatzea: “¡Ama Euskerak laztanduko zaitu!”, agintzen zuten “Txistu”ren bultzatzaileek.

Baina harpidedunak ez omen zetozen, ez haiek nahi adina behintzat. Behar zituzten bi mila harpidedunak gehitxo ziren antza, eta komikiaren sarrera atzeratu egin zen. Ekainean *Txistu* ateratzear zegoela agintzen zuten; uztailean Oñatin eta Errearterian *Txistu* jaiotzen laguntzeko talde bana sortzen da, “bere gain artu dute alde batetik dirua bildu ta bestetik ume artean zabaltzeko lana”<sup>10</sup>. Komikiaren alde jartzen dira pertsona asko, horietako bat Xenpelar bertsolaria:

“Asko ta asko ikusten degu  
iragarkia ARGIA´n  
Seme polit bat nola dagoen  
Orain jaio bearrian  
Donostia´ko uri maitian  
Eta Garibai kalian:  
Pozez beterik gaude artzeko  
Bistatzen zeradenian”.

Hala ere, *Txistu* argitaratu baino lehenago oraindik beste oztopo bat aurkituko zuten bidean: asmoaren sortzaile bat, Anton Alaiza esan bezala, hil egin zen 1926ko uztailaren 15ean Arabako Musitu bere jaioterrian. Euskaldunberria, "bizibearrak Madrid'era bota zuen gazte zanean"<sup>11</sup>. Eusko Irakaskuntzaren alde lan egin zuen, "TXISTU gure aurtxo-aldizkingiaren asmoa bururatu zigutenetako bat zan bera, ta gogotsu lan egin ondoren, bere pozik aundienetako bat iritxi gabe, TXISTU ikusi gabe juan bear izan du".

Dirurik eza arazo nagusia zen. Behin eta berriz "euskaldun aberatsen laguntza" eskatzen zuten. Azkenean heldu zen. 1926ko uztailan bilbotar ezezagun batek dirua eman zien, "lenengo urterako amar arpide, bigarren urterako sei ta irugarren urterako iru" ordainduz. Irailean beste laguntza ekonomiko bat jaso zuten, Eusko Irakaskuntzatik bidalia, 100 pezeta "Garteiz'izendatuko dan saritan emateko"<sup>12</sup>. Kontutan hartzekoak dira sari hartarako baldintzak:

"Umetxoak gogor irakurri ta irakurtzeaz gañera irakaspen onuratsuenak emateko egoki izango diran gaiak erabiliko dira idazki labur auctan: au da, 'gauzen irakaskizunak'edo umeai ta batez ere euskaldunai, dagozkien ezagutzak azalduaz".

Hizkuntza, idazkerari buruzko gomendioak ere ez dira falta; gipuzkera zen, *Argia*-n bezalaxe, hautatutako barietate edo ugaritasuna: istorio eta testu guztiak "Gipuzkoako euskera errez eta argian idatzi bear dira".

Urrian, azkenik, beste diru-laguntza ekonomiko bat jaso zuten, Alaiza zenaren lagunek bildua, beste 50 pezeta, bigarren sari bat, *Alaiza saria* izenekoa, eratzeko. Euskal Herriko lehen komiki-aldizkaria argitaratzeko bidea garbi zegoen antza.

### 3. *Txistu* agertzen da. Ezaugarriak

1927an, azkenik, aurreko urtean landutako ametsa betetzea lortu zuten eta *Txistu* eman zuten argitara. Baina, arrazoi zehatzak ez dakizkigularik, oso ale gutxi atera ziren. Ezin da esan

*Argia*-n agertutako eredu "Txistu"ri buruz ezagutzen dugun bakarra oso komiki ona zenik. Baina komikia bazen, *Txistu*-k komiki izateko exijitzen diren baldintza guztiak zituelako zen: testua eta marrazkiak osagai dira, beraz bata ezin da ulertu bestea begibistan eduki gabe<sup>13</sup>. *Balloon* edo *globo*rik ez agertu arren —hitzak binetan azpian kokatzen ziren, didaskalia moduan—, *Txistu* komiki oso bat zela diogu. Azken batean, TBO n argitaratutako istorioak ere, oso zuhurrak izaten ziren *globo*ak erabiltzean, umeek agian ulertuko ez zituztelakoan.

*Txistu*-ren testua ere oso xehea zen: ipuitxo moduko bat baino ez zen, azkeneko moraleja edo ikasgai eta guzti, kanpoko kontalari batek kontatua. Pertsonaia antropomorfoak agertzen ziren, untxiak. Horietako bat —umeen pertsonifikatzea, alegia, komikietan adituek animal-strip izendatzen duten moduan— txalupa batean itsasoratzen da, amaren aholkuak entzun gabe. Larrialdi baten ondoren, hirugarren pertsonaia azaltzen zen, dordoka bat, ume-untzia salbatu eta amaren besoetara itzultzen zuena. "Amaren esana egin", dio egile ezezagunak istorioaren amaieran.

Ikuspuntua ere oso ohizkoa da: istorioan zehar kanpoko ikuspuntu bakar batetik begiratzen dugu gertatutakoa, eta inoiz ez pertsonaia batengandik edo eta beste ikuspuntu batetik. Esandakoak, berriz, ez du inola ere esan nahi *Txistu* mesprezatu behar dugunik. Ez dago Ameriketako komikiekin konparatzerik, noski, baina Espainiako komikiak oso antzekoak ziren. Azken finean, sortzaileen helburua euskara hedatzea zen, batik bat.

Hala eta guztiz ere, honek erakusten digu zer nolako interesa zuten komikietan euskara-munduan mugitzen zirenek, euskara bera bultzatzeko tresna ezin hobetzat hartzen zituztelako noski. Aspaldidanik, pauso zuhurrak emanez, euskarazko komunikabideek *mass-media* bihurtzeko pauso zuhurrak emanak zituzten.

Euskararenganako maitasuna piztu nahi zuten, baina hori bakarrik: beste lurraldeetako komikietan bezala, seguruenik mezu ideologikoak ere igortzen ziren, *Argia*-ren ideologia, hiru ardatzetan oinarritua: Fedea, Nekazaritza, Euskara. Ikusi dugu nola azpimarratu zuten "irakaspen onuratsuak" horniturik agertu behar zuela *Txistu*-k. Nolabait ere, asmo didaktiko bat bazuten.



Eta, garai hartako Europako beste komiki gehienen antzera (eta Estatu Batuetakoetan ez bezala) *Txistu* umeei zuzendu zieten.

Urte haietan ere agertu ziren Espainian eta Europan komiki anitz: gogora dezagun, adibidez, *Tintin* famatua, Hergék egina, 1929an hasi zela argitaratzen *Le Vingtième Siècle* aldizkari belgiar katolikoaren *Le Petit Vingtième* umecentzako gehigarrian; eta badakigu *Argia*-kock, eta Errepublikan abertzaletasunaren alde lan egin zuten apaiz sindikalistek (Antonio Elortzak "sacerdotes propagandistas" deitzen zituenak), Belgikako ekintzak eredutzat zituztela. Guzti honekin esan nahi dugu Euskal Herriko koinzidenzia kultural, politiko eta sindikala, besteak beste eta kazetaritza/komikigintza barne, ez zela fenomeno isolatu bat izan, Europako beste lurraldeetan gertatzen zenari begira bait zegoen. *Txistu*-ren sorrera Europa eta Ameriketako komikigintzan kokatzeko asmoz, Espainian erreferentziarik handienak, dudarik gabe, Estatutik bait zetozen, batez ere bi komiki argitaratzen zirela, gogoratuko dugu *T.B.O.*, Buigas argitaletxeak 1917tik kaleratzen zuena, eta Pulgarcito, Barcelonako Bruguerak argitara emana. Katalunian ere komiki-aldizkari batzuk argitaratzen ziren, *En Patufet* ospetsuena izanik. Primo de Riveraren Diktadurapean Espainiako komikigintza bere gailurrera heldu zen<sup>14</sup>. Ameriketako komiki ezagunak ere garai hartan hasi ziren, hala nola *Thimble Theatre* (Popeye marinelaren ibilaldiak kontatzen dituena) eta *Snuffy Smith* 1919an, *Felix the Cat* 1923an, *Little Orphan Annie* 1924ean eta *Tarzan* 1929an. Walt Disney-ren *Mickey Mouse*, komiki pertsonaiarik ezagunetarikoa bat, 1930ean sortu zen, *Txistu* baino hiru urte geroago, alegia. Orokorrean, beldurrik gabe esan dezakegu garai hartan komunikabide guztiek egundoko garaipena ezagutu zutela Ameriketara eta Europa osoan. Beraz, komiki bat ateratzeko momentu egokia zen.

#### 4. Azken ahaleginak

*Txistu*-ren sortzaileen adoreak nekaezina zirudien. Beti euskararenganako maitasuna pizteko asmoz, *Argia*-koak saiatu ziren 1932an *Txistu* birsortzen, urte haiek lehengoak baino aproposagoak zirelakoan. Alferrik, *Txistu* ez bait zen berriro

argitara irten. 1935ean beste euskaltzale sutsu batek, Isaak Lopez Mendizabal tolosarrak, *Poxpolin* izeneko komikia argitaratzeari ekin zion, hau ere euskara hutsez. Zailtasun ekonomikoak zirela medio, urte berean desagertzeko zorian egon omen zen. *Argia*-koek irmoki laguntzen saiatu ziren L. Mendizabalen komikia, *Txistu*-rekin gertatua gogoan. 1935eko irailetik abendurarte atera gabe egon zen *Poxpolin*, baina urtearen amaieran Gipuzko-Buru Batzarraren diru-laguntzaz burua altxatu zuen. Denbora gutxirako, ordea, 1936ko Gerra heldu bezain pronto desagertu bait zen, euskarazko beste aldizkari guztiekin batera, Euskal Herriko komiki hau ere.

J. D. N.

- 
- <sup>1</sup> Unsain, José M<sup>a</sup>: *Antecedentes del comic en Euskadi*, Ttartalo argitaletxea, Donostia, 1989.
- <sup>2</sup> *Argia* 261, 1 or. 1926ko apirilaren 18.
- <sup>3</sup> T.B.O.: Espainiako komikirik famatuena, gazteleraz komiki-aldizkarietara izena eman ziena, 1917an hasi zen kaleratzen. Ez dugu *Pepito* izeneko komikirik ezagutzen, eta ziur aski *Pulgarcito*-z ari ziren, 1923an sortua (Gasca, Luis: *Los comics en España*, Lumen, Barcelona, 1969).
- <sup>4</sup> Irure, Jose M<sup>a</sup>: "Garitaonaindia'tar Bitor jauna. Bere bizitza", in: *Euskal-Esnalea*, 318. zk., 121 or.; *Argia* 657, 2 or. 1933ko azaroaren 5.
- <sup>5</sup> *Argia* 247, 1 or., urtarrilaren 10, 1926.
- <sup>6</sup> Jeme (Gregorio Muxika): "Zer ote da?", in: *Argia* 2555, 1 or, 1926ko martxoaren 7koa.
- <sup>7</sup> XX: "Guziok txistulari", in: *Argia* 261, 1 or., apirilaren 18, 1926.
- <sup>8</sup> Idem.
- <sup>9</sup> *Argia* 261, 1 or., apirilaren 18, 1926.
- <sup>10</sup> *Argia* 272, 2 or., uztailaren 4, 1926.
- <sup>11</sup> *Argia* 278, 2 or., abuztuaren 15, 1926.
- <sup>12</sup> *Argia* 284, 1 or., irailaren 26, 1926.
- <sup>13</sup> "Definimos los comics como estructura narrativa formada por la secuencia progresiva de pictogramas, en los cuales pueden integrarse elementos de escritura fonética. El pictograma constituye históricamente la forma más primitiva de escritura y se define como un conjunto de signos icónicos que representan gráficamente el objeto u objetos que se trata de designar". Gubern, Román: *El lenguaje de los comics*, Ed. Península, Barcelona, 105 or., 1972
- <sup>14</sup> Martín, Antonio: *Historia del comic español: 1875-1939*, Gustavo Gili, Barcelona, 1978.

## Errusiar formalismoa

Andolin Eguzkitza

Errusiar formalismoaz\* hitz egitea, Errusian 1915-16 eta 1930 bitartean sortu, garatu eta hil zen kritika-eskolaz berba egitea da; Sovietar Batasunaren kulturpolitikak, hain zuzen ere, hil zuen eskolaz mintzatzea. Ez du terminu honek zerikusirik beraz, artegintza eta literaturkritikan aldizka agertzen diren izen bereko mugimenduekin.

Bi hiritan sortu zen mugimendua, Leningradon (garai hartan oraindik Petrogrado) *Opojaz*-ek bultzaturik (Hizkuntza Poetikoaren Ikerketarako Elkargoa) eta Moskun, bertako lagunarte linguistikoak lagunduta. Izena, berez, ez da eskolako ki-deek erabiltzen zutena, arerioek eman ohi zietena baizik; formalistek berek "espezifikatzaile" edo "zehazle" nahiago bait zituzten beren buruak, eta beren metodoa "morfologikoa". Boris Ejchenbaum-ek zera zioen (Erlich 1980, 172): "Gure metodoa formalista deitzen da gehienetan, nik baina, morfologikoa deitzea nahiago nuke, beste metodoetatik argiro desberdintzeko; alegia, azterbide psikologiko, soziologiko eta abarretatik ondo desberdintzeko, metodo hauek ez baitute obra bera iker-gaitzat, ikertzailearen eritziz obran isladatzen dena baizik". Aurreko garaietako definizio-ezarekin amaitu nahi zen eta lite-

raturzientziarako autonomia irabazi. Artea autonomoa zen haien ustez, beraren legeen arabera azalgarri; Shklovskij-k jarri zuen moduan "artea beti izan delako bizitzetik aske eta beraren banderak ez dituelako inoiz hiriko gaztelukoaren kolore berak erakutsi" (Erlich 1973, 634); eta literatura literatura bezala, hots, *literaturtasuna* delako, Roman Jakobson-en hitzez, literaturzientziaren gaia; izan ere, idazlan bat literario egiten duena.

Errusiar literaturkritika ezin daiteke, sarri askotan egin ohi den legez, obraren alderdi ideologikoekin bakarrik axolaturiko kritikatradiotzat jo. Hori beraren barruan gertatu den joera bat besterik ez da, ikuspuntu ideologikoa garrantzitsua izan arren eta Sovietar Batasuna sortuz geroztik agian erabiliena. Beste kritikamoldeak arrunt gertatu dira beraren historian. XIX. gizaldiaren bigarren erdia da, izan ere, joera hori gehien indartu zeneko aldia, intelektualgo erradikal eta plebeiuaren sorrerak ukan zuen eragipenaz gain, orduko baldintza soziopolitikoak kontutan harturik, irudimenezko literatura baitzen "pentsamendu soziala" zabaltzeko bide bakarra.

Formalismoa gizahistorian agituriko beste edozein mugimendu "iraultzaile" bezalaxe, ez zen ezerezetik sortu. Honako kasuon ere, apurka-apurka umaturiko fruitua dugu, nahiz eta azaletik "iraulpena" erabatekoa izan. Aitzindarien artean Aleksandr Potebnja (1835-1891) aipa daiteke lehenengo eta behin, eta berarekin batera Aleksandr Veselovskij (1838-1906). Potebnja-ren garrantzia prosa eta poesia, literatursorkuntza, terminu linguistikoz deskribatu nahian datza. Haren eritziz, pentsamendua eta lengoia ez dira elkarrekin egokitzen; pentsamendua "adierazia adierazlea" berdintza egiaztatzen saiatzen da, bigarrenak, berriz, adierazlearen autonomia du jomuga. Poesia, horregatik, hitzaren autonomia aldeztu duen heinean, berezko lengoia da. Harentzat, hizlauri eta olerkaritza, prosa eta poesia ezagutzamodu bi dira. Batak baieztu egiten du, besteak, oster, etsenpluz adierazi. Haatik, formalistek ezbezala, figura poetikoak, tropoak, ulertzapenaren tresnatzat jotzen zituen, hots, ez "arroztebide"tzat gero Shkolvsij-k proposatuko zuenez, "azalbide" bezala baizik.

Veselovskij, berriz, literaturhistoria zientzialor beregaina egitearen saioaz hurbildu zen beranduago formalistek aitzinera-  
tu eta garatu eraziko zituzten gogoetabideetara. Lehendabizikoz,  
ez zuen literaturhistoria eta kulturhistoriaren artean diferentzia-  
rik ikusten. Geroago, baina, alor hori mugatuz joanen zen, eta  
azkenez, sorkuntzazko literatura eta idazkuntzaren artean des-  
berdintasun argi bat eginik, honela zehaztuko zuen literaturhis-  
toria: “pentsamendu sozialaren historia irudimenezko esperien-  
tzia poetikoan, eta esperientzia hori gorpuzten duten formetan  
isladatu bezala” (Erlich 1980, 28). Ez zen Potebnja bezain psi-  
kologista. Berarentzat irudimenezko literatura literaturekoizpe-  
nen bilketa zen, sortzailea —idazlea— eta irakurlearekiko erre-  
ferentziarik gabe juzka daitekeena. Idazlana, gero, elementu  
desberdinetan banatzen da, kontzeptu ideologikoak, kondaera-  
eskemak, tresna poetikoak, figurak, e.a. Horregatik, haren abu-  
ruz, idazle bakoitzaren balioak barik, formula poetikoen historia  
da historialariaren ardura nagusia. Halaz ere, ez zen gauza izan  
orduko burutapen mekanistikoa gainditzeko, hau da, forma poe-  
tikoak edukin bat adierazteko era bat bezala ikusteko joera, mo-  
du horretan, literaturaren bilakaera munduikuskeraren bilakae-  
raren ondorio huts bihurtzen zuelarik.

Formalismoaz propio mintzatzeko hasi baino lehen, eta bera  
ongi ulertu ahal ukateko, beste mugimendu aitzindari bi ere ai-  
patu behar dira; lehenengoa sinbolismoa, formalismoak eginen  
zion kontrakarragatik eta futurismoa bestea, ikuspuntu desber-  
dinetatik izan arren —bata sorkuntzatik eta kritikatik bestea—  
formalismoak bezala hitz poetikoari emanen zioten garrantzia-  
gatik, eta halaber formalismoarekin batera amankomunean  
ukanen zuten antipsikologismoagatik.

Sinbolistek ez zuten bakarrik artea egin gura, metafisika bat  
sortu baizik, munduaren ikuskera oso bat ekotzi. Edukin eta  
formaren dikotomia eragotzi nahi zuten, zeren Ivanov-en hitzez  
“forma edukin bilakatzen baita, eta edukina forma” (Erlich  
1980, 35). Sinbolismoaren teorilari honentzat, gainera, edukin  
eta formaren, esangura eta hotsaren batasun organikoa nozio

esoteriko batekin zegoen loturik; berarentzat poesia azken Egiaren agerkundea zen. Bestaldetik, Andrej Belyj eta Valerij Brjusov ere, biak olerkari eta kritikagile, aipagarri ditugu sinbolisten artean, biek uste baitzuten poetak teoria poetikoa eza-gutu beharrean daudela. Belyj-k erritmoaren legeak ikertu zituen eta beraren oinarrizko irregulartasunak aurkitu, hau da, edozein eskema erritmikok dauzkan salbuespen "erregularren" multzoa. Haren ustez, desbideratze horiek guztiz beharrezkoak dira poemaren ahalmen aierukorrari kalte egin nahi ez bazaio. Eta begitazino hori aski dogmatikoki defendatu bazuen ere, beraren lana errusiar poetika zientifikoaren garapenean mugarri garrantzitsua gertatu zen, formalismoaren erlatibismo histori-koari bidenabar hurbildu zitzaielarik poeten eta poetataldeen berezitasun erritmikoen aurkikundean. Brjusov, berriz, hizkuntza poetikoaren alor foniko, semantiko eta gramatikalen arteko harremanak argitzen saiatu zen, eta Belyj-k bezala, baina kohe-rentzia handiagoaz, eskola eta sistema erritmikoak beren tes-tuinguru historikoetan kontutan hartzen.

Futurismoak, bere aldetik, sinbolismoa gogorkiro erasoz, azkenonek zerabiltzen hizkuntzaren natura eta funtzioari bu-ruzko burutapenengatik, ez zegoen halaz guztiz berarengandik hain urrun oinarrizkotzat jotzen zuen hizkuntza poetiko eta prosaikoaren arteko diferentzian. Sinbolistentzat hitzaren aieru-pena zen garrantzitsu; futuristentzat, aldiz, hitza zen berez in-portantziako, edukinaren gainetik formaren nagusitasuna alda-rrikatzen baitzuten. Xlebnikov-ek, adibidez, morfemetan oinarrituriko idazkera erabili zuen, eta asmatzen zituen berbek denotaziorik ukan ez arren beti gertatzen ziren esangurakor. Bere buruarekin aski zuen hitza, beraz, zelanbait egia bihurtu zen. Majakosvskij-k zioenez, "arteak ez da naturaren kopia, na-turak norberaren kontzientean dauzkan isladapenen arabera, natura bera itxuragabetzeko ausartzia eta indarra baizik", (Erlich 1980, 46). Era berean, futurismoaren literaturarekiko hurbilketa guztiz zen historizista, hainbeste non beste garaieta-ko poetika plazer estetikoaren helburu izan zitekeenik ere uka-tu egiten baitzuten; eta olerkaria eta poesia ulertzeko moduan,

berri, guztiz enpirizista, sinbolistentzat poeta zen aztia, esku-langile trebe bihurtzen zutelarik. Oro har, literaturzientzia sistema zientifikoa bilaka erazteko ukan zuen eragipenaren bidez guztiz garrantzitsu gertatu zen formalismoaren sorkundean.

Hasieran aipatuenez, formalismoak zeuzkan bi helburu nagusiak, literaturzientiaren autonomia eta literaturlanaren beraren ikerketa, izan ziren mugimendu honek aitzineratuko zituen ideia, gogoeta eta teoria guztien iturburu eta indar ekintzakorra. Hala, bada, itauna berehala sortu zitzairen: zertan datza obraren literaturtasuna? Zertzu dira irudimenezko literaturaren ezaugarriak? Psikologia eta teoria psikologistekin oso mesfidaturik ez zuten inolaz ere muina egilearengan ikusi gura. Diferentzia, haien ustez, obran dago, baina ez idazlan literarioak gai hau edo hura darabilako, literaturlanak gaia halako erataratu aurkezten duelako baizik. Jakobsonek "Zer da poetika?" izeneko saioan zioenez "gaur egun edozer izan baitaiteke poema batetarako gaia" (Erlich 1980, 173). Haien ustez, bestalde, irudiak erabiltzea ere ez zen literaturaren ezaugarria, batetik irudien hizkera, poetikarena baino zabalagoa delako eta bestetik poetikak batzutan irudirik erabiltzen ez duelako. Beraz, erabilkeran dago poetikaren gunea. Shklovskij-k argitaratu zuen artikulu ospetsuan, lehen urteetako formalismoa bideratuko zuena hain zuzen ere, "Artea egikera bezala", ideia guzti hauek ohi zuen era biziaz aldeztu ditu.

Artikulu horretan bere "arrozteakuntza-teoria" aurkezten digu. Irudia ez da ezezaguna ezagunaren bidez azaltzeko bidea, aitzitik, aurkakoa da egia; ohizkoa "arroztu" egiten da, lehen aldiz ikusiko balitz bezala aurkezten. Horrela, artearen jomuga nagusia betetzen da. Irudiaren erabilkuntza poetikoa "aldaketa semantiko bat" sortzea da, hori delarik erabilkuntza praktikotik desberdintzen duena, irudikatua errealitatearen beste maila batetara eramatea. Beste era batera esanik, batetik gizartearen ohizko eta ontzat hartutako oharmen automatikoak "arroztu" egiten dira, eta bestetik zaildu eta arrotzuriko oharmen horiek zaildu-tako forman erabiltzen dira, forma hau lortzeko tresnak eta ke-

rak literaturzientziaren kezka eta helburu bakar bihurtzen direlarik. Izan ere, hasierako urteetan maiz ukatu zuten formalistek faktore sozial eta ideologikoen garrantzia.

Shklovskij-ren "arrozkuntza-teoria"k, bide batez, literatura-ren bilakaeraren burutapen bat sortzen du, literatura-ren historia tradizioen apurturen historia bihurtzen duelako; arrozkuntzen, berauen automatizatzeen eta arrozkuntza berrien historia bihurtzen duelako; arrozkuntzen, berauen automatizatzeen eta arrozkuntza berrien historia, alegia. Bestalde, Shklovskij-ren jarrera eta Bertol Brecht-en "alienazioa" (*Verfremdung*), —*bestera-kuntza*—, naharoki alderatu direnak, ez dira gauza bera, lehenak errealtatearen oharmenaren aldaketa bat gura zuen bitartean, besteak agertokia eta publikoaren arteko urruntasuna zeukalako helburu.

Deformazio-sortzaile honek, arrote-sortzaileak, gure inguruko munduaren oharmenari zorrotasuna ematen dio, bide batez "dentsitate" gaineratuz mundu horri. Garrantzitsua lehenago aipatu "aldaketa semantikoa" dugu, ez aldaketa horren norabidea, batzutan landuagora eroan gaitzakeena, baina baita xumeago denera ere. Shklovskij-ren ustez, hala ere, ez da hau unibertso ohargarri eta dentsuaren eraikuntzan dugun bide bakarra. Lanbide honetan, esate baterako, erritmoa ere aipatzen du berak, idazlearen tankera iluntzen duena eta beraz irakurleari, askozaz modu lantsuago batez, testuarekin burruka erazten diona.

Jakobsonentzat, aldiz, arazoa ez datza jasotzaile eta jasotako objektuaren artean, "zeinua" eta "erreferente"aren artean baizik. "Poetikaren funtzioa zeinua eta erreferentea bera seinatzea da" (Erlich 1980, 181). Haren eritziz, irakurlea eta testua baino gehiago, idazlea eta hizkuntza dira kontutan hartu behar direnak. Eta berarentzat bezala formalista gehientzat. Hasieratik jadanik, formalistak hizkuntza poetiko eta praktikoa arteko desberdintasuna argitzen saiatu ziren. Eta hasieran dikotomia hori hizkuntzaren erabilkuntza zirrargile eta ezagutzai-learekin berdindu bazuten ere, laster utzi zuten alde batera.



Literaturhizkuntzan, hizkera praktikoa eta zirrarakoan ezbeza-  
la, komunikaziofuntzioa ez da nagusia; hitza poetikan halako  
objektoren isladapentzat barik, berez dentzat jotzen baita, hitza  
bera bilakatzen delarik plazer estetikoaren iturri. Boris Ejchen-  
baum-ek izkiriatu bezala “poetikaren jomuga, alderdi orotan  
hitzaren ehundura ohargarri egitea da” (Erlich 1973, 631). Era  
honetara, zeinu berbalaren unitate konplexua defendatzetik  
beingoan obraren batasun organikoa baieztatzen heldu ziren,  
hots, forma eta esanguraren batasuna idazlanaren mailan. Ho-  
rrela, *forma* eta *edukina* barik, literaturaz hitz egiteko orduan  
*materialak* (lehengaiak) eta *tresnak* ziren formalistek gehiago  
erabiltzen zituzten terminuak. Era horretan, literaturaren erroti-  
ko batasunari eusten zitzaion, lehenago erdibiketa baten bi ele-  
mentuak zirenak —elkarren kontra jarriak— prozesu litera-  
rioaren aldi bi bihurtzen zirela. Erlich-ek dioenez “berriro ere  
poetaren beharlekua, errealtatearen agerpen baino gehiago,  
lengoiaren manipulazioa kontsideratzen zen” (Erlich 1980,  
190). Edo Ejchenbaum-ek ere esan bezala, “artelan literarioa  
beti da egina, eratua, asmatua, ez bakarrik artistikoki, artifizial-  
ki ere bai noski, hitz honen zentzu onean” (Erlich 1980, 190).

Formalismoa ez zen zurrin geratu zen mugimendua, aitzit-  
tik, beraren bizitze laburrean aztergaien hedakundea, jarrera-al-  
daketak eta ideien joritasuna atergabe gertatu ziren ageriko.  
Aurreneko urteetan, poesia izan bazen eskolakideen ikerketagai  
nagusia eta hitza hitz bezala berez dena batez ere, esanguraren  
sarrerarekin, hurrengo urratsa gero, gorago aipatu dugun diko-  
tomiaren gaitz gertatu zen. Poetikan, azterketa akustikoak  
bezala, prosodiari kontutan hartzen ez zuten kritikapideak era-  
gotzi zituzten. Biak, fonetika eta semantika kontutan hartuko  
zuten zerbait aurkitu gura zuten, joskera alegia. Horrela, erri-  
moa eta joskeraren harremanak bilakatu ziren alor honetan for-  
malisten ikergai garrantzitsuenak. Honekin batera, gero eta  
gehiago azterketa historikoak egiten hasi ziren, zerarekin kon-  
turatu ziren batean batez ere, literaturlanak bakarka ezin azter-  
daitezkeela, beste idazlanekiko erreferentzia guztiz beharrez-  
koa dela. Hastapenean, Shklovskij-k kasu batez, obra egi-

keren batuketa zela zioen. Beranduago, ordea, burutapena dinamikoago egin zen, egikera artistikoak idazlerengandik idazlerengana, eta halaber eskolatik eskolara aldatzen baitira; beraz, bilakaera historikoaren ulertzapena guztiz beharrezkoa egin zen. Tankera berriak ez ziren gehiago ikusten aurrekoen kontrakarra bezala, Tynyanov-en hitzez, "elementu zaharren berantolaketa" bezala baizik (Erlich 1973, 633).

Formalismoak egin zituen lanen artean, ukan zuen eragipenarengatik herri-ipuinen egituraz Propp-ek egin zuena aipatu behar da, zalantzarik gabe. Eskola etnografikoak zioenez, motiboak giza izakeraren isladapen eta beraren problemei egindako erantzunak dira, eta herri eta kultura askotako ipuin eta istorioetan agertzen diren motiboen arteko antzak, maileguak edo jatorri amankomunak ezinezkoak direnean, herri primitiboen bizikera antzekoetan bilatu behar dira. Shklovskij-k, berriz, azalpen hau osotaro ukatzen zuelarik antzekotasun horien kausa gaiegituran, argudioen antolamenduan ikusten zuen. Haren ustez, eta ez herri-ipuinen kasuan bakarrik, artelanen formak iadanik *hor dauden* beste artelanen formekiko harremanez mugatzen dira. Forma berriak ez dira edukin berriak adierazteko sortzen, aurreko formak gainditzeko baizik. Artearen historia, beraz, lehenago esan dugun bezala, prozesu inmanentea da. Propp-ek bere "Ipuinaren morfologia" deritzon liburuan egiten duena zera da, herri-ipuinen argudio desberdinak sailkatu eta tipoen kopurua ahal den gehien murriztu. Haren ustez, ingurugiroa edo pertsonaietan oinarrituriko sailkapenak ez dauka irtenbiderik, hain baita handia aldagarrien kopurua. Horregatik, "funtzioak" dira berarentzat ipuinaren habea, izan ere, pertsonaiak aldatu arren beti bat diraute. Are gehiago, herri desberdinetako ipuinen arteko antzekotasunak ez dira motiboetan bakarrik agertzen, argudioetan ere bai noski, hots, motibo horien antolamenduan.

Shlovskij-k ere "Don Quixote"-ri buruz egin zuen azterketa, beraren teoriari erakusgarri ederra dugu. Bertan egikera, tresneria agerian uzten ahalegintzen da, eta orobat motibazioa, Shklovskij-k berak esan bezala "argudio-egitura baten azalpena

orduko ohituren arauera” (Erlich 1980, 194). Horrela, Cervantes-en egikerak erakusten ditu, bai eta nola horien artifizialtasuna agerian uzten duen. Orduan, zera ateratzen du azkeneritzi, Don Quixote ez dela pertsonaia itxi eta oso bat bezala bururatu, gero sarritan esan den legez, ezpada elaberriari agertzen diren materialen eroale huts bezala. Don Quixote-ren tipo hori elaberriaren ekoizpena da, besterik ezean elaberriak berak sortua. Berriz ere, formalismoaren, eta Shklovskij-ren bereziki, gaiaren gutiespena ikus dezakegu. Esate baterako, Don Quixote-ren erudikzioari buruzko solasa “teknikoki” dago motibatua haren ustez. Ez du beraz ezertarako kontutan hartzen Cervantes-en garaian oso eztabaidatua zen eruditua eta zaldunaren idealak, ez eta Cervantes-en obran agertzen den beste gai garrantzitsua ere, alegia, idealaren eta egiaren arteko gatazka.

Shklovskij-ren ustez, idazlearen munduikuskera beraren laneko hipotesia da. Munduikuskera hori, baina, idazlearen kontzientzia hori literaturformak mugatzen du. Gainera, literaturlanak belaunaldi ezberdin askori zuzendu behar zaizkionez, guztiz garrantzitsua da idazleak obraren ulerkerak desberdinen ahalbidea sortezatzea.

Prosazko literaturlanetan —sortzezkoetan— oinarritzko mota bi aurki daitezke. Batetik, krimen eta polizielaberriak bezala, lanaren egitura osoa esan eta eraiki denaren baitan duten obrak, eta bestetik obraren egitura bera gai bihurtzen dutenak. Bien artean, ordea, parodia dago, egituratik libre dagoena eta hala-ber egikerak gai bihurtzen dituena. Horregatik erabili zituen Shklovskij-k parodiak bere etsenpluetarako, hala nola Sterne-ren “Tristan Shandy” elaberria eta Cervantes-en “Don Quixote”.

Ejchenbaum-ek bere “Nola Gogol-en *Soingainekoa* egina dagoen” delako saio ospetsuan, Gogol-en narrazioa, kondaeraren egitura aztertzen du eta *skaz*-adibide bat dela baieztatzen, hau da, XIX. eta XX. mendeetako errusiar literaturan oso amankomuna den, eta herri-kondalarien tankera duen prosamoldea, batez ere fikziozko kondalarien tonu pertsonalean bere begiak jartzen dituena. Ejchenbaum-ek kondaera zaharra eta

modernoia gaiarekiko interesaren bidez desberdintzen ditu. Prosamolde zaharrak gaian dauka habea, modernoan, berriz, gaiak ez dauka ia garrantzirik; azken honetan, gainera, kondalaria lehen planoan agertzen da eta aipatu dugun "tonu pertsonal" hori tankeraren markatzaile bihurtzen. Horrela, Gogol-en obra kondalari komedialariaren joku efektudun bezala ikusten du. "Soingainekoa"ren gaia maila estilistiko biren nahasketa bezala aurkezten du, narrazio komiko eta erretorika sentimentalarena. Ejchenbaum-en saio hau, beraz, Gogol-en obraren muina tankeran jartzen duena, lehen formalismoaren ordezkari tipikoa dugu, geroago kontutan hartuko zuten perspektiba guztiz baztertzen duena.

Errusiar formalismoaren arabera prosa eta poesia dira literaturaren alorrak, ez tradizionalki onaturiko jeneroak, hala nola lirika, epika eta dramatika. Jeneroak sistema funtzionalak dira, baina literaturlan konkretuak ezbezala ez daukate existentziarik, ez bada erreferentzia-sistemak bezala, dela hala definitu direlako, edota era bateko obren ordezkariatzat jotzen direlako. Historikoki jenero asko desagertu dira, ereti historiko batetan gero berragertzeko beste baldintza batzuen epean. Horregatik dio Tomachevskij-k jenero baten mugapena ezin daitekeela zenbait erizpide tinkoren arabera egin, erizpide historikoak kontutan hartuz baizik, besteak ere beharrezkoak izan arren. Era horretan, idazlan, jenero eta orobat eskola bakoitz bezala, hala da literatura osoa bilakaera-prozesu bat. Tomashevskij-k hiru motibazio-mota desberdintzen ditu, konposiziozkoa, polizielaberrietan irakurlea nahasteko egiten diren saioak, esate baterako; bigarrena, motibazio errealista, hau da, idazlanean agertzen dena errealtzat agerrerazteko egiten den ahalegina. Eta azkena, berriz, motibazio estetiko, idazlearen epoka eta eskola ren jarrera estetiko mugatzen duena, hirugarren honetan da goelarik bilakaera historikoaren giltza.

A. E.

- \* *Errusiar Formalismorako sarrera xume hau ez da hori baizik, sarrera bat, eta kritika-eskola honetaz idatzi den gehiena bezala, Erlich-en lan xarmant eta ezin berdin-uekin zorretan dago. Gaiaz interesatuak, jo beza Erlich-engana eta bibliografian aipatutako beste lenetara.*

---

### **Bibliografia**

- Erlich, Victor. 1980. *Russian Formalism*. The Hague (The Netherlands): Mouton Publishers.
- Erlich, Victor. 1973. "Russian Formalism", *Journal of History of Ideas*, XXXIV, Oct-Dec., No 4, 627-638.
- Hawkes, Terence. 1977. *Structuralism and Semiotics*. Berkeley: University of California Press.
- Bann, Stephen and Bowlt, E. (eds.) 1973. *Russian Formalism (a Collection of Articles and Texts in Translations)*. New York: Barnes and Noble.
- Jameson, Fredric. 1972. *The Prison House of Language*. Princeton University Press.
- Lemon, T. and Reis, (Marion (eds.)), 1965. *Russian Formalist Criticism. (Four Essays)*. Lincoln: University of Nebraska Press.
- Striedter, Jurij. *Texte der russischen Formalisten (Band I: Texte zur allgemeinen Literaturtheorie und zur Theorie der Prosa)*, 1969. Mit einer einleitenden Abhandlung herausgegeben von eodem. Redaktion und Register: Witold Kosrý. München: Wilhelm Fink Verlag.
- Todorov, Tzvetan (ed.). 1965. *Théorie de la littérature*. (Textes des formalistes russes réunis, présentés et traduits par eodem). Paris: Editions du Seuil.

## Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublikak Baltikoak

Joxe Azurmendi

Posizio guztien desmantelamenduak. Horixe ari gara ikusten. Politikoki. Moralki. Kapitulu biografiko groteskoak batzuetan. Batik-bat intelektualki.

Paperok idatzita neuzkan, baina tarte bat sartu nahi nuke, inprenta baino lehen, Aranguren-en azken gogoetak aipatzeko, "Moral española de la democracia 1976-1990", *Claves*, ekainekoa. Kontsolatu egin naute: beraz, ez da nire obsesioa bakarrik izan! "El consenso, con su espíritu ecléctico de pacto o transacción, trajo consigo el desencanto". Batzuk haserretu egin banituen, irakur bezate orain, mesedez, Aranguren.

Gezur politikoa, batetik; supergezur morala, hurrengo. "La cara oscura del consenso fue la renuncia a los ideales y la aceptación de graves condicionamientos: desde arriba, el de una democracia hasta cierto punto *otorgada* con una constitución ambigua y *sobre el papel*, al estilo de las del siglo XIX", etab. Nik ez nuen hainbeste esan: XIX. menderainoxe dugu progresatu! (Espero dut, XIX. mendeko demokraziak zer izan ziren Espainian, ez dela erabat ahaztu izango). Denok satisfetxo. "En la época de Joaquín Costa correspondía hablar de *oligarquía* y

*caciquismo*. Hoy, de *oligarquía* y *mass media*, entendiendo por oligarquía la del partido o los partidos con sus listas cerradas, su disciplina interna, su corporatismo y burocratismo y, si sube al poder, el presidencialismo”.

Aranguren-ek aipatzen ez duena da, baina ni kezkatzen nauena, Alderdien atzean zein eta zer dagoen: ze, Alderdiak berak ezer ez dira. Haize-globoak.

Aranguren gehiago artegutzen du “del desencanto a la desmoralización” joan den prozesuak, eta horren azkenburuak: “Minimalismo moral y maximización de una estética (trivial)”. Hots, bizitza publikoa inundatu duen komedia, gezur morala (“ética del parecer”), hau da, “al ocurrir la desmoralización política se ha producido una sustitución compensatoria de los *valores morales* por los triviales *valores estéticos* del espectáculo narcisista de uno mismo y para los demás”. Zaila ote da aluditutako pertsonaiak, arazoak, fikzioak, jokamoldeak izen-deitura konkretuz imaginatzea? Nire artikulua berberak ez ote dira? (Alegia, xuxumuxuan denek aipatzen dituzten berak...: baina maiseoa tibernan libre dago, paperean ez.)

Hemen ere ni goganbehartzen nauena desonestasun intelektuala gehiago da desmoralizazioa baino. Hizkera politiko guztia-ri erantsi zaion anbiguitate linburia, promiskuitatea.

Bigarren parte honetan ezkerrekin jarraitu nahi nuen apunteak zirriborratzen. Aranguren-ek honela ikusi du: “La crisis ideológica del marxismo, primero, el aburguesamiento del proletariado (...), a continuación, la pérdida de vigencia del socialismo en Occidente, después, y finalmente, el derrumbamiento del llamado socialismo real, han determinado una sola política posible, política que, dándose *bonne conscience*, se llama a sí misma de izquierda, que gobierna como si fuera de derecha y que, con una u otra denominación, ocupa todo el espectro político. Y como consecuencia, la que, fiel a sí misma, sigue considerándose Izquierda, será pronto una pura actitud testimonial, en tanto que crítica del Poder establecido, como quiera que se denomine; es decir, ética *versus* realismo político. Y la derecha quedará reducida a puro vestigio verbal, eco nostálgico y, entre nosotros, eso sí, estentóreamente vociferante”. Ez nago guztiz

konforme, baina utz dezagun oraingoz. Ezker etiko huts bat ez da ezkerra.

Natorren berriro desmantelamenduetara. Blokeetan ere: ekialde/mendebaleri ifar/hego bikoiztasuna uzten ari zaio lekua, potentzia handien posizioak aldatu egin dira. Eta merezi du dikotomia zaharrekin jarraitzea: demokraten demokrazia bihurtu dena, horixe dago sozialisten sozialismoa ere bihurtuta. Kaos. Uste dut, okerrago ere badagoela, gainera. Demokrazia, gezur zikin erraldoi bat badago ere bihurtuta (Italia-ko DC sinboloa izan liteke, bere Alderdi-egoismo, trikimailu eta korrupzio historia eternoekin), gutxienez oraindik badu sentido bat kontzeptu bezala. "Ezkerra"k ez du sentidorik ere, oso laino-lainoa baino, edozer gauzatsua. Ezkerra, praxian, eskuina bezalakoxea dago bilakaturia, hots, eskuina. Ezkerra eskuinetik dabil, inbaditu eta harrapatu egin dio eskuinari bere barrutia, hortxe asmatu du bere arrakasta. Geratzen den guztia da, historikoki fenomeno sozial ezkertiar batzuen ondare gisa datorrelarik etorri, tradizio horren prestigioa hein batean kapitaliza dezakeela. Besterik ez.

Asmoa banuen, gogoeta batzuetan astiro pausatzeko. Hobe dut, zirriborratutako paperok arin-arin bota, hor konpon. Ba-keak ere balio du. Baina ekialdeko sozialismoarekin egunotan gertatzen ari dena, eta "komunista" (ohi?) batzuek diotena, ikusita, ezin ditut garai bateko gure polemikak ahaztu, eta nondik nora ibili garen, galdetzen diot neure buruari.

### **"Hiru errepublika beregain eta libre"**

1967, abuztua. Kazetariari Euskadi gogazten zioten hiru errepublika baltikoek, "con sus pastizales hoy llenos de vida y su industria en desarrollo". Lehentxeago kontatua dizu, nola menpegabeak zirenean (independentek), miserian egonak ziren. "Beren baratzetako porruak bakarrik jaten" edo. Gero Soviet Batasun handiari itsatsi zitzaizkion eta berriro gaingora abiatu ziren hiru errepublikak. S. Alvarez da kazetaria, "La verdad sobre las repúblicas soviéticas bálticas" artikulua idazten du *Arragoa*-n, "revista vasca de cultura y política", Euskadiko Partidu Komunistarena. Klandestino, noski.



Gerraosteko (belaunaldiaren) mugida berrasia zen Euskadin. Urteotan Partidu Komunistak senperrenak eta bost egin ditu mugida horrekin sintonizatzeko. "En la Lituania católica y en las otras dos repúblicas con mayoría de fieles protestantes, he visto los templos llenos de creyentes sin que nadie se oponga a la práctica de sus cultos", idazten du kazetari komunistak. Katolikoen eta komunisten arteko dialogoaren garaiak ziren. Zenbaki bat lehenago Muruzabal-en artikulua irakurtzen zen, "Contribución al diálogo entre católicos y comunistas en Euzkadi". Beste zenbaki pare bat lehen Irumugarrieta-ren "Algunas reflexiones sobre el diálogo entre católicos y comunistas". Zalakain-en izenordekoa zen Irumugarrieta.

Garaiko arazoak ziren. Garaiko giroa. Partidu Komunistak sekulako ahaleginak egiten zituen mugimendu sozial berriei elkar aditzeko. Langile-organizazio katolikoekin, abertzaleekin, gazteekin. Aipatzen ari naizen S. Alvarez-en artikulua, sentimendu abertzaleko jendea du helburu, nazio-arazoaren antolabide eredu sovietarra ipini nahi jarraibide. "He recorrido estas tres pintorescas repúblicas y he visto el surgimiento de nuevas barriadas en torno a las viejas ciudades de Vilnos, Riga, Tallin. He comprobado que las viejas aldeas de pescadores están dejando lugar a poblados de tipo urbano con muelles cómodos para el atraque de barcos. He comprobado que los campesinos pasan cada vez en proporciones mayores de los viejos caseríos aislados, a los pueblos de casas modernas construidas por las cooperativas agrícolas". Ez pentsa, gero, guzti honek oraingo doinua zuenik belarrietan garai hartan! Progresiaren azkeneko garraisia zen. "Produktibismoa".

Informe zoragarri batek segitzen du: orain hiru astetan gehiago produzitzen da, lehen ("erregimen burgesean") urte osoan baino; ez dakit zenbat arrantza gehiago, esne, argindar, edo zer gauza. Holandan baino esneki gehiago kontsumitzen da buruko; Suedian eta Norwegian baino gehiago haragia. Aseguru eta opor-sistema ameskarriak dituzte langileek, etxebizitzak ia hutsaren truke, etab., etab. Batez ere irakaskuntzak eta kulturak egin aurrerapenak miresten dira: Estonian, adibidez, dago "160 estudiantes de las escuelas superiores por cada 10.000 habitantes, cuando en los Estados Unidos sólo hay 120 para el mismo nú-

mero de habitantes". Hiriak beterik daude zinemaz eta teatroz, kontzertu salaz, kiroldegiz.

Batez ere: "El tónico de la 'rusificación' de los países bálticos no resiste la menor crítica". Azkenik: "La democracia se respira por todos los poros de la vida de las tres repúblicas. Ya no es un puñado de privilegiados los que dirigen la cosa pública, es el pueblo". Abertzaleek Euskal Herriaren askatasuna bilatzen badute, hortxe daukate eredia. Kazetariak bere begiekin ikusi du, askatasun nazionala ez litzatekeela independentziarekin (menpegabeziarekin) berdindu behar, sozialismoarekin baizik: "En mi viaje por las tres repúblicas soviéticas bálticas he visto tres repúblicas soberanas y libres como jamás lo fueron en los años que vivieron en ficticia independencia".

Adibide bat besterik ez zuen izan nahi. Bistan dago, gauzak ez direla begiekin ikusten, baina zerebroarekin. Problematikoa den zerebro batekin. Urte batzuk dauzkagunok, asko irakurri ditugu holakoak. Orain, horrelako informe horiek, ez zaizkigu berak interesatzen, sortzen dituzten problemak eta galderak baizik, horrelakoak idazten eta zabaltzen zituztenei buruz.

Marxismoa, komunismoa, azken batean Partidu Komunista, erreferentzia obligatu bat izan da gu guztiontzat: partikulazki gerraosteko "ezker berri", "ezker abertzale" edo nahi den bezala deitzeko horiek denak (HB, EE, trotskistak, maoistak, etab.), haiekin erreferentzian sortu eta mamitu dira (ez eskusiboan). Historia guzti horren sentidua ageri da orain zalantzan.

Oraingo kontuak utzirik, halere, urrutikoekin enplegatuko gara.

## Abertzale gehi sozialista?

Gure belaunaldia, esango nuke, bere lekua bilatu eta definitu beharrean, desarroilatu zela, gerra ondoan. Abertzaletasuna bazegoen: baina beste modu batekoa bilatzen zen. Ezkerra ere bazegoen: sozialismoa, komunismoa. Baina beste modu batekoa bilatzen zen hori ere.

Bat aipatzeko (hildako bat; hildakoek edukitzen duten neutaltasunaren abantailarekin) Rikardo Arregiren gogoeta aipa genezake. Sinplegia litzateke eta ez dut esango "abertzale sozialista" izan zela (edo "sozialista abertzalea"). Zalantza gabe terminoen sentidua gehiegi aldatu da denbora honetan. Zuzentasun ez esan daitekeena da, ordea, ezpairik batere gabe, Rikardok, bere posizioa definitzea, bai abertzaletasunaren eta bai sozialismoaren (ezkerraren) ondarea, biak batera bereganatuz, bilatzen zuela. Bi tradizioen oinordeko nahi zuela bere burua. Orduan ez bait zen, gaur menturaz dirudien bezain arazo sinplea. Abertzaletasuna eskuindar, katoliko, erreakzionarioa zela, dogma bat zen ezkerrarentzat; ezkerre funtsean komunista dogmatiko, stalinista, antidemokrata, antikristaua zela, beste dogma bat zen eskuinarentzat (are "euskaldun zintzoentzat"). Rikardok, halere, edo haren gogoetan bere lekua bilatzen zuen haren belaunaldiak, biek batera nahi zuen bere burua definitu: abertzale gehi sozialista. Sozialismoa esaten denean, sozialismo marxista ulertu behar da: batik-bat, PSOEek berak oraindik marxista aitortzen zuelako bere burua; gero, komunistak izaten zirelako, hemen de fakto agertzen ziren sozialista ia bakarrak.

Ordurako hasita zeuden berriketak, ezker/eskuinak berez-teak sentidurik ez omen duela politika modernoan. "Horrelako hitzak erabiltzen dituztenak, gehienetan eskuindarrak eta erreformistak izaten direla, teknokratak ez baldin badira", osteratzen zien Rikardok (berak aipatzen ez bazuen, Alain-ena zen ateraldia: "la première idée qui me vient est que l'homme qui me pose cette question n'est certainement pas un homme de la gauche"). Bazekien, beraz, berezkuntza horrek agian zein mailatan edo eratan sentidurik ez duen, baina berezkuntzari eta horren balioari eutsi egin nahi zien espreski. Guztiz ohartun izaki gainera, une berean, zenbait kristau-demokrazia ezkerrera lerratzen zela; aitzitik, "Europa-ko zenbait sozialismo eskubira begira jarriak zudela" (1965 urtean), hots, eskuinak ez ezkerak zirela posizio tinko aldaciznak.

Utz dezagun. Kasik balio arkeologiko hutsa du seguruenik, urteotako ideien historia batean saiatzeak, zer geratu den ikusita. Dena dela, alde batetik Rikardo Arregi eta beste gazte andana bat dago, "ezker abertzale"ra ekarri duen ahalegin teorikoa

egiten. Bestetik, horixe interesatzen da hemen, ahalegin hori boikotatu ezezik, sabotatu egin duen "internazionalismoa", sozialismoa, "ezkerraren" jabetasun ofizial harro batetik, "burgestxikikeria" edo aldeanismo abertzale horiek olinpikoki mesprezatu. Burges-txiki (abertzale) sentimental subjeliboi buruz-buru, berak sozialista "zientifikoak" bezala hotz-hotz agertzen zirenak, "elizgizon berriak" eta "klero berri bat" bezala craso izan ditu Rikardok iada orduan. Horien sozialismoa liburretan oinarritzen zela, ez errealtatean, osteratzen zien haserre. Laboratoriokoa zela sozialismo hori. Dogmatikoa. "Mesfida gaitzen bere burua 'zientifikotzat' izanik, gaintzeko guziak kondenatzen dituztenez".

Baina orduan, horrela mintzatzen ausartzen zirenak, erreakzionario batzuk ziren. Edo engainatuak. Zinezko errealtatea sozialismoan eta Soviet Batasunean ezagutzen ez zutenak, informazio kapitalistak atzipeturik. Edo burges-txiki subjelibistak.

Asko umilatu du "ortodoxiak" urte horietan gogoeta berria, Rikardoren testuetan senti daitekeenez. Umilatu, hain zuzen. Status bat (kasu honetan "egia", "zientzia") segurtatuta daukanaren aulki goitik behera iraindu. "Sozialismoaren monopolioa dutela, uste dutenak: hauek dira sozialismoari kalte handiena egiten diotenak", Rikardoren azken aipamen mingots bat oraindik ekartzeko.

Seguruena denoi somatzen zaigu erdeinu haiek sofritu izanaren marka. Bestetan ez dakit, mesprezua arma politiko zaharra da Euskal Herrian. Horren ekoizpena da, esaterako, batzuek oraindik hitzen komedia batean beren buruak inola ere ez badituzte "nazionalista" aitortu nahi, baina abertzaleak bai. Terminuon usadio dogmatiko batek uztarpetuta. Tabuaren ikara sakratua.

(Honelakoetan, hasita dago desonestasun intelektuala: elemelerien zirkoa).

## Desdefinizio berrietara

Leku bat, edo jarrera bat, definitzea, erreferentzi-sistema bat hesitzea da. Mugatzea. Errazena, beraz, lehendiko esperientzia,

eredu, doktrina batekiko lortzen da definitzea. Zenbat harekiko berdinago eta errazago, noski, diferentziak arrazoitu beharrik ere ez bait zaizu geratzen orduan.

Koka gaitezen 60. urteetan: ezkertiarra izateko, errazena komunista egitea da. Hori lehendik dagoena da. Ez daukazu zeuk posizio bat pentsatu beharrik. Egina dago eta nahikoa duzu sartu. Segurtatua dago, hori ezkerria dela, eta ez daukazu problemarik. Lehenengo egunetik "situaturik" zaude. Askok horixe egi-ten zuen.

Ordaindu ere, hala ordaindu behar izan du gero Partidu Komunistak. Orduan errazena egin zutenek, errazena egiten jarraitu dute gero: etorri ziren bezain erraz joan ere dira. Komunismoak orain ez bait du sozialki "situatzen". (Aspalditxoko "orain" bat da hau). Situatzenago duten definizio eguteragoetara hegatu dira txoriak. (Zozoak ez ziren, eskierki: bai "biligarroak");

Dena dela, Asanblada, eszizio, absortzio, likidazio eta ez dakit zer beste zio-urte nahasiotan, ortodoxia modu batzuk osatu dira ezkerrean, elkarren kontrarioak, baina bakoitza bere baitan erabat ziur bere zuzentasunaz. Ortuaz. Bromak aparte, azken ebazpen desberdinetara iristen badira ere, harekiko, eduki, funtsean berdina eduki dute erreferentzi-sistema: marxismo-leninismoa, doktrina, eta iraultza sovietarra, eredu. Honetan bat etorri dira Euskal Herriko Alderdi Komunista diferenteak (PKtik trotskismora, maoismora eta EIARA, EERaino beharbada). Gorabehera horietan ohargarriena zera izan da: ortodoxia dogmatiko klasikoena kordokatzen hasi zenean (marxismo sovietarra), haren kritikan sakondu ordez, neo-ortodoxia are dogmatikoago batzuetara eskapatuz nahi izaten zutela batzuek salbatu, erradikal-tasun eta "zientifikotasun" berrietan errefuxiatuz: orduan Mao, Althusser, Gramsci, bihurtu dira Autore inspiratuak; Txina, Albania, Kuba, ereduak. Eta hain zuzen "neo-ortodoxia" erradikalen hauetxek izan dira eskuarki, gutxiena iraun dutenak, tximista batean denak "razionalitate"an bersituatu dira eta (oraindik ez dela bukatu, ematen duen bersituaketa batean, oraintsu EETik PSOera pasa direnen arrazoiak sinestekotan), "leial" gutxi batzuen hondarrak salbu.

Hori dena libre dago, noski (demokrazian gaude!) eta, gainera, zuhurrarena omen da zuzentzea. Zeinek uka?

Bakarrik, hemen, inoiz ortodoxia marxistaren eremuetatik peregrinatu duen edozeinek, ibilitako bideen eta zuzenketaren esplikazioa zor du. Esplikazio hori da, nik oraindik inori aurkitzen ez diodana. Eta hori ematen ez den bitartean, kanbio guztiak oportunistak hutsak dira.

Esplika nadin, neu behintzat. Kontua ez dago planteatzerik arazo biografiko edo psikologiko bezala: gazte ginen eta maizta zen gainera. Ezta kointurala ere: frankismoa zen eta sistemen itxitasunak, erreakzioz, edo buru egin beharrez, etab., planteamendu sinplifikatu batera sarraraz gintuen. Izan liteke egia. Baina hori, umekeria ez bada, ezer interesatzen ez dena, da. Ez dio axola arazo etiko gisa ere: alegia, beharbada ez da oso karaktere morala, konbertsio horietan erakusten dena, bidean hainbat kadabre material eta ideal kostarazi duen ideologia eta politika baten auzian. Badirudi, konbertsioak ez lukeela penitentiaren bat gabekoa izan behar. Baina hobe da eskua sasi horretan ez sartu ("frankista konbertitu demokrata"z beteriko demokrazia batean). Jokoan zinez dagoena, elkar ulertu nahi badugu, moraltasun edo inmoralkeria intelektualarena bakarrik da, pertsonenganako errespetu guztiz, baina arrazoienganako tribunal kupidagabez. Bihotzak eta kontzientziak, ez digu axola nola konbertitzen diren puntu batetik bestera; puntu batetik bestera doktrinak eta arrazoiak nola "konbertitzen" diren, aldiz, biziro interesatzen zaigun auzia da. Behar du izan.

Hau da, eritziak, ondo dago, edukitzea eta aldatzea. Gezurra da, toleratzerik ez dagoena. Moralki taxa gabeko jende askok bait dirudi gaur "ezkerrean" intelektualki tranposoa, desonestoa.

Horixe da, ez besterik, diskurtsu anbiguo eta ekilibrista saieszkerkiar baten azpian salatu beharra dagoena.

Modu askotan egin liteke ekilibrista hori. Modurik inuzenteena, edo penagarriena, ezker abertzaleko publikazioen baten aldi behin somatzen duguna da: zerbait tonu kondeminatorioan informatu behar, eta ezin egin, "aliatuarena", edo "ereduarena", edo ez dakit zerena, delako. Diskulpatu egin nahi,

eta ezin hori ere. Historiak signifikazio inmediategia duelako etxean (Txernobil, Letonia...: gezurrarekin jolasean egia). Egiaz, geure posizioa definitu dugun erreferentzi-sisteman gure "eredua" eta abangoardia soviet Batasuna baldin bada, jokatzea dago ondoriokorki, ridikulua egiteko arriskuarekin ere. Eta ez bada, jokatzea dago baita ere ondoriozko bidez, ogiari ogia esanez, zopa beroari bezala informazioari putz egiten ibili gabe hozteko.

Hori modurik inuzenteena da halere. Deskontzertatua, defentsiboa, inofentsiboa. (Informazioaren tratamendu teoriko gisa: manipulazioa eta tratamendu propagandistiko bezala ez naiz sartzen, gezurrik gaiztoenak izaten bait dira erdi-egia anitz). Eta debilitate bezala edozeinek aisa igarri egiten duena.

Bai baina ez jokabide hori desdefinizio bat izanik, eta desdefinizioaren eragilea sozialki, halere zinezko problema ezkerrean ez dira beren posizioei eta definizioei eutsi nahi dietenak, erresistentzian dirautenak. Definizio denak pikutara bidali dituztela irudiz, atzo "kapitalismoaren gestore" eta "inperialismoaren morroi" bezala kondentatzen zituztenetaraxe orain berak pasatzen ari direnekin, aldiz, problema dago: herri honetan, daukan polemika-historiarekin, burruka ideologikoekin, onestasan intelektualarena dago batez ere problema.

### **Teoria bat ez da txaketa bat. Sozialismoa, lehenago, teoria ekonomiko eta politiko alternatibo bat zen**

Ortodoxiaren idazkaria izandako bati gaurko egunkarian irakurtzen diot: periodo historiko bat istera doa, ez dago eskema zaharrekin jarraitzerik, ideia berriak behar dira, proiektu berriak. Ikus Gorbatxov. Mundua aldatu egin da. Carrillo-ren PTEko komunistak (ni irakurtzen ari naizena gipuzkoarra da, PKko klasikoa) elkarrizketan hastera omen doaz PSOErekin. Ezkertiar "guztien" konbergentzia baterantz jo beharra omen dago, izan ere. Komunistek beren paper historikoa bete omen dute. Baina Soviet Batasunak berak erakusten du, eraberritu beharra dagoe-

la. Ahitu egin omen da "sistema", beste sistema batean bilatu beharra omen dago nola jarraitu aurrera, etc., arrunkeria borobilak.

Zer ote da, lehengo "inperialismoaren morroiak" eta "burru-kari anti-inperialistak" batera biltzen dituen, horrela birdefinituriko "ezkerra"? Zein, birdefinizioa? Eta *Grapo* biltzen ote du "ezker guzti" honek? Eta HB, IKI, EMK?... PCE bera?

Rekalde ikastolen arazoa eztabaidatzen ari da ETB espainolean Aulestiarekin, eta Eusko Jaurlaritzan "ezkerra" egotca zein positiboa izan den, konbentzitu nahi du lehenak bigarrena. Badirudi Aulestiak ez duela oso ong igarri ahal testuinguruan zer signifiktzen duen "ezkerra"k (neuk ez dut hobeto ulertzen), eta Rekaldek zer den ezkerra, esplikatzten dio: politika bat pobreen alde, desanparatuen alde, gizarteko ahulenen eta baztertuen faboretan... Jelatuta geratu naiz. Hortxe bukatu da. Baina hori karitatea da. Hori ez da ezkerra. Paperak eta sentimenduak tranpeatzen ari gara hemen. Oraintxe bertan, politika horrela definituko lukeena Jomeini bat izan liteke. Islamismo iraultzaile guztia, populista, Gadafi-rekin hasita. Jendoste arabiar depauperatuen iraultza. Peronismo edo Nasserismotik ez dakit noraino, zein eskematan kontsidera litezke populismo horiek "ezkerra"? Eta eskola-politikan hori ezkerra bada, politika ekonomikoan zer da ahulena zanpatzen dituen birkonbertsio industrialä?

Egun batzuk geroago, sermoi berbera Mitterrand-i entzuten diot: "berriro aldarrikatu nahi dizuet, ez dugula ahaztuko, ez dugula inoiz alderatuko gure tradizio historiko aberatsa, gizarteko behartsuenen errebindikazioen alde", etab.

Zer gertatzen da? Sozialismoa etikoki bakarrik ulertzen dela, errebindikatzten dela. Sentidu politiko eta ekonomiko garbirik ez zaiola geratzen eta haren esanahi etikoa indarberritu nahi dela.

Hori ez da indefinizio bat bakarrik. Desdefinizio egoera bat da. Eta lotsagabekeria bat izan liteke (imagina: sozialista frantsek agintean abertzale algerino desesperatuen aurka: burges batzuk abertzaleok, "ahulenen aldekoak" sozialista haiek). Nik ez bait dut uste, liberal bat, kristau-demokrata bat eta sozialista bat berezten dituen beren moralitasuna denik, beren sentimendu etikoak (jende txiro eta apalekiko). Bestela hoberena, sosialis-



moaren terminoa, Hirugarren Mundura borondatezko doazen lepra-zaindari, moja, erizain, laguntzaile nekazari eta enparaduenzat erreserbatzea, izango da...

Horixe bait da, hain justu ere, gertatzen ari dena, eta ez dena aitortu nahi. Historikoki sozialismo modernoa inspirazio orokor etikoa bezala loratu da bere udaberrian. "Utopikoa" bezala: helburu politiko, ekonomiko eta sozial nahikoa indefinitu batzuekin, eta moralki arrazoituz haien errebindikazioak. Etika humanista batean, askotan kristauan, nahiago bada, elementu laizista batzuekin. Baina gero, eta lehen-sozialismo horrexen kontra hain zuzen, aurrenik, eta liberalismoaren kontra une berean, gero sozialismo "zientifikoa"k Estatuaren eta ekonomiaren definizio batekin definitu du bere burua, historiaren teoria determinatu batean kokatuz horiek.

Liberalismoa Estatuaren eta ekonomiaren definizio bat den bezalaxe, Estatuaren eta ekonomiaren definizioz definitu du sozialismoak bere burua: produkzio-hondasunen jabeago pribatua versus publikoa (soziala); merkatu-ekonomi librea versus plana, gidatua; Estatu begirale soila versus interbenitzailea sozialki eta ekonomikoki.

Bi "sistemen" berezkuntzaren garbitasun hori galdu egiten da, sozialismoan errebisionismoa eta liberalismoan Estatuaren interbentzioa sozialki, gero ekonomian ere, onartzen direnetik. Engoiti sozialismoa ez da kapitalismoa birrintzeko eta gainditzeko proiektua, ezpada hoberen-hoberenean erreformatzeko eta perfektzionatzekoa. "Sozialistak" ez dira antikapitalistak: berak bilakatzen dira kapitalismoaren gestore azkarrenak... Kapitalistak eta sozialistak, ez elkarren etsaiak, bata bestearen osagarri eta aliatu aberaskorrenak bihurtzen dira sistema beraren barruan eta zerbitzuan. Kapitalismoaren sistema alternatiboa izan ordez, alternantzia sistemaren barruan, bilakatzen da sozialismoa. Sistemaren (efikaziaren) etsaiak, orain, izan litezke klase nagusi feudal atzerakoi batzuk, edo egitura ekonomiko zaharkiloak, etab., edo baita jende xume ahulenak beren protestaz ere: sindikatu batzuek izan litezke horiek (Gobernu sozialista baten kontra prezeski greba orokorra egin behar izateraino xaxatuak), langabekoak, inmigrazio ilegala, gazteak. Sistema, efikaziak definitzen du; efikazia, gestioan erakusten da. Zeharbidez, arrazoizkotasun

eta zuzentasun bakarra politikoki zein ekonomikoki sistemari aitortzen zaio. Kapitalismoari. "Sozialismoari", orduan, moralari apelatzea besterik ez zaio geratzen, kapitalismoaren kontra.

## **"Moral" ezkertiarren historia dudagarriaz**

Erraza bezain eufemismo krudela, injustua, odol-gaiztoa dirudi ("inmoral", nahiago baduzue), "sistema ahitu" egin omen delako esplikazioak.

Sistema batek bere biktimak ditu. Edozein sistemak. Sistema-ren esplikazioan, esplikatu egin behar da prezioa ere. Ez da sekula nahikoa esplikazio, irabazlearen autojustifikazio soil gisa, aldiari aldiari, balio duen arrazoia. Horri apologia esan dakioke. Oportunismoa esan dakioke. Ez, arrazoia.

("Ahitzea"renak, bestalde, arrazoi topiko bortitza bilakatu dirudi egunotan: bestearentzat mezu abertzalea ahitu da; Inaki Martinez-entzat EEn proiektua. Baina gauden sistema sovieta-rraren ahipenarekin).

NON ahitu da? Euskadiko eta Espainiako komunistak, Euskadin eta Espainian ziren komunistak. Pentsatu beharko da hemen zeuzkatela beren arrazoiak eta xedeak. Ez zeudela komunismoaren alde lurralde exotiko baten liluraz, erromantizismoz: baizik filosofia batengatik, printzipio batzuentzat. Eta horien bidea Soviet Batasunak irekitzen zuela munduan, uste zutelako, egongo ziren haren alde. Printzipioak berak Soviet Batasunean zer gertatzen ziren menpegabeak izango ziren (hain zuzen, han gertatzen zena "interpretatzeko" beraiek balio zutelakoxe, besteak beste). Non geratu dira orain filosofia hori eta printzipio haiek? Eta printzipio haien izenean zapuzten ziren abertzaletasuna, demokrazia "burgesa", etab., garai batean hain "burgestzat" irainduak denak eta subjektibistatzat erdeinatuak, zeren izenean gutxiesten dira oraino, eskuindar, atzerakoi eta auskalo zer gehiago eritiz beti ere?

NOIZ da sistema hori ahitu, Euskadiko komunistentzat? Zeren-eta, beste sozialista batzuentzat, jaio egin bait zen ahiturik

eredu soviatar hori. Edo Lenin-en Politika Ekonomiko Berriaren programan bertan ahitu omen bait zen, jaio eta berehalaxe. Beranducnik ere, bestela, Idazkaritza Nagusiaz Stalin jabetu zenean, Trotski, Sinowiew, Kamenew, Bujarin, Riokow lehiakideak zokoratuz. Alegia, 1936-1938 aldeko abangoardia komunistaren garbizioek eta auzitegi herritarrek, 1928-1937 arteko plan ekonomikoek, deportazioek, Gulag Artxipelagoak, etab., ereduaren ahipenik erakusten ez bazuten komunista euskotarrentzat, orain zerk erakusten du? Nolatan pasatzen dira Errepublika Baltikoak eredu bat izatetik eredu kontrarioa izatera?

(Arazoa da, aspaldi leporatu izan zaiela "komunistei", edozer gauza justifikatzeko beren erraztasun "dialektikoa": erraztasun horren kapitulu berri bat al den, ala zinez beste liburu bat, orain idazten duena).

Sovietarrek berek, historia horretan sartuta, ulertzen da, agian ezin izan dutela orain arte historia horri buelta eman ahal. Han lepoa arriskatzen zen. Baina barruan eta azpian ez zeudenak eta halere (Euskadin, Frantzian, Espainian) "Partidu gidaria", Proletargoaren Diktadura, etab., atzo arte beren doktrinan defendatzen aritu izan direnak, zertan dakuste atzo ez eta gaur ahiturik sistema hori, doktrina hori?

ZERTAN somatu da orain sistemaren ahipena? Ekonomia soviatarren, Alderdiaren Diktaduraren, "errusismo" kulturalaren, Nomenklaturaren kritikak, orain baino lehenagokoak dira denak, politika nazionalen. Internazionalen, iraultzaren teoriak esaten zuen, kolonietako burruka anti-inperialistak bat egiten zuela metropolietako langileen burrukarekin: langileon mugimendu metropolitarrak gehi askatasun burruka nazionalak (anti-kolonialek) bateginik, iraultza mundiala eragingo zutela, martxa horren puntan Soviet Batasuna zola progresoa irekitzen. Horregatik, Soviet Batasunari atxeki behar zitzaion, cutsi, bermatu, kosta ala kosta. Sakrifizio handiekin izanik ere, onartu beharra zegoen, Soviet Batasunari komeni zitzaiona, munduari komeni zitzaiola. Guk aspaldi esaten genuen, munduaren historia bat-ik zentzu horretan ez zegoela, inperialismo berri bati atcak irkitzea zela (gehienez *etika* egon zitekeela bat, gizadi guztiarentzat, baina horixe ez da erabaki eta definitu nahi izan hain zuzen ezkerrean inon baino gutxiago: etikak ere klaseen ara-

berakoak zirelako). Fidel Castro-k berak arestian bedeinkatu egin zuen Txekoslovakia-ren inbasioa. (Orain Varsovia-ko Ituncok berek oker historikotzat jotzen dizute). Sozialismoa bloke hertsian bakarrik aitzina zitekeen. Afganistan-go okupazioa, sistemaren ahikorragoa izan ote da, Hungaria eta Txekoslovakia-koak baino?

Kontua da, izan ere, zer den zinez kanbiatu dena, koiuntura axalgaineko batzuk aparte. Inbasio guzti horiek eta edonolako interbentzionismoak periferietan, beharbada hamar milioi hildakotik gora kosta diren goseteak, Gulag, opositore politikoen psikiatrikoak, lau mila ofizial poloniarren Katyn-go masakrea (horren errua alemanei leporatuz), "ezkertiar" batzuk Europan gertu egon badira beren printzipioen eta proiektuaren izenean isilik pasatzeko, non geratu diren printzipio burdinezko haiek, jakin nahi genuke, edo zer aldatu den munduan orain printzipio haien zat, guzti hori baino pisu handiagokoa.

Gose greban Grapo-ko presoak hiltzen ari dira gartzelan; iheslari politikoak deportatu egiten dira, inolako auzirik edo begipe legalik batere gabe; Estatu demokratikoaren (beraz, "legearen") babespean, GALEk asasinato politikoak egin eta kobratu egiten ditu, etc.: berriro "ezkerrak" isilik pasatzen ditu horiek ere, are berak ditu gerizatzen, banalizatzen, anparatzen, Gobernu aulki goren-gorenetatik, berdin Gobernu gabe oposiziotik, orain ere printzipio batzuen eta proiektu sakratu batzuen izenean, "demokrazia" salbatzeko bloke hertsia-hertsian jokatu behar da eta. Jakina, hemendik beste hamar urtera edo, sistema hori ere ahitu egingo da (alegia, trapuzahar gehiegi egongo da bistan, ez da harekin identifikatuz jarraitzerik egongo, aukera hobek egongo dira eskailarak igotzeko), eta oraingo ezker batzuk orduko beste ezkerren batera konbertituko dira. Horra Europako "ezker" askoren "moralak".

Eskandalagarria izan da eta da hemengo "ezker" baten harrokeria, "eskuina" iraintzeko (PNVri, edo PNVko buruzagi batzuci, libre dago edozein iseka sentidu honetan), nornahi txoripitok ezkertiar bezala beste gabe burua tentetzeko, "ezkerra" izatea ez dakit zer balitz bezala, historia oso zikin baten herederok izatea besterik. Ezker baten aspaldiko karakteristika, bere fribolitate moralak izan da hain zuzen.

Guri, halere, konbertsio guzti horietatik, ez zaigu onestasan morala interesatzen, onestasan intelektuala baizik. Desarroilo biografikoak ez, arrazoiaren desarroiloa baizik. Halere:

### **Inmoralak da horrela norbere burua moral definitzea**

“Gu, moralak” (txiroen aldekoak, etab.), esaten duenak, “zuek besteok, inmoralak”, adierazten duelako: eta, ondorioz, “gu, gizonak; zuek, desgizonak, esplotatzaileak, piztia harrapakariak”.

(Nietzsche-k esaten duen arima esklabuak, horietxek dira: besteari moralatasuna ukatzeko amorratuak).

Ezkerra tradizionalki bi muturren arteko teinkan ibili da: rigoroski zientifikoa izateko pretentsioz, mutur batean, tradizio razionalista, laizistaren oinordeko garbi agertu nahirik; bestean exigentzia humanista, moral, filantropiko “ilustratuen” ordezkari legez, inhumanoa kontsideratzen zen gizarte batean. Baina sozialismo modernoak, “utopiko”aren aurka hain zuzen, oroz goitik zientifikoa izan nahirik desarroilatu da. Sozialismoa, esan ohi den bezala, “ez da gizonaren galdakizun moral subjektiboa, baizen bai historiaren ezinbesteko jomuga objektiboa”. Bata bestea baino zientifikagoak izatearren sortu dira, gero, sozialismo modernoan, eskola diferenteak ere: errebisionismoa, leninismoa, etab.

Ez dakit gogoratu beharrik egongo den: sozialismo “humanista” bat egon da, etikoki motibatua eta baldintzatua espreski. Hain zuzen gerraosteko abertzaletasun gazteak sozialismo humanista demokratikoaren bidetik ekin dio. Baina “ortodoxoek” erreformistatzat eta subjektibistatzat erdeinatu dute. Burgesiaren aliatutzat jo dute. Txekoslovakia-ren inbasioaren ondoren, protestatzeko beste biderik ez eta, Jan Palach gazteak bere burua hil zuen publikoan. Rikardo Arregik samintasunez ikusten zuen bere inguruko ortodoxoen “zientzia”: “Politikagintzan bere burua zientifikotzat dutenak, gisa horretako ekintzak moralismotzat daduzkate. Eta horregatik kondenatu egiten dituzte eta mesprezatu ere bai. Politikagintzan ‘zientifikoa’ izan behar da (ez dut ukatzen)... Paradoxa baldin badirudi ere, zenbat eta gutxiago

egin, orduan eta zientifikoago. Laboratorio hutsean gelditzen dira eta ez da harritzekoa. Jakina, Lenin eta Marx jarriko dituzte adibidetzat”.

Moralak ez dauka zerikusirik zientziarekin: sozialismoak zientziarekin dauka ikuskizunik, ez moralarekin, sozialismoaren hemengo maisu ortodoxoentzat. Beste tradizioa (humanista, etikoa) arbuiatu egin dute. Beren tradizioa zientifiko hutsa zen, Marx-en eta Lenin-en jarraibidean.

Sozialismoaren klasiko moderno handiek, nahikoa erradikal-ki formulatu izan dute beti beren “inmoralismoa”. Hots, beren teoriaren karaktere politiko eta ekonomikoa, zientifikoa, ez moralista (moralista). “Moraltasuna” gehienez ere historiak bere baitatik ematen duen, produzitzen duen zerbait (emaitza kulturala) da; ez gizonak aldeaz aurretik hara eramaten duena, aportatzen duena bere egin-gogoekin (subjektiboa). Gure artean maiz aipatu izan da Marx-en testu kupidagabea India-ren okupazio kolonial britanikoz: “Ciertamente, al causar una revolución social en el Indostán, Inglaterra sólo estaba motivada por los intereses más viles, y fue estúpida en la manera de imponerlos. Pero no se trata de eso. La cuestión es ésta: ¿puede cumplir la humanidad su destino sin una revolución en el estado social de Asia? Si no es así, cualesquiera que hayan sido los crímenes de Inglaterra, ésta fue la herramienta inconsciente de la historia al producir la revolución”.

Beraz, moraltasunaren produkzio historikoa, progreso ekonomiko objektiboaren ondorio bezala ulertu behar da, ez aurretiazko. Ez dago historiari hurbiltzerik —ez interpretatzera eta ez han parte hartzera— aurretiazko moralekin. Haren ibili beharrezko bideak objektiboak dira, hots, naturarenak bezain gutxi dira moralak eragindakoak (kontzientziak). Amoralak dira, “teknikoak”, deterministak. Eta absurdua bakarrik izango litzateke, historiaren martxan kontsiderazio moralekin interbenitu nahi izatea, ekonomiaren legeak “humanizatu” nahiz adibidez. Ekonomiaren zama, premia duen bezalakoxea da. Historiak, beharrezkoa duen prezio justua kobratzen du; zor zaizkionak bakarrik hartzen ditu zehatz eta mehatz une bakoitzean biktimak. Hori legea da, alferrik dira negarrak eta lantueak, edo protestak

eta utopiak. Beste Marx-en alegoria garratzaren arabera: "Cuando una gran revolución social haya dominado los resultados de la época burguesa, el mercado mundial y las fuerzas modernas de producción, y las haya sometido al control de los pueblos más avanzados, sólo entonces dejará de parecerse el progreso a ese horrible ídolo pagano que no bebía néctar si no se lo servían en los cráneos de los asesinados".

Demokrazia ez da "moralagoa", esaten nuen lehengo batean, beste sistema batzuk baino. Inmoral da, esaten dut orain, sozialismoak bere burua beste ideologien kontra (liberalismoa, kristau-demokrazia, abertzaletasuna, kontserbatismoa, komunismoa) "moral" eta santua bezala definitu nahi izatea.

Gezurra da. (Desir-ideia bat da). Gezur hori zergatik beharrezko bilakatu zaion sozialismoari, hori da kontua.

## Mihi bi aho batean

Birmoldaketa industrialaren giza kostua gaitza izan da eta da. Faktura (humanoki) hain zuzen gizarteko sektore ahulenei pasatzen zaie: beste aukera gabeko langile, emakume, jende adinean helduko edo gazte inoiz heldu gabeko lanera. Hainbat burruka ikusi dugu, desesperazioak eraginda. Grebak. Polizia langileei egurka eta pote tiroka.

Ez dugu egingo kronika bat. Fabrikak itxiarazten dituen, jendea kalean uzten duena lan gabe, langileen aurka polizia biddaltzen duena, errepresioa agintzen duena (eta makina bat astakeria gero "justifikatu" egin behar izaten duena Barne Ministerioaren bitartez), "sozialismoa" da. Ez dira "burgese kapitalistak".

Sozialismoa hain zuzen bere sindikatu tradizionalarekin muturtzera (UGT), langile mugimenduari buruzkatzera, heldu da, lehenengo berak iraultzarekin batera mentatu ohi zuen greba orokor legendazkorainoxe. (Pikutara legenda heroikoak!). Pultso zail bat. Baina sozialismoa ez da bigundu. Gogor egon da langileekin. Unc berean, Kaxek eta Bankuek inoiz ez bezalako irabaziak dituztela, irakurtzen dugu prentsan egunero ("los Bancos

del Estado Español acaparan los primeros puestos de la clasificación internacional de las instituciones más rentables" gaur berton: horiek ote dira "gizarteko ahulenak"?). Soldaten egoera kontrolatu motxak ez dakigu zer laguntzen omen du desinflazten inflazioa eta (Diozesietako Batzorde Sozialak gure arteko "pobrezia erreazalaz" hasi dira mintzatzen) ekonomia boga-boga doa, Europari begira. Industriak ere osatu bide dira, ondo gabil-tza, urtean-urtean gorago doaz enpresarien etekinak, hori oso positiboa da. Eskuina sekula atrebitu izango ez zen "eskuineko" politika, ausartu omen da egiten sozialismoa, komentatzen da. "Behar-beharrezkoa zen!", adituen ustez. Indarberritu beharra ci zegoen ekonomia. Egokitu beharra, Europar egoteko.

Historia guzti honetatik axola zaiguna: ekonomia objektu beregain propio bat bilakatu da diskurtsu honetan. (Eta hori da politikoen diskurtsua orain). Bere-bere legeak dauzka. Ekonomiaren tratuera, zientifikoa da. Sozialista izan, liberala izan, ekonomiarekin nola jokatu, ideologiarekin ez dauka zerikusirik, esaten da, zeregin teknikoa da. "Ondorioak oso gogorrek dira familientzat, badakigu: baina ekonomiak horixe agintzen du". Zientziak agintzen duena, egiten du (agintean) sozialismoak. Zientziak ez dauka alderdirik, apolitikoa da.

Horrela, ekonomia, "moral"etik landa jarri da. ("Utopia" humanistetatik). Sozialisten diskurtsu ofiziala efikazia ekonomikoa-rena bihurtu da. Adituarena, teknokratarena. Alderdi sozialisten eta kapitalisten artean diferentziarik ez dago.

(Ekonomian "naturalismo" zientifikoa era fatalista honetan onartzen bada, lege zientifikoen neutrotasuna, horien aplikazio estriktoa efikazia beharrez, eta legeon "biolentzia" ekonomikoa jasan beharra ongitasun orokorraren izenean, gero koherentea da arrazoi ekonomikoen mailan argudiatzea biolentzia politikoaren aurka, inbertsioak gutxiarazten omen dituela adibidez, baina oso zaila, haren eztabaidari sentidu "moralik" eman nahi izatea, ez efikazia soilarena: oraingo diskurtsuaren katramiletako bat da).

Teoria sozialean osoro sakrifikatu den karantz ideologikoa, langilezalearena, apalen babeslearena, pobreen eta gaixoen errebindikazio sozialena, orain atzeko atetik moralitasun tituluz



egiten da ahalegina errekueratzen. Teatro hutsa diren "deskamisatuen" elementuak predikatzen dira, ukabila jasota ospatzen dira mitinak, etab.

Aho batean mihi bi bezala, sozialismoak aurpegi bi hartu du publikorako: bat hotza, tekniko, kabinetekoa, "politikoa"; bestea onbera, adikorra, paternalista. Garrantza eta gozoa. Efi-kaza eta morala. Polizia sekretua eta aita parrokoa, Guerra eta González. Baina biak batera egotekotan, Jano-buru gisa.

Elektoralki ongi muntatua dela, erakutsi duen konbinazio gazi-gozo hau, diskurtsu inkoherente baten soluzio inkoherentea (oportunismo guztietara zabalik), ura eta sua, justu-justu tradizionalki sozialismoak liberalismoari salatu ohi zion iruzurra da. Ekonomiaren "autonomia natural"arena. Fetitxea.

## Gezur aldi honetan

Ez da borondate on ala gaizto kontua, norbaitek horrelaxe hartu nahi badu ere. Funtsean egoerari darion anbiguotasuna da. Krozkoaren zentzu bikoiztasunak, itzul-inguruak, ekibokoak, nahasketak, gezurra.

Errealitatea bera aldatu egin da. Egokitu beharra dago. Eduki da lehen definizio bat (errazagoa zena, sinpleagoa zelako, berrogei urtetako oposizio batean), baina kanbioari egokitzeko prozesuan, inseguru oraindik, lekua ongi hartu ezinda egoera isurkorrean, desdefinizioa nagusitzen da. Lausoa. Galdu da lehengo definizioa eta berririk oraino ez da asmatu. Irudi proteiko bat hartzen du diskurtsuak.

Abertzaleak gara eta, beraz, independentzia da gure aspirazioa, baina desfasaturik dago kontzeptu hori.

Autodeterminazio-eskubidea errebindikatzen dugu, baina printzipio gisa bakarrik, praxian beste batzuk dira soluzionatze-ko dauzkagun arazoak.

Gu ez gaude instituzioen kontra (instituzioak dira, agian, ulertu beharko da, gure kontra daudenak).

Sozialistak gara gu: hots, kapitalismoaren kudeatzaile zorrotzenak. Adaptazio prozesuetako indefinizioak izango dira. Behin behineko. Baina indefinizioak dira eta gezurrak dira. Definizio berriak lortzeko, egon beharra legoke zerbait. (Definizio indefinitu horixe nahi ez bada behintzat: igari egin eta erropa gorde batera egiteko). Alegia, «konfusioaren zeremonia» egunero gehitu baino beste zerbait.

Sozialismoari gagozkiola, nalanahi ere, birdefinizio espresoren batek ezinbestekoa dirudi edozein aldetatik. Ez dut uste, esaterako, behialako fobia antieuskaldunarekin jarraitu nahiko duenik. ("No podemos ver sin repugnancia ese espíritu de pequeñez y de miseria que informa a los llamados regionalistas - "abertzaleak"-, y todas las armas nos parecen buenas para combatirlos, desde la chacota y el ridículo hasta el argumento serio y contundente"). Hor ez bada, baina, non dabil orain? Nola definitzen du bere burua nazio-arazoarekiko? Non dabil PSOE, non Euskadiko Komunistak? Beste alderdi asko utzita, galdera bat horixe genuke sozialismo berri "bateratu"ari. Zein paper jokatu nahi du Euskal Herrian eta Euskal Herriari buruz?

## **"Euskal sozialismo" baten bila**

Urte batzuetan, literatura asko produzitu da "euskal sozialismo" bat bilatzeko ideiarekin. (Ez noa estudio bat egitera: apunte lerro batzu soil). Bi gauzari behar zion erantzun euskal sozialismoak: nazio-arazoari eta estriktoki "sozialari" (ekonomikoari).

Sekula ezin ulertu izan dut nola, baina egon dira "sozialismo abertzale" guztiz ortodoxo batzuk, marxista-leninistak eta "separatistak" une berean (independentistak eta prosovietarrak, elkar hobeto uletzeko). Urrunagotik hasteko, ia denetik egon da gure gogoeten odiscan: sozialismoa (marxismoa) eta abertzaletasuna elkartezinak zirela; egiazko abertzaletasun bakarra sozialista zela (proletaria), beste guztia ez izaki "nazionalismo burgesa" baino; euskal sozialismorik nahi izanez gero, bai sozialismoa eta bai abertzaletasuna (historikoak) zegoela birpentsatu beharra...

Orain azkeneko tesiaz interesatuko gara. Zehazkiago, ez abertzaletasuna nola birpentsatu nahi zuen, ezpada nola ideiatzen zuen gutxi-gorabehera sozialismoa ("euskal sozialismoa"). Hemen bertan ere, ordea, sozialismo "demokratiko"aren ideiarri bakarrik egingo diogu jaramon. Izan ditugun Althusserianoak, esaterako (marxista kritikoak, baina, nire kontzientzirako, "neo-ortodoxia" baten zentzuan) alde batera utziz. Esan dugu, ez genuela estudio historiko bat egin nahi. ESB, ESEI, eta antzekoak utzi eta lehenagoko denboretan ibiliko gara.

Nola posizionatzen zen euskal sozialismo demokratiko hau eredu sovietaerrari eta ortodoxiari buruz?

Gogora dezagun, marxismo-leninismoaren kritika desberdinak, eta kritikaren fase desberdinak, egonak zirela Europan hementxoak baino lehen. Aurrenik, sozialismo ez marxistaren tradizioa zegoen, marxismoaren bere kritikarekin (Ingalaterra-n eta Eskandinabia-n bereziki); gero, sozialismo marxista ez leninistarena, Lenin-en arbuio esplizitoarekin (bai jatorrizko "ortodoxoa"ren eta bai errebisionismoaren formuletan), hots, mendeberlean "sozialista" ohi deritzan Alderdiak eta doktrinak (*versus* "komunistak"). Anarkismoa(k) orobat, Marx-en teoriaren kritika partzialez eta, guztiaren gainetik, Iraultza leninistaren autoritarismoaren erabateko ukoz. Trotskismoa, hurrengo, Iraultzaren "desbiderapen" stalinista kritikatu, hots, burokraziak egin omen duen haren bahiketa.

Badute puntu bat guztiok eskuartasunean, amankomunean: demokrazia-faltaren salaketa eredu sovietaerraren teorian zein praxian. Kritika hori betidanikotsua izan da hortakoz. Episodio sonaturik ere izan du historia kritiko horrek makina bat. Mendeberlean bakarrik (Milovan Djilas eta gabe), Russell, Camus, Merleau-Ponty, Sartre, Garaudy, etab. 68az gero kritika horiek, bistan da, biziki ugalduta dira: burokratismoaren kritika, nagusi-kasta berri "Nomenklatura"rena, giza eskubideen zampaketa ikaragarriena, etab. Bide kritiko horretatik abiatu zen, 60. urteetan iadanik, "euskal sozialismo"aren bilaketa. Adibidearena baino balio gehiagorik atxeki nahi gabe, G. Hirurizar-en "Por un socialismo vasco" artikulutik aldatuko ditut ideia batzuk. 1967koa da, Branka-n. Kanpora uzten dugu artikulua horren desarrolotik "abertzaletasuna".

Sozialismo "zientifikoari" ("dogmático, pseudo-científico") sozialismo humanista orokarki kontrajartzen zaio doktrina edo teoria gisa. Hau ez da sistema orohartzaile bat: "el Socialismo humanista no es un dogma filosófico-político universal, monolítico, de pretendido cientifismo como el materialismo dialéctico", "el Socialismo humanista no puede ser un todo normativo". Ez da kredo bat, munduaren interpretazioan. "Ningún socialismo sobrevivirá si no tiene en consideración un verdadero humanismo que tenga en cuenta a su vez las exigencias de la dignidad del hombre y de la libertad".

Munduaren transformazioan, aldiz, bi puntu oinarrizko arbuizatzen zen eredu marxista-leninistan. Bat: Proletargoaren misio historikoaren tesia, agintearen eraldakuntzan. Hots, protetalgoaren diktaduraren tesia. Baina Marx-en tesia arbuizatzen da (eta sozialismoaren garapen-possibilitatea klase baten garapenarekin identifikatzea) historikoki eta soziologikoki faltsua delako, hau da, ez arrazoi etiko edo demokratikoengatik. "Iraultza" ekintza-aren eredu leninista ere zapuzten da beraz: "No como revolución de un partido-guía (que por una petición de principio o por la auto-atribución de un carácter de emanación mística de la mayoría, se considerara como la representación mesiánica del interés común) sino como adhesión de la mayoría del pueblo trabajador a una ideología-guía socialista integrada por el abanico de interpretaciones opuestas a toda forma social o económica despótica. Como adhesión a la implantación del Socialismo como necesidad racional, conforme a la razón; no mecánica. Como adhesión a una comunidad de ideas sobre el derecho y la justicia social, que es lo que, precisamente, constituye la esencia de la sociedad democrática real". Bi: autogestioa *versus* Estatu-burokrazia gidatzailea. "El régimen administrativo centralizado consistente en magnificar el papel del Estado, no puede ser, desde luego, la forma descada de la organización socialista de la sociedad".

Laburbilki: "El Socialismo posee una característica esencial: es el democratismo económico y político; el humanismo que debe desarrollarse y realizarse bajo una y otra forma".

Baina orduan hori dena humanismo "burgesa" zen. (Zergatik orain ez?). Ikus dezagun hurrengo alderdi nazionala eta sozialismoa.

## 1967: Iraultzaren 50. urteurrena

1967ko udan (*Branka* 5) Usako-k salatzen zuen: "Es un hecho conocido que los partidos comunistas han demostrado, y siguen demostrando, una especial incapacidad, no ya sólo para impulsar, sino incluso para comprender los problemas nacionales. Los comunistas argelinos (y los franceses, por supuesto) se opusieron el FLN, lo mismo que los comunistas vascos y los españoles, bajo la dirección de Dolores Ibarruri, se opusieron a la causa de Euskadi. Lo mismo se han opuesto en el Kurdistán, en el Quebec..." Lerro batzu beherago: "La tendencia de los comunistas a oponerse a los movimientos nacionalistas étnicos, calificándolos cómodamente de burgueses, es evidente".

Usako-k bi mailatan zeraman arrazoiketa: *praxiarenean* ("50 urteko esperientzia"), aitortzen zen sozialismoaren abantaila erlatiboa, mendebaleko "demokrazien" aldean. "Sería injusto no reconocer una real tolerancia *cultural*, un tanto extendida, por parte de los Estados comunistas hacia sus minorías étnicas". Baina tolerantzia honen beraren gorabeherak aipatzen zituen gero, koiuntura politikoen arabera; eta konflikto nazional edo etniartekoen kasu konkretu batzuk: Besarabia-ko arazoa Soviet Batasunean, albanesena Iugoslavian, Sinkiang-oa Txinan, etab., guzti horretatik ondoriatzeko: "esa política de tolerancia cultural de las etnias, está muy lejos del paraíso fraternal, sin contradicciones nacionales, equilibrado y libérrimo, de que hablan los libros marxistas". Artikulu honetan orain hogeitapiko urte duela aipaturiko kasu gehienak, berriro ari gara Glasnost aroan entzuten. Orain bezalaxe orduan ere bazeuden. Alegia, batzuentzat bazeuden; galdera, besteentzat zergatik ez zeuden, da.

*Teoriaren* mailan, historiaren filosofia marxista-leninistaren ezintasuna, salatzen zuen Usako-k, nazio-arazoak beren izari justuan baloratzeko. Izan ere, sozialismoarentzat, nazio-arazoak "lehenagoko fase" historiko baten problemak ziren. Orduan behar bezala konpondu ez zirelako bakarrik oraindik zirautenak. Baina berez —beren naturaz— burruka sozialistaren fase honen propioak, espezifikokoak ez zirenak. Ez direnak historiaren momentu honetakoak, baina iragan-aro baten hondarrak. Arazo

“desfasatu” batzuk ziren, beraz (“burgesak” hain zuzen). “Los marxistas-leninistas, consecuentes con su idea de que los problemas nacionales son un tanto pseudo-problemas, creen que no hay solución directa de los mismos; y estiman que sólo podrán ser *superados* dialécticamente cuando la lucha de clases cese. Ya la simple “fase socialista” debería, según los teóricos del marxismo-leninismo, provocar indirectamente una disminución en el número y la virulencia de los problemas nacionales. Esta es la predicción esencial del marxismo. Las barreras nacionales tenderán a desvanecerse de por sí; así como el Estado marxista al servicio del proletariado deberá disolverse progresivamente. Las lenguas nacionales, en la misma línea de ideas, darán paso a una lengua universal (que Stalin identificaba con el ruso). La fraternidad universal será irreversible”.

Artikulu honen hilabete parera bakarrik erantzun zuen Euskadiko PKK “La verdad sobre las repúblicas soviéticas bálticas” artikularekin (Arragoa, 1967ko abuztua). Zenbaki honetan bertan Txillardegiren “solipsismo lingüístico”ari kritika luze bat ere baidator. Izan ere Txillardegi/Usako-ren beste kritika berretu bat marxismo-leninismoari, honen kulturaren kontzeptua izaten zen (gainegitura dela), hizkuntzarena guztiz gain. Komunistentzat, adierazten zuen Usako-k: “La cultura nacional es un mito: hay una cultura burguesa frente a una cultura proletaria, eso es todo. He ahí la verdadera divisoria a ojos de Lenin: la diferencia de clase. Hablar de ‘cultura nacional’ es un absurdo, pues la cultura es sobre todo y ante todo cultura de *clase*”. Hizkuntzaren arlora etorritz: “No es difícil hallar docenas de autores marxistas que consideran la lengua (fundamento de la entidad nacional) como parte de la ‘superestructura’; con lo cual lo nacional, que tiene base sobre todo lingüística, queda automáticamente relegado a un nivel secundario, cuando no identificado al resto de la *superestructura ideológica burguesa* que la revolución debe barrer”.

Ausaz gazte gaurko askori arras ezezaguna gertatuko zaio hau dena. Halere Usako-k deskribatzen salatzen dituen posizioak, ez dira *La Mancha*-ko haizerroten batzuk. Euskadin bertan komunisten doktrina eta jarrera oso arruntak izan dira. Horregatik da, “zer aldatu da ekialdean?” baino askoz galdetu beharrekoagoa, “zer da hementxe aldatu dena jende horren-

tzat?". Zer moduzko usteak eta teoriak ote dituzte gaur hizkuntzaz, kulturaz, nazioaz, klase-burrukaren lehentasun historikoaz (oinarrizkotasunaz), etab.? Guzti horrek bat egiten bait zuen...

Hilabeteren batzu geroago, berriro, *Oldar*-en ("kultura ta politika'ko euzko aldizkaria"), nazio-arazoan soluzio soviatarra, erabateko eredutzat kantatzen da. Printzipioak eta praxia bereziz, maila praktikoa Iraultza aurreko Inperioa eta ondoko Batasuna kontrastatzen dira: "Hasta 1917, las clases explotadoras y el gobierno zarista infligían constantes ultrajes y humillaciones a las poblaciones de los pueblos no rusos, que representaban el 57 por ciento de los habitantes del país; instigaban a unos pueblos contra otros: organizaban matanzas entre armenios y arzebaijanos, fomentaban progromos contra los judíos, inculcaban en los rusos el concepto de raza superior y el desprecio hacia los otros pueblos. Persegúan con saña la cultura de los pueblos no rusos, a los que prohibían editar periódicos y libros en su lengua vernácula, (...). No sin razón se llamaba al zarismo verdugo y torturador de pueblos, y cárcel de pueblos a la Rusia de los zares". Gaur, 50 urte geroago, Soviet Batasuna "el país más libre y culto de la tierra" dago bilakatuta. Iraultzarekin "la era del libre florecimiento y hermandad de las naciones y pueblos" inauguratu da. *Oldar*-en batez ere aurrerapen eta anaitzapen, berdinkapen kulturalak azpimarratzen dira: Soviet Batasuneko mintzaira eta kultura guztiek elkar aberasten dute.

Baina era guztietakoak dira sozialismoaren abantailak.

Teoriari gagozkiola, bereztea komeni da printzipioaren deklarazio hutsa eta printzipioaren erabilera momentua (sentidu politikoa). "Lenin, desarrollando la teoría de Marx, fundamentó la solución del problema nacional en el derecho inalienable de las naciones a la autodeterminación y en el libre ejercicio de este derecho. Frente al chovinismo se alzaba una nueva teoría de la nación, que ofrecía una solución racional y justa al problema nacional, sobre la base del reconocimiento de la igualdad de derechos de todas las naciones y la hermandad entre todos los pueblos, grandes y pequeños, independientemente del color de la piel, de la raza, creencias o grado de desarrollo económico y cultural".

Autodeterminatzeko eskubideak rigoroski separatzeko eskubidea esanahi du. Praktikatu ere kasuren batzuetan halaxe egin zen Errusia-n: "En algunos territorios, como Finlandia y Polonia, por ejemplo, prefirieron la separación y se organizaron en Repúblicas burguesas". Beren kalterako izan omen da. "Basta comparar hoy la situación de Finlandia, no ya con la de Ucrania, sino con cualquiera de las Repúblicas de la URSS, entonces más atrasadas, para constatar la superioridad del régimen socialista sobre el capitalismo".

Errepublika baltikoetan gertatua gogorragoa izan da. Ikasgariagoa batez ere. 1917an langileak hor ere aginte soviatarrez jabetu zirelarik, "solamente con la ayuda de las tropas extranjeras logró la burguesía contrarrevolucionaria ahogar en sangre el naciente poder popular". Burgesia gailenduz gero, kalamitate bat izan zen dena errepublikatxo horientzat, kulturalki, politikoki zein ekonomikoki. "Aislados de la URSS, los países bálticos tuvieron por fuerza que convertirse en abastecedores agrarios de productos baratos para los países capitalistas y en mercados para los artículos industriales de éstos". Esperientzia errukarri honen ondoren ez da harritzekoa gero zer gertatu zen: "En las primeras elecciones realmente libres celebradas el verano de 1940, estas repúblicas eligieron auténticos parlamentos, cuyos primeros actos fueron declarar el restablecimiento del poder soviético y solicitar su incorporación a la URSS, comunidad de naciones libres... Desde el mes de julio de 1940, los países bálticos, por su soberana voluntad, se incorporaron de nuevo a la URSS como repúblicas soberanas iguales en derechos". Harrez gero zein ederki joan zitzairen, goian ikusi dugu.

Beraz, nazio-arazoaren konponbiderako, printzipio zapaltzein gisa beti autodeterminazio-eskubidea aitortzen da, baina: batetik esperientzia historikoaren "irakurketa" hau dago (esperientzian ikusitako separazioaren kalte, elkartasun sozialistaren hobari praktiko edonolakoena); bestetik, filosofia sozialista guztiaren "izpiritua", solidari, baterakoi, lagunkoia; hirugarrenik, historiaren beraren martxa, mundu guztiaren batasun geroz eta osoagora, lotuagora, berdinduagora. Ondorioz, komunistek, autodeterminazio-printzipioa printzipio gisa guztiz onartuz, printzipioaren erabileran ez dute ulertuko hura "un objetivo en sí"



legez, burrukaren baldintzen eta xedeen orokortasunari azpiraturik baizik. Oraintsu batere Albania-zaleak ez bide diren batzuek egin duten bezalaxe, gure artean, komunista klasikoentzat ere autodeterminio-printzipioa sakratua zen printzipioa, baina praxian baliorik ez zeukan aplikatzeko. Hau da, orain abertzale batzuentzat bezala, Euskadiko kasu zehatzean eta 1967an, komunisten aburuz: "Sería un absurdo y una actitud reaccionaria si los trabajadores vascos levantáramos hoy la bandera del separatismo, cuando la lucha por las libertades nacionales, políticas y sociales de Euzkadi exige la unidad y coordinación de esfuerzos de los pueblos de España para acabar lo antes posible con la dictadura y abrir la vía hacia la democracia y el socialismo en nuestra patria. Esta unidad en la lucha fragua y robustece cada día más la unión fraternal de todos los pueblos de España, para que conviviendo en un Estado multinacional, puedan desarrollar amplia y libremente todos sus rasgos nacionales".

Badirudi burruka antifrankistaren urgentziak pasa zirela; batasun iraultzailearen exigentziak ere pasatuxek ditugula (Iraultza bera da "passa" dena komunistentzat orain): "separatismoak" zergatik jarraitzen du lehen bezalakoxe absurdua izaten, ez milimetro bat ere txikiagoa? Agian "absurduaren" egiazko arrazoiak ez ziren esandako haiek?

## **Sozialismoa versus abertzaletasuna esentzialki?**

Sozialistak abertzaletasunaren ("nazionalismoaren") oso etsaiak izan dira. Berez hori koherentea zen doktrinan: abertzaletasunaren aurkako arrazoiak, liberalismoaren aurkako berberak ziren. Bat izatekotan, izan beharra zegoen bestea. Sozialismo kontsekuenteak (hots, internazionalismoak, historiaren eta gizartearen eta kulturaren klase eskemak, etc.) ez zuen uzten inola lekuri ongi kritzi ahal izateko abertzaletasunari ezein here alde-tan, hau da, positiboki baloratzeko. Kontraesan bat zegoen bien artean.

Arrazoi haiek eta rigorismo doktrinal haiek, burdinezkoak eta exigenteak tenorean, klase burruka eta "sozialismo" haiek,

historiaren filosofia haiek, oinarri eta gainegitura kontu haiek, "¿dónde iremos a buscarlos? / ¿qué fueron sino rocíos / de los prados?". Ideiak aldatu dira, jarrerak ez.

Doktrina haietan, klaseek historian leku jakin bat zuten, egi-teko ezagun determinatu bat, oinarrizkoak; nazioek beste leku-txo bat zuten, bazterkoia, galdu samarra, periodotxo labur batean iragakorra, beti ere klaseetatik egonez menpe (nazio-arazoa burgesiatik); bere lekua zuen Estatuak. Nazioak edo nazionalismoak gainditu adina, Estatuak behar zituen birrindu sozialismoak, produkzio hondasunen jabego pribatua ezabatu, klase-diferentziak xahutu. Hori dena abandonatzen bada, historiaren zein filosofiarekin geratu da sozialismoa, gaitzerizten jarraitzeko abertzaletasunari? Zerk "superatu du historikoki", salbu pertsonaia batzuen biografiak (Kixote hasi eta Santxo Pantza bukatu), edo metropolitarrago agertu beharraren spleen haizeputz batek? Lehen internazionalistak, orain kosmopolitak gara.

Halaber, doktrina haietan paper bat zegokion gizabanakoari, beste bat sozietateari. Hain zuzen ezkerra, sozialismoa, "indibidualismoaren" aurkakoa zen, liberalismoaren etsaia izateko arrazoi berengatik. Eta ez zen arduratzen gizabanakoaz, ezperen sozietateaz. Gizarte horretan bakarrik indibiduoaz, "robinsone-ria" liberalak arbuatuz. Badakigu, sozialismoa sozietatearen aldeko altxatu denean liberalismoaren aurka, beronen sozietate kontzeptu abstraktua heredatu duela. Razionalista. Inhumanoa. Baina orain, gizabanakoa "produktu soziala" delako tesi sozialistari sentidu historikoa, familiarra, komunitarioa, herritarra, nazionala, eman eta desarroilatu ordez ("nazionalak" euskaldunon ahotan izan ohi duen adieran), nahiago da indibidualismo liberaleraino atzera jiratu, justu ezkerra propioki ezagutarazi duena suntsituz gizatasunaren eta pertsonaren kontsiderazioan... Orain gertatzen da, nazioak baliorik ez omen duela, indibiduoak besterik ez dagoelako! (Lehen, klaseak eta gizadia besterik ez zegoelako).

Doktrina haietan progresoa zen historiaren mugimendu modua, progreso ekonomikoaren gainean soziala, morala, artistikoa eta bestelako guztiak omen zebiltzala zaldun. Historiaren edukina bera izango litzateke progresoa (Hobsbawm), formak alde

batera. Progresoaren buruera honek exigitzen zuen, kasuan interes demokratiko batzuk sakrifikatzea, nazio-interesak adibidez, progresoaren historian fundamentalagoak ziren beste burruka batzuen alde. (Hots, historiaren oinarriagoan zegoen zerbait ukitzen zuten burruken alde). Baina progresoaren kontzeptu hemeretzigarrentiar honek bere oinarrian suposatzen zuen, giza emantzipazioa, hots, "gizonaren dohainen, ahalmenen erabateko garapena, gizonaren aldetik natur indarren menperaketa zeharokoa izan zedinean" (Marx, *Grundrisse*). Hots, alde batetik, natura, hondasun eta energia-iturri agortezintzat hartzen zen; giza-diarentzat, bestetik, aurrerapen-posibilitateak azkengabekotzat. Egun, ordea, ez daukagu inola inuzentzia ekologikoan jarraitzerik, naturaren aurkako krimenik ez balego bezala (eta historiaren aurkako krimenak?), natura hondogabeki hustiatzerik egongo balitz bezala ordain gabe; ez daukagu identifikatzerik aurrerapen teknologikoa emantzipazioarekin, gizadiaren suizidio-posibilitate errazekin baino gehiago, edo administrazioaren begikaldu oroikuslearen aparamen kaskianoekin. Eta ez daukagu itxaroterik, aurrerapen ekonomikoak berez abolituko dituela klaseak, ikusi egiten bait dugu, antzaldatu eta tinkatzea dela hoboro egiten duena, arroiila eta leizea sakonagotuz klaseen artean, espezializazio behar geroz eta zorrotzago, herstuagoarekin.

Sozialismoaren kontrariotasuna abertzaletasunari logikoa zen doktrina haietan, doktrina gazteak eta fedea aldarkorra zirenean. Baina "todo se torna graveza/cuando llega al arrabal/de senectud". Zahartu eta maskaldu egin bide dira doktrinak zein fedek ezkerrean, sozialismoan... "Ahitu". Eredu soviatarra baino, ahitu dena sozialismoaren eredu eta kontzeptua da sinpleki.

## **Ezker nostalgiko bat mitoari atxekita**

Doktrina hura kaos hau bilakatu delarik, mitoa geratzen da. Ezkerraren mitoa, ezkerraren kontzeptua hutsaldu denean. Ezkerra eskuinetik beretzeko ez programa, ez proiektu, ez irakaspenik geratzen da zutik; okerrago, tradizio-jarraipenik ere ez da geratzen, kontraesan leherkorak daude oraingo "ezkerraren"

diskurtsuaren artean eta ezkerren abelera eta filosofia historiakoaren artean. Mitoa soil geratzen da.

Mitoa egoera edo galduera honetan interesatu egiten da gainera. Ezkerren mitoa. Ospe argitsu bat eta prestigioa datzeko ezkerriari, "intelektual" jende modu baten artean behintzat. Komertziala da merkatu horretan. Baina horrelako "ezker" bat, imaginario eta sentimental, literatur oihartzun eta durundi huts, insinuazio, iradokizun, agian faszinazio, "moral" akaso, ez da leku politiko bat, bertan hankak ezarri eta plantatzeko.

Bi ohartxo.

"Ezkerra", berez, Parlamentuan lehendakariaren ezkerretara esertzen den frakzioa zen, hots, oposizioa. Leku izendapen hutsa berez. Gertatzen dena da, Frantzian, Iraultzaren ondoren, "progresistak" beti oposizioan egon zirela XIX. mende guztian. Frakasu politiko honetatik ezkerren aureola bat egin zuten Frantzian.

Bigarren oharra konparazioak izan beharko luke Frantziako eta Ingalaterrako historia modernoan artean. Frantzian indar kolpe batekin zilipurdikatu da juridikoki Erregimen zaharra (Iraultza). Gero, ordea, laster eta XIX. mende osoa, errestituzio-borroka mendea izan da. Ingalaterran, aldiz, "iraultza demokratikoa", poliki-poliki burutua eta, hauxe garrantzizkoa izanen da, *Parlamentuaren obra izan da*, jarraitasunean Erdi Aroko instituzioetatik erregimen berri konstituzionalera eta —beti Parlamentutik bertatik desarroilatuz— ordezkaritza demokratiakoaren erakunde modernoetara. Hau da, Erregimen zaharraren desmuntaiak eta demokratizazioak, modernizazioak, Ingalaterran ez du egun seinale batik eta ez autore jakin baten monopoliorik: prozesu luze batean egin da eta Alderdi lehiakideen obra amankomuna da, eskuarra. Askatasuna (demokrazia) ez da ezkertiarra. Ez da egon zentzu hertsian eskuin/ezkerrik Frantzian bezala. Hemen, alderantziz, eskuinak, hots, burgesia kontserbakoiak Frantzia tradizionala "errestauratzen" zuen artean Iraultzaren kalteetatik (Eliza, eskola katolikoa, familia, etab.: "ironua eta aldea"), burgesia liberala eta erradikala, inpotente ezer lortzeko, ahul ekintzetan eta hitzetan bortitz, oposizioan beti, Iraultzaren nostalgiaz bizi zen, asmo eta ideal goitarrez,

baina errealtatearen uko huts gorri azkengabea bakarrik praxian (antiklerikal, laizista, monarkiaren eta nobleziaren gorroto), demokratismo erradikal bezain herbalean, "ezker" hori beti ezkerreko txikimila sekta izan delako, besteak beste, elkartu ezinik, eta ezin konkistaturik ezer gizartearen eraldakuntzarako. Horrela, ezkerre iraultzaren errebindikazioarekin eta memoriarekin identifikatu da eta (Frantziako) burruka partikulazki pozonitu batzuekin: eskola laikoarena, adibidez, iraultza erlijiosoa egindako gizarteetan interesik apenas aurki duen auzi "katoliko" tipiko bat.

Baina zer gertatzen da? Gertatzen da, horrelako ezker jatorrak, oposizioarekin berdindua historikoki, erradikala, moralki garbia, idealista, teorikoki zorrotza, intelektualki biziro landua, kritikoa, Iraultzaren oinordearekin eta ideal iraultzaile guztiekin identifikatua (poeten, artisten, "intelektualen" berba-jario guztiekin liraindua), boterera igo arterainoxe irauten duela eta ez gehiago. Eskuina esertzen da orduan "ezkerrean", hots, oposizioan. Oposizioari berriro ez zaio ezer kostatzen altxatzea Gobernuak baino eskakizun progresistagoak, asmo sozialagoak, proiektu abertzaleagoak. Populuak laster ulertu du, eskuin ala ezker, "politiko guztiak berdinak dira"la, hots, antzinako R. Aron hura zilegi bada zitaztea, "que la gauche représentait non la liberté contre le Pouvoir ou le peuple contre les privilégiés, mais un Pouvoir contre un autre, une classe privilégiée contre une autre". Geroxeago: "Les réformes de la gauche aboutissent à modifier la répartition de la puissance entre les privilégiés, elles n'élèvent pas le pauvre ou le faible, elles n'abaissent pas le riche ou le fort".

Ezker hori literatura bait zen. Hitz politak. Errealtatearen jasak uharrean tarrakatu du berehalaxe.

### **Eredu aldaketa: mitoaren ahazpena**

R. Aron aipatuz jarraitzeko: "La gauche contre le capitalisme prenait la suite de la gauche contre l'Ancien Régime. Cette gauche nouvelle, qui réclamait la propriété publique des instruments de production et l'organisation par l'Etat de l'activité éco-

nomique", aurreko eskuin/ezker kontraesanaren gainditzaila izaki, berritzailea da eta errestituzioa une berean. Berehalak itzuliko gara.

Baina hemen, "ezker proletari"aren ekialdeko porrotarekin, hori baino lehenagotik ere bai agian, mitoa bera irensten duen zerbait, gertatu da. Kontzeptuaren ondoren, orain mitoa galdu da.

Berriro begiratu behar da eredu frantsesaren eta anglo-saxoiaren kontrastea, lehen politikoki bezala orain ekonomikoki. Hemen alderantziz da. Politikoki jarraikileak izan direnak, ekonomikoki iraultzaileak izan dira, eta alderantziz. Burgesia latinoa, katolikoa, inoiz ez da izan egiaz kapitalista, enpresari abentureroa, arrisku guztiak bere gain hartzen zituena, mundu berri bat bere ekimenaz eraikitzeko trebe. Burgesia hori, A. Philip-ek frantsesaz ohartzen zuen bezala, "había llegado al poder poco a poco sirviéndose del Estado centralizado, creado por Richelieu, reforzado por Colbert, consagrado en tiempos de la Revolución francesa por los jacobinos, instalado definitivamente por el bonapartismo". Burgesia hau Iraultzaren mitotik bizi da, amarez nahiz gorrotoz, haren baitan azkenean, Iraultzaren eta Napoleon-en kontziliapenez, eskuinak eta ezkerak nahasten badira ere. Frantzia Iraultzaren eta Napoleon-en sorterrria da une berean. Eskuinaren eta ezkeraren kontzeptuek sentidurik ez izan arren, Iraultzaren memoriak dirauen artean, ezkeraren mitoak bazuen balioaren bat.

Orain, ordea, eredu anglo-amerikanora pasatzean, mundua ingelesez eta ez frantsesez irakurtzean (edo amerikanoz) gertatzen da, ekonomiaren objektibitate mekanikoarekin, gizarte zientifikoki administratu baten ereduarekin, sobera samar gertatzen direla Bastilla-ren ipuinak eta Iraultzaren mitoak, historia-ren irakurketan zein asmo politikoaren erreferentzia sisteman. Rigoroso pentsatuta: zientzia eta iraultza, kontzeptu elkartezinak bilakatzen dira.

## **Ezkerrik ez dago: ezker berri bat berbategin**

Eskuinak iragana, ezkerak etorkizuna, kontrarioak ziren artean, ametsaren bitartez pentsatu dizkizute. Teknokraten mun-

duan, alabaina, ez dago ametsik. Hobeto, ametsak berak administratu egiten dira. Ezkerrik, beraz, ez dago. Oraina besterik ez dago. Mundua, ez dago pentsatzerik iraultzea, baina zientifikoki administratzea. Zientzian ez dago eskuinik eta ezkerrik (oraingo zientzia honetan alegia: eskuina bakarrik dago eta objektibitate neutrala deritzo). Faktore sozialaren orain nagusitu den irakurketa eredu zientifistan, Iraultza ez da pentsamendu erreala posiblea inorentzat.

Gertatu dena, sakabanatuta, pertsonak dira, talde batzuk, arazoak, tradizio bat, motiboak eta jaierak, ezkerrekoak. Ezker historikoaren fragmentoak. Den bezalaxe hartu behar da: 1790ean ezkerrik ez zegoen oraindik Europa-n eta 1990ean berriro ez dago. Ez da ezer pasatzen.

Gaur ez da inon, munduan egunero milaka eta milaka ume goseak hiltzen duen sistema hau orokorki transformatzeko, iraultzeko, teoria bat pentsatzen. Hau ahalik efikaz eta zientifikoki kudeatzea da egiteko dagoen dena. Uste dut, gainera, sistema unibertsal bat, XIX. mendean egiten zen eran, filosofikoa, ekonomikoa, politikoa eta dena, ezin daitekeela oneski pentsatu. Gizadiaren eta historiaren teoria orohartzailerik bakarrik bat. Halere, sistema unibertsal hila badira, horrek ez du esan nahi, sistema honi alternatibak bilatzea ez legokeenik (sozialismoak hori izan beharko du, sozialismoa izateko), eta koherentzia eta pentsamendu estriktoa debekatuta dauzkagunik lan horretan, beren zatizkotasunean. Debekatuta, dogmatismoak geratzen dira.

Gerora begira:

(a) gure historiari geratzen zaigun arazo bat: Euskal Herrian, ezkerren historia, bere zatiketen eta zati-bizatiketen historia pikortua izan da. Teinka ideologikoa lazotu delarik, koordenadak ere aldatu munduan zein hementxe, agian ordua genuke, garai batean astunak izan zitezkeen diferentzien gaurko huskeria ikusiz, historia hori korigitzeko eta bakoitzaren edo guztion lekuak, hurbiltasunak edo elkartasunak, are batasunak, birdefinitzeko, eta zeintzuekiko sortu diren ausaz urruntasun berriak.

(b) ezkerrearen kultura izan den hainbat gai hortxe geratzen da, orobat, birgogoeta eske: demokrazia ekonomikoa, autogestioa, eskol aukera-berdintasuna, etab.

Besteak utzita: Euskal Herria karlistekin eta liberalekin erdibitu da XIX. mendean eskuin-ekzerretan (liberalak progresistatzat eta karlistak atzerakoitzat hartu ohi dira, gutxienik ezpaitagarria izan arren). Liberalek Estatu modernotu nahi omen zuten, karlistek Erregimen zaharrari eutsi.

Dena dela, Estatu modernotu liberal horrekin, askotan erauntsia dago, zer gertatu zaigun. Sozialismoak, esan dugu goraxeago, gizabanakoari, liberalismoak apurtu komunitatea errestauratu behar zion. Burgesiak feudo-kateak hautsi zituen, jendea komunitate lokalen lau horma zulotik atereaz mundu irekira, es-teka erlijioso eta menpetasun pertsonaletatik jareginez. Baina gizabanakoak, "libre", hots, aterpe tradizionalak apurturik, zurtz, biluz, inolako babes gabe geratu ziren burges kapitalisten hatzaparretan, merkatuko lege irrazional itsuen pentzutan, desanparroan. Iraultza sozialistak, hortakoz, kapitalismoa gaindituz, *komunitatea* berrizkatu behar zion gizabanako bere bakartasunean zuritu horri. "Les socialistes reprennent une partie de la polémique contre-révolutionnaire [*horregatik marxista askok oso erraz aurkitzen du iragapidea Nietzsche-gana, euskaraz Mirande-gana*]. En éliminant les diversités de statut personnel, on n'a laissé subsister d'autre distinction entre les hommes que celle de l'argent. La noblesse a perdu positions politiques, prestige et, en large mesure, les fondements économiques de son rang social, la propriété foncière. Mais, sous prétexte d'égalité, la bourgeoisie a monopolisé la fortune et l'Etat. Une minorité privilégiée en a remplacé une autre. Quel profit en a tiré le peuple? Bien plus, les socialistes ont tendance à s'accorder avec les contre-révolutionnaires dans la critique de l'individualisme. Eux aussi décrivent avec horreur la jungle dans laquelle vivent désormais les individus, perdus au milieu de millions d'autres individus, en bataille les uns contre les autres, tous également soumis aux hasards du marché, aux soubresauts imprévisibles de la conjoncture" (R. Aron).

Aron-en ironia ez da guztiz injustifikatua. Sasiromantizismo gehiegi egin da sozialismo aitzakitan. Dena dela, filosofikoki



(nahiago bada, ideologikoki), sozialismoa oinarrian definitzen duena, here "kolektibismoa" da, komunitatearen lehentasuna, gizabakoitzasunaren aurretik, eta komunitate barruan gizabakoitzaren ulerpena. Hortik teoria ekonomiko sozialistan egon diren jorak nazionalizaziora, kolektibizaziora. Neurrian egokitasuna ekonomian egiztatu ez bada, bestelako neurriak pentsatzca dago. Imaginatzerik ere ez dagoena, ordea, sozialismo "indibidualista" bat izango da. Eskubiko ezkerre. Atzeranzko aurrerapena.

Produktibismoa, ekonomizismoa, makur klasikoak izan dira teoria eta esperientzia sozialistan (historikoki esplikagarriak). Ez dirudi soluzioak orain, produktibismoari egin ordez, hain zuzen sozialismoari laga egitea, izan behar zukeenik, gertatu nahi duela, dirudienez. Sozialismotik liberalismora ez dago "eboluziorik", atzeraka jauzia bakarrik dago. Baina hori ez dugu arazoa. Beste hau bai: alegia, bai "sozialismo erreala"k eta bai demokratikoak mendebalean erakutsitako *estatismoa* (S. Stojanovic).

Berriro eredu latinora etorritz, hori funtsean eklesiastikoa dela, esan liteke. Estatista. Autoritarioa. Soluzioak Aita Santuagandik edo aita jaun parrokoagandik itxaroten dira. Goitik behera. Estatuaren interbentziotik. Boteretik behera. Indar sozialen autonomia eta ekimen gabe. Sindikatutik baino gehiago, adibidez (enpresaria eta langilea elkarrekin eztabaidan), Alderdietatik eta Gobernuaren eskuhartzetik. Ez inizatiba pribatutik, baina Estatuaren dirigismotik, protekzionismotik. Kultura bat da, funtsean eta errai barneraino "katoliko-erromatarra", erreflexu guztien kondizionatzaile: Inperio Erromatarren eta Eliza Katolikoaren makinariak eta mekanismoak eta izpiritua heredatu dira. "Esta burguesía (frantsesa), bajo el antiguo régimen, empezó a formarse gracias a la compra de los cargos públicos. Vivió luego de los encargos que le hacía el Estado y, durante todo el siglo XIX, funcionó al amparo de un proteccionismo que le aseguraba la tranquila posesión del conjunto del mercado nacional. Cuando se generalizó la revolución industrial y cuando los antiguos trabajadores profesionales, orgullosos de su oficio, fueron sustituidos por peones no cualificados, éstos, a causa de su propia miseria, no fueron capaces de combatir directamente para la defensa de sus intereses. Se dirigieron no tanto a los sindicatos cuanto a los partidos políticos, reclamando la intervención del

Estado para limitar la duración del trabajo, para establecer salarios mínimos, zonas de salarios, una legislación sobre accidentes de trabajo, la seguridad social, etc. Esta intervención del Estado se hizo necesaria a causa de la debilidad del movimiento obrero; pero *al mismo tiempo acentuó aquella debilidad* en la medida en que el hombre se sentía más atraído por el partido político, respecto al cual bastaba con votar por él cada cuatro años, que por la acción sindical, con los sacrificios directos y personales que comportaba" (A. Philip). Adibide bat bakarrik da sindikatuen eta Alderdien. Eraitza, azken finean, burokratismo eta zentralismoa da, Estatismoa, "que ha destruido toda iniciativa en la base. Los problemas locales son resueltos, con excesiva frecuencia, en la capital, por las grandes administraciones, y el principal papel de los diputados consiste en ser los embajadores de su circunscripción en los servicios y en multiplicar las gestiones para que los expedientes salgan".

Ekialdekoa bezala da joera hori mendebalekoa. Lehiatsuen, gainera, sozialismoa bera izan da joera estatista horretan. Sozialismoaren kritika liberal aspaldikoa da hori (Aron-ena, esaterako) eta arrazoizkoa: "le gonflement de l'Etat et le retour de l'arbitraire, cette fois bureaucratique et anonyme". Sozialismoa ez da estatismoa (sozialismoaren errazkeriarako degenerazioa besterik ez da hori), gizartea (sozietatea) Estatua ez den bezalaxe. Estatua, kontrara, sozietatearen mehatxua da, amarauna, eskolagartzela. "La gauche s'efforce de libérer l'individu des servitudes proches; elle pourrait finir par le plier à la servitude, lointaine en droit, omniprésente en fait, de l'administration publique. Or, plus est grande la surface de la société que couvre l'Etat, moins celui-ci a de chances d'être démocratique, c'est-à-dire objet de compétition pacifique entre groupes relativement autonomes".

Ez da nahastu behar estatala eta soziala. Estatismoa eta sozialismoa.

Nahasketa horrek lehen zentralismora eraman badu, sozialismoarentzat ezin izan daiteke aski orain ibilitakoa desibiltzea. Dezentralizazio administratiboa, hots, bihotz-damuz liberalismo zaharrera itzultzea. Liberalismoa baino liberalagoak izaten enpeinatzea. Indibidualistagoak. Eskualdeen eta gizarte barruti tra-

dizionalen balioa giza nortasunaren babeserako, aspaldian dago deskubrituta gizarte liberaletan. (Hots, Orixe eta Orixe-ren munda aspaldi birbaliatu genituen). Estatuagandik defendatu beharrean gaude geure buruak. Kolektiboki. Komunitarioki. Ez (bakarrik) indibidualki. Defentsa horretarako arma batzuk historian bertan eta tradizioan (ez bakarrik, noski!) aurki genitzake. Behar genituzke aurkitu. Historian, iragan osoa iragan zaigu eta, iragan osoaren gara nahitaez oinordeko. Absurdua eta denboran imposiblea da, liberalenak bakarrik nahi izatea oinordekoak izan, karlistenak une berean izan gabe. Karlistek, bestalde, ez zuten gerra egin, hori ziur, beren katea zaharrak bakarrik defendatzea-gatik. Gaur garbi dago. "Les survivances des relations traditionnelles, des communautés locales, apparaissent moins comme un frein à la démocratie que comme un obstacle à l'absorption des individus dans des bureaucraties démesurées —monstres inhumains surgis de la civilisation industrielle" (R. Aron).

Kontu zaharrak.

Berriro karlismoa eta liberalismoa gogoratu: sozialismoak, liberalismoaren zinez hurrengo izateko (ikaraturik, liberalismoaren atzera bueltatu gabe), bere paper historikoa egiaz konplitu nahi badu, ez indibidualista eta ez estatista, komunitate puskatua berregitea luke bere lana. Gizartegintza. Horretarako, lehenengo sozialismoa izan behar; eta hemengoa, gero. Euskal Herriaren gogoetatik sortua. Gogoeta horretarako, hain zuzen, berriro eredutzat hartu beharko ote lirateke hiru errepublika baltikoak?

*J. A.*

## **Emakumearen aldaketa psikosozialaren eta euskararen galeraren arteko interferentziak**

**Maria Luisa Egia**

Hona gaia: Hizkuntza, kultura baten ageriko iceberg-tontorra da. Eta helburua, hizkuntza, kultur ekintzetatik at ezin dela garatu frogatzea litzateke.

Hizkuntza, Vygotsky-k<sup>1</sup> dioen bezala, zeinu-pilo baten bilketa baino gehiago, faktore soziologiko, psikologiko, historiko, etnologiko eta abar luze batean oinarrituta dagoen zerbaite da.

Abiapuntutzat, Gilermo Humboldt<sup>2</sup> linguistikak emaniko definizioa erabiliko dut: Herri edo zibilizazio batentzat hizkuntza da munduari heltzeko euskarririk egokiena.

Berak, hizkuntza globalki hartu zuen, horregatik, ohitura eta bizitzeko erak kontutan hartuz, hizkuntza, izan, pentsatu eta sentitzeko eraren espresio bizia dela diosku, gure esaera, dantza, musika, olerki eta abarrei aparteko begirunea emanez, gure mundu sinbolikoa interpretatzeko orduan.

Ferdinand de Saussure-k<sup>3</sup>, egungo linguisten aintzindariak, hizkuntzaren bikoiztasuna azpimarratu du, unitate konplexu bezala analizatuz: fisikoa eta mentala.

Bere ustez, gizakien ahalmen errezeptzio-koordinazio funtzionamenduei esker, inprontak sortzen dira hiztunengan, komunitate bereko hitzun guztiengan berdintsuak izatera helduz.

Nola adieraz daiteke emaitza sozial hau, hizkuntza beste gauzetatik at ager dadin?

Gizaki guztiengan bilduta dauden hots-imajinak bateratu ahal bagenitza, hizkuntzak eratzen duen lokarri soziala eskura genezake, hizkuntza, komunitate bereko partaide guztiek eguneroko mintza-praktikari esker sortzen duten emaitza preziatua bait da.

Garun bakoitzean existitzen den gramatika-sistema, edo hobeiki esanda, gizaki-talde baten burmuinetan, dagoenaz hitz egin behar zeren, hizkuntza ez da garatzen inorengan multzoan baidzik (testuala).

Azken urteok, linguistika arloan oso aberatsak izan dira. Estrukturalisten lanen ondorioz, hizkuntza desberdinen familiak ezagutu genituen. Transformatzaileei esker, Gramatika Unibertsala.

Babel-dorrea bota ote dute?

Agerian, badirudi baietz, baina nik "etxea" esaten dudanean, nire baserrian pentsa nezake eta berehala konturatuko gara, hauek desberdinak direla, iparraldean edo hegoaldean kokatuta daudenaren arabera.

Eta nire konparaketa Groenlandiarekin bada, nire solaskideak automatikoki "igloo" batean pentsatuko du.

Eta hemen legoke hizkuntzen arteko bereizgarrien oinarria: hizkuntza bakoitzak bere kontzeptualizazio propioa du. Eta jakina, kontzeptuaren atzean sinbologia konkretua dago.

Oteiza<sup>4</sup> "euskal arimaz" mintzatzen zaiguncan, ene ustez "arima hau" ez da zerbait metafisikoa, gorago aipatutako "mundua eta bizitza" ikusteko era bereziaren kontzeptua baizik. Oteizarentzat "hutsa" eta "konkabo emea" dira euskal artearen ezaugarriak. Neolitikoko "zero cromlech-a" litzateke euskal estetikaren errepresentazioa. Gure tradizioan "ezer eza" erlijiozko afirmazioa dela dio. Gure erlijio-sentimentuak bi kontzientzi egoeratan bereizten ditu:

1) Gaur egungo azaleko sentimendu etikoa, katolikotasunetik datorkiona.

2) Eta beste bat, askoz ere sakonagoa, bere prozesu estetikoetik datorkiona, gaurko moralarekin lotezina, euskaldunontzat jainkoaren lehen pribilegioa justizia bait da eta ez Errukia.

Orduan gure hizkuntzaren azaleko egitura bere sinbologiatik at garatzerakoan, guztiz arrotza gerta dakiguke. Eta bere eritzia gaurko ekologilari eta zientzilariekin bat dator: hizkuntzaren berreskurapena, gizakien berreskurapenetik datorkigu.

Euskaldunok oraindik, mundua ikusteko gure era, gure etika, estetika eta gure baloreen eskala bait dauzkagu.

Bestela nola azaldu gure inguruko arazoak? Gizon-emakumeen harremanak, alkohol-zaletasuna, kontraesan politikoak, burruka armatua?

Andrés Ortiz Osés-ek<sup>5</sup> analisi hermeneutikoa egiten du argudio arketipikoak erabiliz, gure inkontziente kolektiboa arakatur.

Beretzat, eta neu ere eritzi berekoa naiz, euskal kultura, indoeuroparraren aurrekoa da, matriarkala eta komunitarioa, beste inguruko kulturak, patriarkal, eta indibidualak direlarik. Ondorioz, euskal kultura, natura eta lurrari lotua, desagertzeko azkenean unean aurkitzen da.

"Ezker" hitza, koordenatu sinbolikoan analizatuz, zeinu matriarkal naturalista bezala agertzen zaigu. "Eskuma", oster, patriarkal eta indibidualista bezala. Euskal mitologiak, "ezkerra"

primatzen du Mari-ren ekintza eta ritualetan, eta badago ekintza pila bat euskaldunak oraindik ezkerrarekin egiten dituenak. "Txistua jo, idiak uztartu, txapela jarri, aterkina edo poltsa eraman, e.a.

Eta Thomson-en zita dakargu:

Gizatasuna prozesu matriarkal bezala interpreta daiteke ama-rikiko harreman luze eta iraunkorraren teoria jarraituz, harreman honek kultura naturala, hizkuntzaren sorrera eta oinarritzko sozializazioa garatzen bait ditu.

Estratu mitologiko honek lagunduko digu euskal imajineria ulertzen Oteizagandik, Txillida, Basterretxcaganaino, Zubiaurre, Arrue eta Arteta barne.

Patriarkaltasuna, "ar-ikuspegian" finkatzen da, Aita jainko eredutzat duen mitologia indoeuropar guztien heroea alegia.

Mitologia matriarkala munduaren eme-ikuspegian datza. Ama jainkosa haundi batean finkatuz. Ikuspegi matriarkala munduaren kontzepzio erlijioso birlotzailerantz doa... la atzerakoa eta erdi panteistikoa.

Errealitatearen kontzepzio patriarkala, razional, kritiko eta heroiko aurrerakoirra doan bitartean, matriarkala, liberal ilustratu-zeinukoa eta erlijioz sekularra da.

Eta hemendik, bi mundu-ikuspegiaren arteko diferentziak. Bi kulturen aurrez aurreko kontrajarpena.

Ondorioz, bi gerra karlistek, 1936koak eta ETArenek berak ere, zentzu bera dute: administrazio-askapena, kultur eta linguistika-independentsia lortu.

Historian zehar, gerra guztien atzean sinbolizazio desberdinen arteko interferentziak daude, Jung-ek<sup>6</sup> oso ondo analizatu zuen bezala.

Barandiaranentzat<sup>7</sup> emakumea, lan, erlijio, eta etxeko ardatza izanez gain, ezer baino lehen euskal psikismoaren ezaugarria

da, abesti, legenda, mito, errito eta abar luzean. Akelarre eta emankortasuna bezalako errituetan batez ere.

Hizkuntzan, egiturari dagokionean, azpimarragarriak iruditzen zaizkit:

- Artikulua: neutroa, euskaraz jeneroa funtzioaren arabera markatzen da.

- Aditz egitura arkaikoa, iragan eta orainaldian ardaztua bati-pat eta ez geroaldian.

Mayr eta Bornemane-n<sup>8</sup> analisisian, ezaugarri hauek matriarkal-naturalista zeinukoak dira.

Aditz-egitura Gavel-ek analizatu zuen, objektu-errealitatean gorpuzten delarik eta ez subjektuan, inguruko indoeuropar hizkuntzetan bezala.

Euskal Herriak azken 150 urteotan zirrara asko sufritu ditu.

Ikuspuntu politikotik, gerren galera, eta ikuspuntu ekonomikotik industrializazio basatia hegoaldean, inmigrazio ikaragarria erakarriz, iparraldean emigratio sistematikoa ematen den bitartean! Hau paradoxa!

Linguistika-ikuspuntutik begiratu, faktore honek garrantzi handia izango du, inmigratu gehienek eskualde konkretuetan, batez ere hiri handien inguruetan kokatuko direlako. Eta soziolinguistikak frogatua du ingurugune diglosikoetan, hizkuntza minorizatuak hobeto gordetzen direla herri txikietan eta baserri-giroan, hiri handietan baino.

Josua Fishman-en<sup>9</sup> lanek lagunduko digute euskal hitzunen jarrera aztertzen. Autore honentzat egoera diglosiko baten barruan, hiru lirateke jarrera posibleak hizkuntza minorizatuen aldetik, nagusiarekiko:

#### 1. JARRERA POSIBLEA.

A taldetik (gutxiengoa) B taldera pasatzen da (nagusira), eta irentsia gertatzen da.



Hemen hizkuntz-ordezkapena automatikoki ematen da.

Euskaldun talde minorizatuak bere hizkuntza arrunt sentitzen du, harekiko harreman eta baita bere kultura propioa ere, gorrotoz eta mesprezuz biziz.

Egunero frustrazioan ezin bizirik, egoera hau berrorekatzeko nagusiengoa duen hizkuntzara joko du (frantsesera edo gaztele-rara).

Hizkuntz asimilazioa laister emango da eta urte gutxiren bu-ruan, asimilazio kulturala osoa izango da.

## 2. JARRERA POSIBLEA.

Talde minorizatuak (euskaldunak) bere hizkuntzaren desa-gerpena sumatzen du eta erreboltan sartzen da, hizkuntza nugu-siaren kontra (frantsesaren edo gazteleraren aurka).

Normalizazioa ez da posible, hizkuntza minorizatu honen hitzun anitzi esker baino. Hitzun hauek sektore sozial guztietan aurkitu behar direlarik, beren hizkuntza eta kultur-masa sozial bera, balore-eredu bezala ulertuz eta biziz.

## 3. JARRERA POSIBLEA.

Talde minorizatu apatikoa da, honen esanahia hizkuntzaren erabilpen etxekoian datza, baina ez sozialean.

Elebitasun ordezkakorra deritzo honi eta hizkuntza nagusia laster izango da bakar eta nagusi.

Soziolinguistikaren ikuspegitik, Euskal Herriaren mugak, eus-kara mintzatzen den tokietara mugatuko lirateke. Euskara hil-tzen bada, Euskal Herririk ez da izango. Baina hemen garrantzi-tsuena ez litzateke hizkuntza bera soilik eskuratzea, honek ez bait dauka zentzurik. Hizkuntza bere ingurunean berkokatu be-har da, bere rol sozialarekin batera, aurretik gure sinbologia eta gure baloreen eskala berreskuratuz.

Sanchez Carrión-ek<sup>10</sup> euskararen mementuko analisi soziolin-guistiko ugariren egileak, argi utzi zuen gure herria bere bereiz-

tasunak mantentzeko isolamendu mentalaz baliatu izan dela. Teoria honekin bat nator.

Baina nik, isolamendu mental honen arduraduna emakumea izan dela azpimarratuko nuke, bere rol soziala ezinbestekotzat hartzen dudalarik gure hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan, izan ere, ardatza izan bait da.

Gure historian kristautasuna sartu zenean, inkisizio-bortxakeriaz bere balore hierarkikoak, gure sinismen eta askatasunaren truke ezarri zituen.

Geroago, argi dagoena da, Frantziako Iraultza, hobeto esanez Iraultza Burgesa, nahikoa penagarri izan dela Galiako herri txikientzat, frantsesa inposatuz eta beste hizkuntzak baztertuz. Honetan, beste gauza askotan bezala, Estatu Espainiarrak ere fidelki jarraitua izanik.

Hego nahiz Ipar Euskal Herrian, Eliza Katolikoak estatu-mailan bere botere erreala galtzen duenean, gogor eutsiko dio hemen, foruak aitzakitatzat hartuz, eta gure frustrazio eta inpotentziak bideratuz.

Euskaldunen hutsegite eta inpotentziaz baliatuz, Estatua ordezkatuko du: Hezkuntza eta Ordena Publikoa bere esku geldituko dira eta ondorioz bere balore filosofiko eta moralak ezarriko ditu.

Emakumea, ordurarte rol garrantzitsua jokatzenetik etxeko gobernari gisa, etxea bait zen ardatz ekonomiko eta soziala, sukaldera txokoratua izango da, emakumeari bere buruaz eta sinismenetaz zuen ziurtasuna galeraziz.

Hemendik aurrera, famili-plangintza, giza harremanak, eta nola ez gizakiak, bere natura fisiko nahiz espiritualari dagozkion arazoak, erretoreak edo apaizak antolatuko ditu.

*Ama edo Birjina:* hauek dira emakumeentzat erlijio honek onartzen dituen status bakarrak.

Hizkuntz aldetik, nire eritziz, emakumearen rola funtsezkoa lehengo eboluzio da nahiz egungo asimilazioa ulertzeko.

Jo dezagun emakumearen rolera, euskal ekonomiaren ardatza orain gutxi arte. Eta baita ere rol sozialera, jolas eta jaietan, antzinako Akelarreetan eta oraintsuagoko bere ordezkioetan.

Kazikeak eta Eliza herri-lurren jabe egin dira. Emakume ez-kongabeak hirietara joatera behartuak izan dira eta han neska-me, monja edo puta bihurtu.

Emakume hauek burgesiaren moralara onartu behar zuten, baserri edo mendietako askatasun ekonomiko edo sexualarekin nahikoa diferentea. *Polita, zintzoa, birjina edo ama, apala* gizon eta moralaren aurrean.

Oso denbora gutxian Elizak emakumea bere espazio soziale-tik kanporatu egin du.

ONDORIOA: emakumearen alienazioa eta euskal etniarentzat *isolamendu mentalaren heriotza*.

Industrializazioak eta baserri-inguruaren marjizazioak, emakumearen ihesa bultzatu du, herri txikietatik hiriburu handietara.

Hemen filme amerikarren heroinak ez zuten zerikusirik gure neska baserritar "traketsekin". Emakumeak "Señorita" antza izateko bere sentimendu eta naturazko bulkadak disimulatuko ditu, bere hizkuntza eta kulturarekin batera.

Prozesu honek bizirik dirau oraindik.

Honela, emakumea, euskararen erabilera galduz joan da, lehenik esparru publiko eta sozialean eta gero baita etxe barruan ere.

Emakume batzuk, transmititu diete hizkuntza beren seme-alabei, gehienak ostera ez, telebista eta bihotzeko prentsa frantsesa edo espaniarra eredu dutelarik, euskarari atzerakada ederra eman diote.

Eta ez bakarrik espazio sozialean, espazio afektiboan ere bai, erresistentziarako azken bastioia izanik. Zeren, genetika-injinerutzaren garai honetan, ahaztu ezinak ditugu, Haurra eta Ama.

Herri baten kontzientzia ez bait dator filosofi tratatuetatik, ez eta bere irabazte militarretatik, amaren bularretik baino. Ondo ezaguna da, psikologiari esker, inguruguneak nolako garrantzia duen umearen garapen psiko-afektiboan.

Hizkuntzaren ikasketak bi oinarri ditu: mintzamina alde batetik, eta komunikazio ez-mintzatua bestetik.

Nola heltzen da umea hizkuntza eskuratzerara?

Mundu osoan, metodologia bera jarraitzen da, herriak "garratuak" izan edo ez. Haurdun dagoenetik, amak bere umearekin hizketan darrai (honek zoroen kontua dirudi, baina hala da). Eta hau litzateke lehen kontaktu enpirikoa hizkuntza espezifikokoaren eta umearen artean. Sei hilabeteren buruan, haurrak hitzegiteko kompetentzia dauka, ulertzeko fakultatea duenez geroztik. Baina horra heltzeko, fonemak ordenatu eta ideiak egituratzeko beharrezko garapen fisikoa falta zaio.

Chomsky-rentzat, kompetentzia linguistikoa, giza genetikaren baliagarria da. Orduan esan genezake gizakiak genetikoki daukala gramatika unibertsala.

Une honetan hau litzateke nire galdera: ba al dago egokitasun berezi bat gramatika bakoitzarekiko?

Badirudi, gizakiak potentzian dituen ahalmenetatik, inguru konkretuko ezaugarriak hartzen dituela, diskriminazioaren bidez eta haurrak, inguru konkretua lotzeko erabiltzen duen tresna, hizkuntzaren funtzio faktikoa dela.

Psikosemiotikako teoriei jarraituz, badirudi hau dela komunikazio alorrean lehen elikagaia.

Ama-ume arteko jolas irrazional honek, umearen mundu simbolikoa egituratzeaz gain, era berean beraren biharko irudimen eta sormenaren bagaia prestatzen du.

Hizkuntzaren funtzio faktikoa, bi ekintzetan oinarritzen da:

- 1) Begirada.
- 2) Distantzia.

Nagusiarekiko harremanetan, begirada eta distantzia gartzean, zeinu-soinuekin jolasten hasten da, hauek identifikatu eta ezagutzeko ahalmena duenetik, gero sailkatzen eta egituratzen joaten delarik.

Lengoaiaren garapena, negararekin hasten dela esan genezake, hau bait da lehen komunikazio-ekintza. Zeren, haurra, amaren ahotsa entzunez, edo laztanak hartuz, ixildu egingo bait da.

Eta umearekin harremana lortzeko, bere begirada harrapatzen saiatu behar dugula esango genuke. Zeren amak, bere begiradak, irribarre, berba goxo, ikutu, laztan eta abarrez, umearen espresioa eta arlo sozialak moldatzen bait ditu.

Umeak ez du ama imitatzen, alderantziz baizik. Amak umea imitatzen du, honen mimikaz baliatuz, umeak esan nahi duena interpretatu eta ahozkatuz. Honela umeak, bere adierazpen-bidearen kanpoko errepresentazioa barneratzen duela esan genezake. Amaren mugimendu-erritmoa umeari egokituko zaio. Amarekiko harreman honetatik, komunikazio-esperientzia sortu eta garatuko bait zaio.

Atsegin zaion esperientzia honi esker, haurra inguruarekiko harremanak progresioan, zabalduz joango da. Berehala sortuko du komunikazio-sistema bat, hitzik egiteko ahalmenik izan ez arren, bere inpresioak adierazteko gaitasuna erakutsiz. Hizkuntza elkar-eman honen luzamena baita.

Amak, umea ulertzeko jarreraz, eta umearikiko elkarrizketaz, honen hizkuntza sozialaren ezinbesteko papera betetzen du. Indibiduo eta bere ingurugune hurbilaren apurketa diferenteei esker, emakumea, berak ikasitako balore guztien kontra jarri du-te.

Amaren rol hau, gaur egun eskolak eta telebistak betetzen dute. Haurtzaindegietako haurrek ez dute bakoitzarentzat beren amaren ordezkorik.

Esperientzien bidez, feto edo umekia, inguruko soinuak entzuteko ezezik, erantzunak emateko ere gai dela frogatu da (amaren ahotsa, edo bihotz-taupadak, e.a.). Gradu ezberdinetako amak stressatuz egindako ikerketei esker, honen stressa eta garapen-motore batzuen arteko erlazioa, emaitzetan oso adierazgarria izan da. Haurraren garapena, amaren jarrerarekin zuzenean loturik dago, batez ere beronek sortzen duen ingurune psiko-afektiboarekin. Amaren orekak, umearen oreka emozionala baldintzatzen du. Baina oreka hau ez dago amaren erreakzio kontzientearen menpean, amaren bizipen inkontzienteengan baizik, lasai edo larri egotea, berak sortzen diolarik.

Hau ikusirik, nire galdera hau litzateke:

Zein hizkuntza opa diezaioke gaurko ama euskaldunak umeari, hain aldatuta dagoen ingurune honetan?

Euskal emakumeak mesprezuz bizi du bere kultura, balio standar, telebista edo emakumeen prentsak zuzendutakoekin konparatuz. Hala eta guztiz ere, hainbat eta hainbat gauza transmitituko dizkio irrazionalki bere umeari, berak mesprezuz bizi-tako kultura eta hizkuntzaz zerikusi haundia dutenak noski.

Gaurko ama euskaldunak ez dizkio kontatzen bere umeari, berari, bere amak edo amamak kontatutako istorioak, garai eta mementura egokituak. Liburuak prestijio gehiago dute. Baina umeek misterioaren beharra dute imajinazioa eta dramatizazioa, hizkuntzan errepresentatuta dagoen mundu sinbolikoa ulertu eta barneratzeko. Ahoz kontatuz edo dramatizatuz askoz ere erre-kurrigarri, aldagarri eta moldagarriagoak bihurtzen bait dira.

Honez gain, amak umeari kontatutako edo dramatizatutako ipuinek, inguruarekiko beldurrak gáindituz, jolas inkontziente honen bidez, bizitzaren aurrean dituen galderei erantzuten lagunduko diote.

Nire ustez, lehen sei urteetan, ahoz emandako ipuinek, gero liburuetan ikusten dituenean, irakurgogoa sortzen dio umeari. Eta lehen landutako irudimenaren poderioz, berak ahoz entzundako ipuinak osatuz gain, mila interpretazio emateko gai izango da. Eta hemendik, familiak edo eskolak mugatzen ez badu, fabulari oparoa sortuko da.

Idatziaren arriskua hori bait da, moldeak finkatu eta imajinazioa geldieraztea.

Baina jo dezagun orain Fishman-ek emandako hiru puntuetara eta ikus dezagun euskal hiztunak non kokatzen diren:

#### 1. JARRERA POSIBLEA.

*Gure burgesia, orokorrean, B taldekoa izan da beti, A taldea baztertuz*

Hemen egongo litzateke administrazio gehiena, unibertsitaterik eta politikariarik barne.

Batzuek etorkinak direlako, eta besteak erdal kulturatik etorkirik hor asimilatu direlako.

Nahiz eta batzuk euskara "truke-balio" bezala hartu eta ikasten hasiak izan, oraindik ezinezkoa da gure erakundeetan euskararen eguneroko erabilera.

#### 2. JARRERA POSIBLEA.

*Fishman-ek aipatutako erresistentzi jarrera litzateke hau.* Baina gaur egun erresistentzia hau gerra bezala planteatzen da, eta talde honek gauzak argi izan arren, hizkuntzari dagokionean, bere autoestima guztiz apalduta dagoenez, bere ahalmena inpotentziatik zuzendua dago. Jarrera honek, autoestima berreskuratu gabe, porrot-emaitzak ekar litzake.

Euskaldunok, geure buruarekiko estimazioa eta balore onarmentak orekatu beharko ditugu, puntu honetan garaile izan nahi badugu.

### 3. JARRERA POSIBLEA

*Jende gebiena, hizkuntz-bigaduraren ondorioz, 3. talde bonetan legoke: talde apatikoan.*

Gure eliteari jarraituz, eta baztertua ez izateko, herriko jendea, bere hizkuntza eta kultura agertzen lotsatu egiten da eta erdarara jotzen du, seme-alabentzat ingelesa eta beste hizkuntzak eta kulturak berenak baino onuragarriagozat kontsideratuz.

Hizkuntz politika guztia eskolara zuzendua dago. Hala eta guztiz ere, irakaskuntzan funtzionari asko, Bizkaian behintzat, erdalduna da eta hori oztopo haundia izanik, ez litzateke txarre-na, ereduak benetan errespetatuko balira.

Nire ustez, zaharren eta gazteen arteko katea apurtu egin da. Bizkaian etorkin asko izatetik aparte, batuaren politika gogor eta txarto erabilia izan da eta honek kalte handia egin dio euskarari berari eta kultura guztiari.

Horrela jarraituz, hemendik hamar urtera, orain Nafarroan edo Araban egiten diren bezalako kanpainak egin beharko dira Bizkaian ere.

Euskara ezin da inposatu. Hizkuntza, fruituak emateko, maitatu egin behar da eta azken aldiko politikarekin, betidanik maitate eta gorde izan dutenak, autogorrotora bidaltzen ari gara.

Lehen beren hizkuntzak ez zuen baliorik erdara nagusi zelako eta orain euskara telebistan, e.a. entzuten dutenean, ez dute ulertzen.

ONDORIOA: hizkuntza bat normalizatzeko, lana arlo askotan egin behar da. Orain arteko lan guztiak, erdaldun elebakarrak, frantsesak edo gaztelarrak euskalduntzeko zuzenduak izan dira, euskal hiztunak kontutan izan gabe. Euskaldun zaharrak, marjinatuak izan dira, analfabetoak direla leporatzen bait zaie.

Baina soziolinguistikak ez du interesik hizkuntza idatzian. Hizkuntzak mintzatzeko eginak daude eta mintzatzen diren bi-



tartean ez dira hiltzen. Ondo ikasi beharko genuke ikasgai hau eta horrela hitzun-kopuruaren eta bizkortasunaren arabera baloratu genuke gure hizkuntza, bere balioa kanpokoan esku utzi barik, zeren hauek beti begiratuko bait gaituzte zirkoko atso zabal edo bost hankako bigantxa bezala.

Euskara salbatuko bada, eta horretarako ahalegin guztiak egin beharko dira, beste inguruko gauza guztiekin batera izango da, ekologikoki, geure burua barne delarik.

Traultza frantsesaren aurrerakada bat, eta euskaldunok ontzat hartua, instrukzioarena izan zen: mundu guztiarentzako eskolatzeko eskubidea. Gobernu frantsesak estatu osoan eskolak eraiki zituen, baina toki bakoitzean mintzatzen zen hizkuntza kontutan izan gabe. Ipar Euskal Herrian, euskara, beste "patois" bat izatera pasa zen, hau da, bigarren hizkuntza.

Hego aldean ere, antzerako egoera eman zen irakaskuntzari dagokionez.

Foru-Diputazioek, basa-eskolak eraiki zituzten Errepublika garaian. Inguruak honela eskatzen zuenez, euskaldunak izatekotan sortu ziren. Baina hau beste era batera eratu zen. Gaztelera eta frantsesa, hizkuntz ofizialak ziren estatu bietan, derrigorrez ikasi beharrekoak noski frantses edo espainiar agiridun herritarrentzat. Eta are gehiago, herri baten alfabetizazioa ez da instrukzio akademikora soilik mugatzen.

Alde bietako euskaldunek, eskolan ikasi zuten beraien hizkuntza "patois" edo "dialekto" bat zela, beste hizkuntzekin konparaezina. Euskal Herriak, eta beraz, bere hizkuntzak ez duela historiarik. Euskara gauza arkaikoa dela, modatik at dagoena, eta inolako balio kultural edo literariorik gabea. Menditartean galdutako artzainak edo baserritarrak mintzatua. Hitz batez esateko, jende arrunt eta etorkizunik gabekoaren hizkuntza dela.

Eta hau baieztatzeko, Euskal Unibertsitatea egiteko ahalmen guztiek, porrot egin zuten. Aurrera egin zuen bakarra, jesuitek zuzendutakoa, Deustukoa izan zen. Kasualitatea ote?

Baina nik kasualitateetan sinisten ez dudanez, jarrai dezagun.

Gerla karlista ondoren sortu zen euskal oligarkia, betidanik egon da botere zentralaren alde. Ordurarte, euskal administrazioa herriak aukeratzen zuen, eta honek, lege, usuario eta hizkuntzaren ezagutza zuen. Garai horretatik aurrera, administrazio hau Estatuak izendatzen du. Administrazioaren eta administrazioaren artean amildegia sortzen da. Hortik aurrera, euskadun elebakarra marjinatua izango da. Itzultzaile eta interpreteen ordua iritsi zaigu, arazo sinpleenatarako, diputazio, udaletxe, epaitegi eta besteetan. Euskaldunak, beste herri edo etnia txikiak bezala, giza eskubideetatik at egongo dira, instrukzioari dagokionean.

Euskal Herrian, jende gehiena erdaraz alfabetatua izan arren, argialetxeek beraien irakurtzeko gogo-falta, nabarizat hartu dute.

Egia esateko irakurketa/idazketa prozesua hizkuntza arrotz batean egitea oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren. Mekanika azkar ikasten da baina ez da hizkuntzaren kontzeptualizaziorik eskuratzen.

Eskola-porrot gehienak ere hortik datozkigu. Gaurko eskola zentralistak, programa eta testu berdinak prestatzen ditu, geografia, maila sozialak nahiz kulturak kontutan izan gabe. Umeei hasieran irakurketa-mekanika berehala hartzen badute ere, eta hieroglifikoak bezala fonemak eta hitzak asmatzeak poza sortzen badiete ere, zentzua ulertzea zail bazaie, laster aspertuko dira, hasierako motibazioa galduz. Klaseko irakurgaiak eta literatura, gogaikarri bihurtzen dira beraiantzat.

Euskaldunek, ez dute ikusi beren hizkuntzan dotrinaz beste testurik, orduan klaseetako testuek, ez zuten zerikusirik beren mundu sinboliko eta kontzeptualarekin. Argi dago, Elizak bakkarik duela nahikoa diru euskalki ezberdinetan testuak argitaratzeko.

Ikus dezakegunez, idatziari gurtza handia eskaintzen zaion mundu honetan, ez dago tokirik euskaldun gehientzat.

Eta hala eta guztiz ere, posible da ingeles familia batekin uda pasatzera joatea, familia honi, alfabetatua dagoen ala ez inork galdetuko ez diolarik. Zeren, Londoneko suburbioetako jende arruntak prestijio handiago du, euskal baserriak baino, nahiz eta sozial eta kulturalki gure inguruan integratua izan.

Sistema hau erabili izan balitz (euskal inguruan bizi) euskalduntze prozesuan, hizkuntza biziaren ikasketa irabaziko genukeen eta euskal hitzunen bereganako eta bere hizkuntzarako estima lortu.

Honen kontra, hizkuntza idatzi eta gramatikaren gurtzaz, orain hainbat eta hainbat EGA tituludun ditugu, diploma poltsikoan izan arren, mintzatzeko gaitasunik gabe, administrazioan eta hezkuntza sailean batipat.

Hau dela eta, hainbat euskal hitzun galdu ditugu asimilazioaren alde. Batuaren politika-agintaria azentu-erregelari buruz ados jartzen ez diren bitartean, euskaldun berriak, izugarrizko azentuarekin mintzatzen dira. Onartezina, euskal hitzun itsu beharbada, baina gor ez denarentzat.

Barakaldon (bigarren hiria Bizkaian, Bilbo ondoren, 200.000 biztanlerekin, gehienak inmigratuak) entzun dut maiz: non entzun daiteke euskara?

Nire erantzuna hauxe da: hartu txalupa eta joan ibaiaren beste aldera, han mundu guztia mintzatzen da euskaraz!, joan Erandiora, hor duzue euskara "bixie"!

Baina hau ez da euskara batua, hizkuntza idatziaren eredu. Beraien helburua 6 hilabetetan EGA lortu eta euskaldun bezala eskubideak izatea bait da, eta denok dakigu denbora honetan ikasten den hizkuntza eta kultura zein mailakoa den!

Eta hauexek dira gaur egun gure euskal ereduak!

Bizkaieraren sistema nahikoa bereizten da fonologikoki eta morfologikoki sandhi eta kontrakzioei esker batuarengandik, baina hizkuntza bizia eta sortzailea da.

Bizkaiera sistematikoki baztertua izan da erdiguneko euskalkiekiko bere berezitasun eta ezberdintasunagatik, euskalki guztiek hizkuntza osotuko ez balute bezala. Eta bizkaitarrak, gaur egun marjinalizatuak direnez, lasai asko bizi dira gaztelera batua mintzatuz.

Zergatia, argi dago: bizkaieraren kontzeptualtasuna oraindik hurbil daukate, gchienak euskaraz asko mintzatu ez badira ere, entzuna dute, guraso, familia edo auzoen artean. Gaztelararen kontzeptualizazioa egunero hartzen dute telebista, egunkari, eta abarretan, hau eskolatik datorkiela gaineratu gabe. Batuak, ostera, oraindik ez du inolako erreferentziarik, horregatik egiten zaie hain erraz euskaldun berriek idaztea, erdaratik kalkoak hartzen dituztenez, itzulpenak literalki egiten bait dituzte. Baina hori ez da euskara, hori, euskal hizkiekin egindako erdara da!

Eta hemen dago euskal prentsaren kakoa. Norentzat idatzi?

Bizkaitarrek beraien hizkuntzaren balioa zalantzan dute. Zeren inor ez bait litzateke ausartuko ingeles bat kritikatzan edozein eratako hizkuntza erabil dezakeelarik, baina edozein euskaldunberriek gaitzat hartzen du bere burua, euskaldun zaharrak zuzentzeko.

Argi dago zergatia: euskaldunberria goragoko kulturatik datorrelako. Ingelesek, frantsesek edo espainiarrek harrokeria berdina agertu dute aurretik ere beste kontinenteetako indigenen aurrean. Beraiek frogatuta daukate nondik datozen, eta bigarren hizkuntza ikasiko dute eta literatura sortarazi herri basati honetan. Misiolariak berriro ere gure herrian!

Gehienetan, ostera, euskaldun berriak gramatika jakiten du, baina pilatutako kontzeptuak falta zaizkio, Saussure-k azaltzen zituenak, alegia, komunitate linguistikoa lotzen dutenak.

Eta euskaldun berriak ulertzen ez dituen kontzeptu asko, euskaldun zaharrak, erreprimitu eta ahaztu egiten ditu, lotsatuz. Bere hizkuntza arrunt eta eskas sentitzen du, eta honela doa piskanaka gure euskaltegi eta ikastoletako hizkuntza murrizten.

Hitz oso aukeratuak, intelektualak sartuz, baina atzetik kolektibo nahikorik eduki barik hitz horiek automatikoki kontzeptualizatzeke eta orduan elkarriketa edo irakurketa, martirio bihurtzen zaigu.

Soziolinguistika oso gutxi egiten da gure herrian eta eredu guztiak nahastu egiten dira.

Ahaztu ezin dezakeguna hau da: beste hizkuntza guztiek aurrera egiten badute, ez da unibertsitatean ondo idazten delako, eguneroko hizkuntza argota delako baizik. Hau komunikabideek ondo dakite, zeren tesi doktralek ez bait dute zerikusirik egunkari, iragarki edo kaleko hizkuntzarekin. Gaur egun Frantzia edo beste herrietan, nahiz eta oso goimailako elkarriketa izan, argota barra-barra erabiltzen dute komunikabideetan. Eta gehiago oraindik, Frantzia idatz-sistema aldatzeko mugimenduak hasi dira eskola-porrota kontutan hartuz.

Gaur egun euskal hiztunak, Bizkaian batez ere, txarto egiten dutela kontziente direlako ez dira euskaraz mintzatzen eta orduan etxean ere, gazteleraz egiteko ohitura hartu dute.

Euskal hiztunen kopurua 600.000tan<sup>10</sup> ematen zen orain dela urte batzuk, horietatik %60k bizkaiera egiten zutelarik eta kopuru hau ez da kontutan hartu. Euskaltzaindiak, diakroniari eta altxor literarioei begira, egungo egoera soziolinguistikoa ahaztu egin du eta horra hor emaitzak.

Batuaren eta bizkaieraren arteko gerrarekin aurkitzen gara oraingoan, eta gu beti gerran! Berriro ere beste banaketa bat egin da, herriarentzat tragiko bihurtu dena. Lehenik euskalkiak sendotu eta denok orekatu ondoren batua lantzen hasi beharrean, gero apurka batuari osotasuna eta ulermena emateko, presaz eta erdi-purdika ibili gara, batez ere ia inork irakurriko ez duen idatziaren premiagatik, besteei hori egiteko gai garela frogatzeko.

Noiz izango ote gara gai, goiko eta behekoen konparaketak alde batera utziz geu izaten hasteko? Seguruenik ere, gehiago errespetatuko gaituzte. Batua/bizkaiera aurrez aurre jartze hau,

Elizak eta politiko batzuk probetxatzen dute bizkaitar baztertu eta minduak erakartzeko, txar eta onen arteko filosofia bultzatuz. Dogma, klitxe eta muga gehiegi dago gure hizkuntzan eta politikan gure euskara behar bezala eta naturaltasunez gara dadin.

Gure elite akademikoen latin ikasketek eta beraien pentsamendu indoeuoparretik datorkien mentalitate kartesianok, eragin handia dute gure hizkuntzan. Hala eta guztiz ere, ez dakit nahikoak izango ote diren beraien hizkuntza ezartzeko...

Nik neure kezkek ditut, gauza berak porrot egin bait zuen Larramendi eta Aranarekin. Zoritxarrez ez dugu gure historia begiratzen.

R. M. Azkueren batasun-ideiaz asko mintzatu da, baina berak ez zukeen lapurtera erdiko euskalkitzat hartuko, gipuzkera baizik, bizkaierarekin lotura gehiago duelako, lexiko eta fonologiarloan eta baita morfologikoki zerbait lapurterarekin ere.

Euskalkien artean, bizkaiera da besteengandik gehien bereizten dena.

Berezitasunak berezitasun, esan beharra dago, Bizkaiko toki batzuetan bizkaierak, bereiztasun hauek galduta ere badituela batuaren alde.

Eta batuaren apostua eginda dagoenez, komunikabide eta besteen aldetik, azentuaz zintzo jokatu beharrari derrigorrezkoa deritzot, bizkaierari dagokionean, eta honela behintzat orain arte galdutakoak eskuratu ezin baditugu ere, gehiagok alde ez egitea lortuko genuke. Ondo aztertua da azentuak zeinen garrantzi handia duen hizkuntza identifikatzeko orduan. Nahiz eta hitzak ez ulertu, doinua antzekoa bada, honek erakarri egiten gaitu. Hizkuntzaren melodia bait da, lehenik batzuk besteengandik bereiz crazten gaituena.

Eta espero dezagun, apurka-apurka, komunikabide berrien bidez, irratit-elcibista lokalen eta ekologiarene garapenarekin ba-

tera, cuskal masa-medio alternatibo hauek martxan jartzen direnean, atzekoak kontutan izanik, aurrera egitea.

Zeren ezinezkoa bait da mintzatzen ikasi baino lehen idazten ikastea.

Azken urteotako produkzio asko gaitz beraz minduta dago: idatz-produkzio handia, baina balio kontzeptualetik at. Gaztele-ratik itzulitako lanak ere baditu sari literarioak irabazten! Dena da onargarri, euskarazko produkzio-lasterketa zoro honetan!

Baina gure biziaren pertzepzioa ez da somatzen. Gure mundua ikusteko eta interpretatzeko erak errebindikatzeko ordua iritsi dela uste dut. Euskaraz gauzatutako arloak eta gauzak, errespeto handiagoz egin behar dira.

Hizkuntza normalizatzeko, berrinterpretatu egin behar da, bertso zaharrak eta atsotitzak eguneroko hiztegian erabiliz, lotsarik gabe, erdarazko kalkoen truke. Gure umc eta gazteei elizak debekatutako kantu zaharrak irakatsiz. Martintxo asmatzaileak, neska dantzari eta sorginen salatariak baztertuz.

Gure herrietako plazetan, igandero txistu eta danbolina, trikitixa, txalaparta, rok-a eta beste musikarekin txandaturaz dantzatzen direnean... Modernitatea, antzinakotasunaren eboluzio bezala ikusten hasten garencan, eta ez aurkako moduan... Herrietan gazteek jaiak antolatzen dituztenean oraintsu arte bezala, dirua eta boterea alde batera utziz eta ludikotasuna helburu bakartzat hartuz... Gure herrietako neskak, euren euskalduntasuna eta naturaltasuna bildur barik bizitzen hasten direnean...

Gure hizkuntzak eta kulturak, hil edo biziko saltoa emango dute.

Guzti hau argitzeko eta bideratzeko, gazte eta zaharren arteko lotura egiteko metodologia aurkitu beharra dago. Eta dema honek ematen dit kemena, nire ikasketetan aurrera jarraitzeko.

*M.L.E.*

- <sup>1</sup> VYGOTSKY, Lev. S. *Pensamiento y Lenguaje*. Teoría cultural de las funciones psíquicas. La Pléyade. Buenos Aires.
- <sup>2</sup> VON HUMBOLDT, Guillermo. *Los Vascos*. Editorial Auñamendi. Donostia, 1975.
- <sup>3</sup> DE SAUSSURE, Ferdinand. *Curso de Lingüística General*. Akal Editor. Madrid.
- <sup>4</sup> OTEIZA, Jorge. *Quosque Tandem. Interpretación Estática del Alma Vasca*. Auñamendi Azkue 4. ed.
- <sup>5</sup> ORTIZ OSES / MAYR F.K. *El Inconsciente Colectivo Vasco. Mitología Cultural y Arquetipos Psicosociales*. Txertoa. Donostia, 1982.
- <sup>6</sup> JUNG, J.C. *El inconsciente colectivo y los arquetipos*. Paidós, 1970.
- <sup>7</sup> BARANDIARAN, J. M. *Mitología Vasca*. Txertoa. Donostia, 1988.
- <sup>8</sup> O. OSES / BORNEMAN / MAYR *Simbolos, Mitos y Arquetipos*, La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1981.
- <sup>9</sup> FISHMAN, JOSUA. J. *Sociología del Lenguaje*. Ediciones Cátedra. Madrid, 1982.
- <sup>10</sup> EUSKALTZAINDIA / SIADECO *Conflicto lingüístico en Euskadi*. Ediciones Vascas. Donostia, 1979.



## Hamaseigarrenean aidanez eta Mario Ricciren heriotzaz

Maribi Unamuno

Lagun ugari aztertu izan du *Hamaseigarrenean aidanez* nobela ikuspuntu ezberdinetatik abiatuz, azken urteotako gure literaturaz arduratuz. Oraingo honetan egin nahi litzatekeena zera da: Lertxundiren nobela honen eta *Mario Ricciren heriotza* filmearen artean badaudela deritzogun zenbait gai, azpigai, arazo,... edo nahi den, gauza berdinen berri ematea, ikuspuntu honetatik esango da esatekoa.

Duela urte pare bat, neguko gau batez, bakarrik nengoela eta deitu ere egin gabe, aurrera etorri zitzaidan, etxera, *Mario Ricciren heriotza* filmea, ("argiz beteriko leihoa" piztuta nuen eta), begira jarri nintzaion eskuak batuta eta nire memoriaz gehiegi fidatzen ez nintzelako edo, halako batean presaka joan nintzen boligrafoa eta papera hartzera, filme horretan aipatzen zen zenbait arazo eta aipaturiko Lertxundiren nobelaren artean berdintasun nahikoa nabariak ikusten bait nituen. Ondoko hauexek dira paperpunta hartatik, gaur ateratzen ditudan oharrak:

Bai *Hamaseigarrenean aidanez* eta bai *Mario Ricciren heriotza* giro erruralean gertatzen dira. Herrixka banatan giroturik daude.

Ez du datu honek adierazi nahi izango trageriak herri txikietan baino gertatzen ez direnik, baina, eurotan ematen zaien tratamenduaren apartekotasuna nabaritu agian bai.

Bai nobelan eta bai filmean, bertako biztanle baten heriotza kontatzen zaigu, baina kasu bietan gertakizuna estali egiten da eta gainerako biztanleek istripu batengan sinistuko balute bezala aurrera egiten dute, arazoan gehiago sakondu gabe, ezer aztertu gabe. Ez dago biztanleen aldetik egia azalertzeko grinarik, nahiz eta ziur diren istripu-itxurako horren azpian badela beste egiarik. Ez dakigu herriok zergatik ez duten jakinminik, are gehiago, egia aztertzen inor ibiltzerik ere ez duten nahi. Agian errealitatearen tragikotasunaz jabetzen direlako eta egia azalertzek ez hilci bizirik eman, ez inori mesederik egiten ez dielako.

Herriak egia susmatu egiten du baina, kontzienteki ixildu egiten da.

Bada kasu bietan emakume bat, erbesteko emakumea eta herrian bizi dena, ezkontzaren ondorioz. Daitekeena da Martzelinaren samina filmean agertzen den Cathyrena baino grabeagoa izatea. Nobelan agertzen zaigun andrazkoa, filmekoaren ondoan, askoz ere baliapide gutxiagoz hornitua dakusagu, baina bai bata eta bai bestea bakardade izugarrian bizi dira, egoerak bere sareetan harrapaturik; baliteke Cathy errekurso handiagoe-tako emakumetzat hartzea, baina egoeraren gogortasunetik aldentzeko posibilitatea, batean zein bestean itxita dago, ezin dute euren bakardadea eta ondorioz tristura alde batera utzi.

Cathy, desesperaturik, etsirik bizi den ospe handiko zientzi-lari baten itzalean bizi da, bere bizia senarrari emanik berau salbatzeko intentzioan, alde egiteak gizona lurperatuko lukeenez, horrelaxe bizi izateari derrigortua.

Martzelina ere, Domingoren itzalean bizi den emakumea da. Ez da ezagutzen Domingoren heriotz bila ibiltzearen arrazoiak

baina berak, heriotza, desesperantzaren azken maila legez bilatzen du bere bizitzan eta azkenik lortu egiten du. Martzelinak ezin du bere senarra lagundu, ezin du salbatu.

Andrazko biok, inork eskatu gabe, euren senarra salbatzeko ardura eurenganatu dute, agian inor salbatzearen ezintasunaz jabetu barik, edo ta aukeratu dituzten gizonek horretara bideratu dituztelako, edo txikitatik izan duten heziketak hori irakatsi die-lako. Dena den, gainditu ezineko bakardade kontziente minbe-ran bizi dira.

Emakumeen presentziaz bada beste puntu berdin bat. Zein nobelan zein filmean, emakume ostalari bat badago, beronek herriko beste emakumeek baino bizimodu sexual liberatuagoa daramalarik. Pertsonaia topiko honen agerpena azpimarragarri dugu lan biotan.

Bada, azkenik, beste puntu interesgarri bat aipatzeko. Nobe-lan narratzailea gizonetzkoa dugu, kazetaria ogibidez, istripu-hil-keta argituko duena. Filmean ere kazetari bat, telebistarako lan egiten duena da istripu-hilketa aztertu eta argituko duena. Bera da istorioaren gidari, bere ikuspuntutik ematen zaigu gehiena. Herriak fikzioan oinarrituriko errealitatean bizi izateko nahia pa- tenteki agertzen duen artean, kazetariok izango dira lozorro ho- rretatik ateratzeko jirabira guztiak egingo dituztenak. Ez dakigu fikziozko errealitate horrek berak azkenean herria itto ez ote lu- keen egingo, baina hala gertatu aurretik pertsonaia erbestear-na- rratzaileok askatu egiten dute, egia osoa eta kontzientean bizi beharraren mezua halekarkigute bezala; herrioren izakeraren eta bizikeraren aldaketa proposatuko baligute legez.

Kanpotar askatzailearen topikoarekin bat egiten dugu. Aska- tzaile den ala ez...

Gure literaturan, gure nobeletan kontaktzen zaizkigun fanta- siak, ala errealitate moldatuak, aldatuak ala dena delakoak, munduan beste literatura, zine edo fikziozko istorioak kontatze- ko erabiltzen den edozein mediotan kontaktzen direnen antzera- koak ditugu. Gure herrirako imajinatzen ditugun tragerietarik zenbait, munduko beste herri batzuetarako ere imajinatzen di-

tuzte beste batzuk. Irudimena, errekreazio fantastikoak, bakoi-  
tzak bizi duen inguruak eta kulturak eta abarrek landuta baina,  
indibiduoengan amankomunak ditugu, ondorioz, hauen mani-  
festazioak berdin-berdinak ez diren arren, zenbait alditan badi-  
tuzte garapen paraleloz agertzen zaizkigun puntu koinzidenteak.

*M. U.*

## Jaso ditugu

- AGIRREAZALDEGI, Alberto; **Heriotza Euskal Herrian**. Kriselu. Donostia. 1989. 17,5 x 11,5 cm. 172 or.
- ALBERDI, Andres; **Agustin P. Iturriaga (1778-1851)**. E.J.Publizitate Zerbitzua. Gasteiz. 1990. 23,5 x 22 cm. 17 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Literatur sariak 88**. Amorebieta-Etxano-ko Udala. Amorebieta-Etxano. 1988. 21 x 15 cm. 29 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Literatur sariak 89**. Amorebieta-Etxano-ko Udala. Amorebieta-Etxano. 1989. 21 x 15 cm. 38 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Bizkaiko eguzki-erlojuak / Relojes de Sol de Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila. Bilbo. 1990. 24 x 24 cm. 84 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Bizkaiko herri iturriak / Fuentes públicas de Bizkaia**. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila. Bilbo. 1990. 24 x 24 cm. 123 or.
- ASKOREN ARTEAN; **24. euskal liburu eta disko azoka. Durango 1989. Liburu eta disko zerrenda**. E.J.Kultura eta Turismo Saila; Gerediaga Elkartea. Durango. 1989. 23,5 x 16 cm. 501 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Artes plásticas y monumentales 6**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1989. 24 x 17 cm. 336 or.
- ASKOREN ARTEAN; **La cueva de Amalda (Zestoa, País Vasco): ocupaciones paleolíticas y postpaleolíticas**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1990. 30,5 x 21 cm. 277 or.

- ASKOREN ARTEAN; **Euskadi, gero eta gehiago**. Eusko Jaurlaritzza. Osasun eta Finantza Saila. Gasteiz. 1990. 24,5 x 16 cm. 70 or.
- ASKOREN ARTEAN; **1989 Txostena / Memoria 1989**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 1989. 30 x 21 cm. 224 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Regional Development Policies in Areas in Decline**. Eusko Jaurlaritzza. Gasteiz. 1989. 24 x 16,5 cm. 182 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Revista Internacional de Sociología 3**. Instituto de Economía y Geografía Aplicadas. Madrid. 1988. 23,5 x 17 cm. 502 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Revista Internacional de Sociología 4**. Instituto de Economía y Geografía Aplicadas. Madrid. 1988. 23,5 x 17 cm. 616 or.
- ASKOREN ARTEAN; **Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria**. Luis de Urantz Kultur Taldea. Irun. 1989. 24 x 17 cm. 279 or.
- BOGAARDS, Paul; **Gaitasuna eta afektibitatea hizkuntza arrotzen ikaskuntzan**. HABE. Donostia. 1990. 21,5 x 14,5 cm. 203 or.
- CONAN DOYLE, Arthur; **Zirroborro Eskarlata**. Igela. Iruñea. 1989. 18 x 11 cm. 149 or.
- E. H. ELKARTE AUTONOMIAREN ADMINISTRAZIOA. KULTURA ETA TURISMO SAILA; **Zer egin dezaket uda honetan Euskal Herrian 1990**. E.J.Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 22 x 22 cm. 295 or.
- ELORZA, A.; **Atzerrira goaz**. E.J.Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Kultura eta Turismo Saila). Gasteiz. 1990. 21 x 16 cm. 117 or.
- ETXEBERRIA, Jose Ramon; Albert Einstein; **Kosmoa pentsagai**. Gaiak. Donostia. 1990. 21,5 x 17 cm. 217 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Biztanleriaren berezko mugimendua 1980-1985 / Movimiento natural de la población 1980-1985**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 279 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera 11/1989 / Encuesta de población en relación con la actividad 11/1989**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 52 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Biztanleriaren inkesta ihar-  
dueraren arabera 12/1989 / Encuesta de población en relación  
con la actividad 12/1989.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.  
1990. 25,5 x 21 cm. 52 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Biztanleriaren inkesta ihar-  
dueraren arabera I/1990 / Encuesta de población en relación  
con la actividad I/1990.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.  
1990. 25,5 x 21 cm. 171 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Biztanleriaren inkesta ihar-  
dueraren arabera IV/1989 / Encuesta de población en relación  
con la actividad IV/1989.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.  
1989. 25,5 x 21 cm. 171 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Demografiako eta Balida-  
zioko inkesta 1986 (Erroldaren Balidazioa) / Encuesta Demo-  
gráfica y de Validación 1986 (Validación del Padrón).** Euskal  
Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21,5 cm. 254 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Estatistika Buletina 1/1990 /  
Boletín de Estadística 1/1990.** Euskal Estatistika-Erakundea.  
Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 68 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Estatistika Buletina 2/1990 /  
Boletín de Estadística 2/1990.** Euskal Estatistika-Erakundea.  
Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 87 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Estatistika Buletina 3/1990.**  
Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 67 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Estatistika Buletina 4/1990.**  
Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 88 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Estatistika Buletina 5/1990.**  
Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 25,5 x 21 cm. 82 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Euskadiko K.A.ko Input-Out-  
put Taulak 1985 / Tablas Input-Output de la C.A. de Euskadi  
1985.** Euskal Estatistika-Erakundea. Donostia. 1990. 25,5 x 21 cm.  
493 or.

EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Euskadiko K.A.ko kontu eko-  
nomikoak 1987 oinarria 85 / Cuentas económicas de la C.A. de  
Euskadi 1987 base 85.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.  
1990. 25,5 x 21 cm. 73 or.

- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA; **Euskal urtekari estatistikoa 1989 / Anuario estadístico vasco 1989**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1990. 26,5 x 21 cm. 512 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Ikasmaterial idatzien bilduma**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 27 x 20 cm. 348 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Irakaslegoaren Etengabeko Prestakuntza 90-91. Ikasturteko Plana**. E.J.Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 24 x 17 cm. 92 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Irakaslegoaren etengabeko prestakuntza-plana (I.E.P.P.) 1989ko iraila / Plan de formación permanente del profesorado (P.F.P.P.) setiembre 1989**. E.J.Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 30 x 21 cm. 175 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Oinarrizko kurrikulum-diseinuaren inguruan**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 30 x 21 cm. 188 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Eskola Publiko batean / En una Escuela Pública**. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1989. 30 x 21 cm. 501 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **I.E.P.P.ri buruzko debatea / Debate del P.F.P.P.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1989. 30 x 21 cm. 145 or.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA; **Irakaslegoaren prestakuntza Euskadin: premien azterketa 1989ko maiatza/ La formación del profesorado en Euskadi: necesidades detectadas mayo 1989**. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1989. 30 x 21 cm. 57 or.
- EUSKO JAURLARITZA. KULTURA ETA TURISMO SAILA; **Arkeoi-kuska 88**. E.J.Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 22 x 23 cm. 189 or.
- EUSKO JAURLARITZA. KULTURA ETA TURISMO SAILA; **Zehazki mehazki Euskadiko bekak**. E.J.Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1990. 24 x 17 cm. 208 or.



- EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMIA GARAPENERAKO SAILA; **Boletín berriemailea 2 zkia..** E.J.Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1989. 24 x 17 cm. 61 or.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, Jose; **Cádiz, los vascos y la carrera de Indias.** Eusko Ikaskuntza, S.A. Donostia. 1990. 24 x 17 cm. 231 or.
- GARMENDIA, Xalbador; **Beltza! Beltza!** Erein. Donostia. 1990. 19 x 12,5 cm. 59 or.
- GONZALEZ, Martin; MORAN, Enrique; **Demografiako eta Balidaziozko inkesta 1986 / Encuesta Demográfica y de Validación 1986. Informe sobre familia, nupcialidad y fecundidad.** Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1989. 24 x 17 cm. 69 or.
- GRANJA PASCUAL, J. Javier; **Federiko Belaustegigoitia (1876-1947).** E.J.Publizitate Zerbitzua. Gasteiz. 1990. 23,5 x 22 cm. 21 or.
- JERALD, Michael; CLARK, Raymond C.; **Hizkuntza bizitzatik ikasi (Hizkuntza ikasgelaz kanpo norbereganatzeko eta kulturaz jabetzeko iharduerak).** HABE. Amorebieta-Etxano. 1990. 21,5 x 14,5 cm. 142 or.
- JUARISTI, Felipe; **Arinago duk haizea, Absalon.** Erein. Donostia. 1990. 20,5 x 13 cm. 208 or.
- KINTANA, Xabier; **Imanol Berriatua.** E.J.Publizitate Zerbitzua. Gasteiz. 1990. 23,5 x 22 cm. 21 or.
- LASARTE, Asun; ZULOAGA, Idoia; **Alfabetatzerako Langaik Bizkaieratik Baturantz.** HABE. Donostia. 1989. 30 x 21 cm. 238 or.
- LEKUONA, Juan Mari; **Mimodramak eta ikonoak.** Erein. Donostia. 1990. 20,5 x 13 cm. 104 or.
- MCCOY, Horace; **Zaldiak akatzen ditugu ba....** Igela. Iruñea. 1989. 17,5 x 10,5 cm. 162 or.
- MUGARTEGUI EGUIA, Isabel; **Hacienda y Fiscalidad en Guipuzcoa durante el Antiguo Régimen, 1700-1814.** Gipuzkoako Kutxa Kultur Fundazioa. Donostia. 1990. 20 x 14 cm. 295 or.
- OTAMENDI, Jose Luis; **Poza eta gero,** Susa. Donostia. 1990. 20 x 12,5 cm. 62 or.

- PERURENA, Patriku; **Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak**. Erein. Donostia. 1990. 20,5 x 13 cm. 192 or.
- RETEGI, Malentxo; **Ispilu urdinak**. Erein. Donostia. 1990. 19 x 13 cm. 99 or.
- SOROA, M.; BARRIOLA, A.; **Antzerti eskola liburua**. E.J.Kultura Saila. Gasteiz. 1990. 21 x 15 cm. 51 or.
- STÜRTZE, Alizia; PAGES I BLANCH, Pelai; **Independentzia (1936ko aukera galdua)**. Gaiak. Donostia. 1990. 21,5 x 17 cm. 221 or.
- TOLOSA, Andoni; **Satorrak**. Susa. Donostia. 1990. 20 x 12,5 cm. 61 or.
- UGALDE, Martin; **Bihotza golkoan**. Erein. Donostia. 1990. 20,5 x 13 cm. 128 or.
- URKIZU, Patri; **Donostiako euskal itzundearen 75. urteurrena (1915-1990)**. Antzeru, E.J.Kultura Saila. Gasteiz. 1990. 29 x 17 cm. 17 or.
- XARRITTON, Piarres; **J.M. Moulier "Oxobi" (1888-1958)**. E.J. Publizitate Zerbitzua. Gasteiz. 1990. 23,5 x 22 cm. 13 or.
- ZELAIETA GEREDIAGA, Luis Mari; **"Zornotzako aditz-eren karinkarra"**. Amorebieta-Etxano-ko Udala. Amorebieta-Etxano. 1990. 24 x 17 cm. 105 or.
- ZUBIRI, Ilari; **Gramática didáctica del euskera**. HABE. Donostia. 1990. 24 x 17 cm. 382 or.

# JAKIN

## SOVIET BATASUNA eta JUGOSLAVIA

**Euskadiko PK eta Errepublika Baltikoak  
Errusiar formalismoa  
"Txistu" aldizkaria  
Emakumea eta Euskara**

Iraila  
Urria

**60**

1990

**Tolosa hiribidea, 103, 1-C – 20009 Donostia**  
**Tel.: (943) 21 80 92**